



EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA BERAKO RICARDO BAROJA ESKOLAN

Euskara alde batera utzi gabe, euskaraz ez dakiten familiekiko komunikazioa bermatzeko eta kulturarteko harremanak eraikitzeko proiektua abiatu dute Berako Ricardo Baroja eskolan. Joan den urtean, Leitzako Erleta eskolan egin zuten, eta balorazio positiboa egin dute. / 8

RICARDO BAROJA IKASTETXEA

Euskaltegietako atea zabalik


Irailaren 30ean bukatuko da Baztango, Bortzirietako, Leitzaldeko eta Malerrekako euskaltegietan izena emateko epea. / 12

SINADURAK

 MAIALEN
IANTZI
DANBORIENA / 3

 AITOR
AROTZENA
ALBIJU / 3

 MADDI ANE
TXOPERENA
IRIBARREN / 4

 ESTEBE
APEZTEYE
MURUA / 4



ZOZKETA / 60

5.665 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan / 16


Joaldunen Eguna irailaren 23an ospatuko dute Iturenen / 30



Ana Irungarai Jubera Azpilketako alkatearekin kontu kontari / 38

Leitzaldeko eskolarteko topaketak irailaren 30ean Areson / 37

Behi piriniotarren feria asteburu honetan egingen dute Elizondon / 40





Nafarroako

Bertsolari Txapelketa

2023

Urriaren 7tik abenduaren 2ra
Iruña · Viana · Uhartea · Leiza
Altsasu · Agoitz · Lesaka · Iruñea

Antolatzailea  Leguntzailea 

www.bertsotzale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

EGUTEGIAK 2023



**Hainbat
formatutako
egutegiak
egiten ditugu**

**ESKATU
AURREKONTUA
konpromisorik gabe!**

 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Gaitz «berriak»

Ikasleei asteburuari buruz galdetu eta erantzun gisa, etxetik ez direla atera aditzea, ohikoa bihurtu da. Asteburu guztia mundu digitalean sartuta pasatzen dute, eta naturaltasun osoz kontaktu. Zenbaitzuk, egun libre bakoitzean, hamar ordu egoten direla telefonoekin edo bideojokoekin aitortu izan didate. Erran beharrik ez dago honek fisikoki zein sozialki zenbateko kalteak sortzen dizkien.

Arazoa larria da; geroz eta gehiago dira teknologiekiko menpekotasunetik askatzeko terapia egin behar duten gazteak. Jendarteak zuzenean nerabeak zein haurrak kriminalizatzen ditu, baina teknologiaren erabilera okerra guk geuk transmitituriko gaitza da; gibeletik datozenek gudan ikusten dutena errepikatzen dute. Egunean zenbat aldiz desblokeatzen ote dugu gure mugikorra? Zenbat gauza publikatu? Lagun arteko otordueta ere, zenbat mugikor mahaia gainetan!

Honekin bizitzen ikasi beharko dugu, baina osasunaren mugak zainduz. Nostalgiaekin oroituiko ditugu lagunei abisatzeko etxeko tinbreak jotzen genituen garaiak...

**«ASTEBURU
GUZTIA MUNDU
DIGITALEAN...
ARAZO LARRIA DA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zerbaitetaz aritu behar

Matxismoaren aldarri egiten duen Rubialesen afera hor izaki eta, zer inporta dute bada Ameriketara ibilitako artzainek edo Bidasoaldeko erraldoiek? Olio litroa 12 eurotan eta, zer ari zara Rubialesi buruz solasean? Marokon lurrikarak 3.000 hildako eta, zergatik hitzegiten duzue olioaren prezioaz? Denen gustua egitea zail da, batzuen egitea ezinezkoa.

NABARMENTZEKOAK



**JULEN
GOIA MITXELENA**
XAKE JOKALARIA



**YLENIA
VILLABONA**
TALOGILEA

6 urte dituen Julen Goia Mitxelena Lesakako xake jokalaria ederki jokatzen duela erakutsi du berriz ere. Garaipena eta bigarren postua lortu ditu berriki jokatutako bi txapelketetan.

Irailaren 10ean egin zuten Leitza Talo Eguna, eta bosgarrenez Ylenia Villabona talogileak irabazi du talo lehiaketa. Bederatzi parte hartzaile izan ziren eta Villabona nagusitu zen.

GIBELERA BEGIRA



2013-09-19 · TTIPI-TTAPA · 598 zk.

Jesus Mari Sein saskigilearekin elean

Eskualdeko azken saskigilearekin, Jesus Mari Seinekin elkartu zen TTIPI-TTAPA duela 10 urte. 15 urte zituela hasi zen Sein saskiak egiten, eta 81 urterekin oraindik horretan segitzen zuen. Saskiak egitearen inguruko kontuak kontatu zizkion aldizkariari: «Kaskarroa handia behar du saskiarekin hasteko. Ordu pila behar dira, ez da egiten kolpean. Materiala lortuta, labean egosten dugu eta gero zumitzak banan-banan atera behar dira esku-tara. Gero, moldearen gainean lan eginez, ipurditik hasi eta pixkanaka gorantz joan behar da. Garai batean hamalau ordu sartzen genituen egunero. Astean saski kopuru bat zehaztu eta hura egin arte ez nion atsedenek ematen nire buruari». Omenaldi gisa, Igantziko bestetako txupinazoa bota zuen 2013an.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

TTIPI-TTAPA Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

| | |
|--------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 45€ |
| Leitza | 36€ |
| Hego Euskal Herria | 50€ |
| Ipar Euskal Herria, Europa | 100€ |
| Amerika eta Australia | 152€ |

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGO euskara

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Zu bezalakorik**Amets**

Tematiegia izan naiz, pentsatu du. Ez nion idatzi behar azkeneko mezua. Baina aitzinetik ere ari zen esperoan, eta lagunek gomendatu zioten bertze bat idazteko. Hipotesiak zerrendatzeari uzteko ere erran diote –ez du deus jakin nahi, zerbait pasatu zaio, oporretan egonen da, bertze norbaitekin dago–, bere buruan daudela; baina hori ezin du saihestu. Whatsappeko elkarrizketako mezuak behin eta berriz errepasatzea ezta ere: emotikono zaharkituegia, harridura ikur sobera, hiru puntu horiek. Online ikusi du, berriz. Irakurketaren bi ikurrak ez dira urdinu.

Donostiako Aste Nagusiko gau hura berrikusi du. Ikatz kaleko ostatu batean ezagutu zuten elkar. Ezagutu-edo. Ez daki gauza handirik hari buruz: herria, zertan egiten duen lan, garagardo zaporea; eta halere. Edo beharbada horregatik. Hark eskatu zion: emateko telefono zenbakia. Hura hasi zitzaion solasean. Gelditzeko proposatu zion. Eta orain. Ez daki zer gertatu den.

Arroza pasatuko zaiola pentsatzen du anitzetan, nahiz eta ez dakien prestatu nahiko lukeen: ezetz uste du; baina beharbada horretarako aukerarik ere ez dio aitortzen bere buruari. Atera nahi ote duen galdetu dio lagun batek: kontzertu bat dagoela badakit zein herritan. Bilatu du baina ez du ikusi: ez daki musika

«AMETSI GERO IDAZTEA ERABAKI DU. PENTSATUKO DU ZER»

mota hori gustatzen ote zaion. Mozkortu dira, eta aspaldiko ezagun bat hurbildu zaio. Solasean hasi dira; muxuka bukatu dute. Ez diote telefono zenbakirik eman elkarri.

Haize

Bere istorio bat ikusi du Instagramen. Goizeko ordu biak dira, eta ezin du loak hartu. Kamiseta zuria, galtza bakero motza: eder-ederra dago. Hurrengo istorioan Lur agertu zaio, bertze herri bateko bestetan. Eta bera etxean. Ez daki bietatik zein herri hautatuko lukeen.

Gaua Hodeirekin pasatu du berriz. Hiruretan ailegatu da, hiru mezu truke sinpleren ondotik. Erne zaude? Gustura egon naiz, erran dio goizean. Berak ez du asmatu Ametsena kontatzen. Bere burua desenkusatu du arrazoituaz oraindik ez dutela adostu zerbait ote diren. Eta bertzea ez dela deus izan, ere bai. Ez deus serioa behinik behin.

Alde egin duenean telefonoa hartu eta mezuak irakurri ditu notifikazioen leihotik: aitarenak, Ametsenak eta kuadrillakoenak. Aitari zuzenean deitu dio, elkarrekin bazkaltzeko, eta kafera kuadrillakoengana atera da. Ametsi gero idatziko diola erabaki du. Pentsatuko du zer. Gogotsu dago berarekin gelditzeko.

Terrazara ailegatu denerako borobilean zeuden lagunak. Arairi adarra jotzen ari dira. Haizeri ez zaio gustatzen elkarrizketaren haria galdu duen inor galdezka hastea, eta isilik arrantzatu ditu sare muturrak. Ekai ere berandu ailegatu da, baina bera ez da lotsatu. Kamiseta zurikoarekin? Ostatuaren barneal-detik udako aurtengo kantuetako bat aditu da, Ekairen zigarroaren keak lausotu duena: «Ez dago ni bezalakorik», dio gazteleraz. Gero ere ez dio erantzunen.



ESTEBE APEZETXE MURUA

Diskriminazio positiboa

Uda azken hatsetan dugu eta honekin batera herrietako azken bestak ere ospatzen ari dira asteburu hauetan. Besteiz gain, uztail honetan Baztandarren Biltzarrak 50 urte bete zituen. Eguna bera normaltasun osoz joan zen, baina sare sozial ezagun batean alimaleko kalapita piztu zen aitzineko astean. Bertan lagun batek besta hori euskara hutsean izatea kritikatu zuen, eta adierazi zuen bera eta bertze baztandar aunitz baztertuak sentitzen zirela euskaraz ez jakiteagatik. Hori guti ez, eta udalak edo bertze erakunde zein taldeek bailaran antolatutako kultur ekitaldi, ikastaro, hitzaldi eta gisakoak ere euskara hutsean izatea gaizki iruditzen zitzaiola adierazi zuen. Jasaten duten diskriminazioa eta baztandar erdaldun gisa dituen eskubide linguistikoak aipatuz akitu zuen diskurtsoa.

Erran bezala, mezuak erantzun uholdea ekarri zuen eta aldeko nahiz kontrako iruzkinak agertu ziren. Mezua bera bezain tristeak (edo agian tristeagoak) iruditu zitzaizkidan idazlea hauspotzen zuten batzuen erranak, salaketa hori egitean izandako «ausardia» txalotzen zutenenak.

Euskaraz bizitzea amets duguondako mingarriak dira gisa honetako iritziak. Zer eta erdaldunek euskaragatik bizi duten diskriminazioa aipatzea ere! Baztandarren Biltzarra sortu zen

«PAREKIDETASUNA LORTZEKO AHULENARI LAGUNTZEN SEGITU BEHARKO DUGU»

garai hartan hemengo eskoletan gure aitatxi-amatxi edo gurasoak zigortuak izaten ziren. Ez dago garai ilun haietara joan beharrik, ordea, euskaldunok gure etxean berean jasaten ditugun

bazterkeriak harrapatzeko. Gaur egun, baztandarrok ez dugu gure hizkuntza bermatua osasuna eta hezkuntza bezalako alorretan. Gainera, Nafarroako Gobernuaren borondate eskasa eta auzitegiek gero eta maizago paratzen dituzten trabak ikusita, ez dirudi egoera berehalakoan aldatuko denik. Ba al da hori baino hizkuntza eskubide urraketa handiagorik? Zer erranik ez, kultura, kirola edota aisialdiaren parte diren egitasmoak erdaraz izaten dira gehienetan; haurren marrazki bizidunetatik hasi eta sare sozialetaraino.

Gauzak horrela, gaur inoiz baino beharrezkoagoak dira euskara hutsean egiten diren ekimenak. Mezu horietan aipatzen zen hizkuntzen arteko «bizikidetzaren ziorionsua» ezin da izan bata bertzearen zangopean dagoen bitartean. Eta bien (edo hiruen) arteko parekidetasuna lortzeko ahulenari laguntzen segitu beharko dugu; izan Baztandarren Biltzarra, udalak antolatutako ekitaldi edo egunero gure hizkuntza zaharrari hantsa emateko lanean ari diren euskaltzale finei esker.

11 GALDERA LABUR

MIKEL HUALDE ARRIADA ELIZONDOKO ARGAZKILARIA

«Erretratuak egitea gustatzen zait gehien»

Nola definituko zinateke?

Gustatzen zait kanpotik erraten didatela lasaia eta hurbila naizela. Baztango gaiak eta arazoak interesatzen zaizkit.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola egitea eta argazkilaritza. **Noiz hasi zinen ziklismoarekin?** Betidanik egin dut kirola. Ttikitan eskubaloian hasi nintzen, eta gero nire kabuz lasterka. Gauza batek bertzea ekartzen du eta mendira joatea gustuko harrapatu nuen. Mantsoxeago hasi nintzen mendiko eta errepedeko bizikletarekin.

Bizikletan ibiltzeko ingururik gustukoena?

Baztan-Bidasoa. Mendiko bizikletan ibiltzeko paradisua da. Gustatzen zait oporretan joatean bizikletan ibiltzea itsasoa ikusi bitartean eta pare bat aldiz

ibili naiz Bardean eta zoragarria iruditzen zait.

Zenbatero ateratzen zara bizikletarekin?

Ez naiz sobera ibiltzen, astean pare bat aldiz aterata franko poliki da. Garai batean gehiago ibiltzen ginen.

Noiz hasi zinen argazkiak egiten?

Ondikol nire kuadrillakoa da, eta 20 urte nituela edo erakutsi zidan nola erabili kamara. Tartean bolada batez utzi nuen eta garai digitala hastean berriz ere hurbildu nintzen.

Zein argazki estilo gustuko duzu gehien egiteko?

Dudarik gabe erretratua. Baina, gutien egiten dudana da. Erretratuak egiteko harreman estuak sortu behar dituzu eta ni lotsatia naiz eta kostatzen zait. Kirol argazkiak egitea ere gustatzen



zait, baita jendea lanean ari denean ere. Baina ez betiko lanena, ezkutukoena baizik.

Zaila da kirol ekitaldietan argazkiak ateratzea?

Erraza ez da. Gustatzen zait flashak eramatea, eta hori traba izaten da kirolariendako. Bertze zailtasunak ere badaude: baimena eskatu behar da, ibilbidea ikusi behar da argazkiak egiteko puntu onena zein den jakiteko, egunean gauza guztiak garraiatu... Zailtasun handia harrapatzen dut nik

bakarrik joaten naizela eta fokatzea egitean, edo argia neur-tzean zailagoa izaten dela.

Zer ez da falta zure argazki ekipoa?

Kirol probetara ekipo osoa eramaten dut. Egunerokoan kamara ttiki bat ateratzen dut eta gustatzen zait zerbait bitxia ikustean argazkia ateratzea.

Zure asmoak epe motzera?

Kirolean eta argazkilaritzan gozatzea. Pozik egonen naiz erretratuak egiten hasiz gero.

Eta epe luzera?

Bide honetan segituta kontent.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



HEMEROTEKA



«Ez dut kate horretan sartu nahi. Ez naiz gai. Ez naiz gai urtero Durangoko Azokan lan berri batekin agertzeko. Aurten ez naiz joanen. Ez dut deus egin nahi presaka. (...) Orain, barrenera begira egon nahi dut. Baditut ideiak buruan, abiatu ditut bide batzuk, baina ez dut presarik gauzak egiteko. Egiten dudana ongi zaindu nahi dut».

OLAIA INZIARTE MUSIKARIA
NAFARROAKO HITZA | 2023/09/01

«Garai hartan geuk egin behar genuen, ez zen bertzerik. Zuk egiten duzu, edo ez du inork eginen. Sentsazio hori hagitz barneratua genuen garai hartan; ez bakarrik bertsoan. (...) Zegoen eredu bakarra plagizonena zen, eta, nahi edo ez, imitazioz egin genuen guk. Nik, behintzat, horrela egin nituen lehendabiziko pauso horiek.».

ESTITXU AROZENA BERTSOLARIA
BERRIA | 2023/08/27

BOTA BERTSOA

KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

ARANTZAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN
C MAILAN 2. SARIA

Kakaoa ezpainetan

Doinua: 90 urte

*Kakaoa ezpainetan
Estu lotu dut mototsa
Amak kotxeko bidaian
Hain maitekero nau goxa
Orain urduritasuna
Da aurretik neukan poza
Gogoak ta nerbioak
Ezinegona ta lotsa
Masailak gorri dauzkat ta
Azkar taupaka bihotza
Galduta nago, eztaikit
Nondik atera ahotsa
Dena horren desberdin da
Dena da horren arrotza
Uste baino zailagoa
Baita lehenengo oholta.*

*Agurrerako mikroa
Bi eskuez dut ukitu
Ondoren postura on bat
Ta eskuak non kabitut?
Bizkar atzean, patrikan
Bada mila zirrikitu
Baina kantatzen hasi naiz
Badut nahikoa meritu (bir)
Bi 'gallo' atera zaizkit
Baina ez nadin larritu
Ondoren txalo soinurik
Ozta-ozta dut aditu
Kantatzearen ideia
Kolpetik zait errukitu
Aulkian eseri naiz ta
Ez dut nahi berriz zutitu.*

*Nahiz eta hankak dardarka
Bueltatu nire tokira
Deskantsu motza izan da
Berriz deitu naute dida
Bi lagun aitxatu gara
Gaude elkarrri begira
Ohartu naiz ofizio
tenorea iritsi da
Doinua pentsatu eta
Erimak atera dira
Bertso dexenteak bota
Potorik gabe sikira
Ta irribarre batekin
Joan naiz nire aulkira
Txikian moldatu gara
Beraz goazen handira.*

*Eta beraz, handirako
Tenorea heldu dela
Begiak itxi-ireki
Hiru bertso doaz bela
Eta puntu-erantzuna
Iritsi denez horrela
Ohartu naiz gaurko lanak
Guztiz bukatu direla
Badakit, ezta izanen
Niretzat gaurko txapela
Baina hontan sentitu naiz
Egaña banintz bezela
Bihotza geldoa eta
Begi aldea umela
Jarri zaizkit bukaera
Aldera heldu garela.*

*Dena ez tut ongi egin
Ez naiz ona beharbada
Agian ez tut kantatu
Nire kideen gisara
Ta aurretik banituen
Mila hesi eta traba
Baina mikrofono bat zer
Ote den badakit jada
Eta zu, entzule hori,
Entzuten ari bazara
Nik gaurkoa bukatu dut
Baina elkartuko gara
Eta oraindik bertsoaz
beldur bazabiltza, hara
Lehenengo oholta uste
Baino errezagoa da.*



IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

‘Ikasturte politiko edo urte politiko’?

Duela bi aste hasi zuten aunitzek ikasturte berria, eta horren harira, gomendio batzuk eman ditu Euskaltzaindiak.

Hiztegi arauemailearen arabera, «udako bi oporraldiren arteko eskola aldia» da ikasturtea. Beraz, eskolarekin, edo, nahiago bada, irakaskuntzarekin zuzenean lotutako hitza da.

Aldiz, udako oporraldien ondotik hasten den eta hurrengo uda arte irauten duen jarduera politikoak ez du lotura zuzenik irakaskuntzarekin, nahiz eta gaztelaniaz *curso político* erabiltzen den hori adierazteko, *año político*-rekin batera (frantsesez, *année politique*; ingelesez, *political year*).

Hortaz, Euskaltzaindiak dioen bezala, *ikasturte politiko* esamoldearen partez, nahikoa litzateke *urte politiko* erabiltzea.

Ikasturte hitzaren eredura, *ikastordu* da forma arautua (ez **ikas ordu*, ez **ikas-ordu*, ez **ikasordu*). Lotuta idaztezekoak dira, halaber, ikasliburu (ez **ikas liburu*, ez **ikas-liburu*) eta ikasmaterial (ez **ikas material*, ez **ikas-material*).

Azkenik, **ikaslego* eta **irakaslego* baztertzekoak direla oroitarazi du Euskaltzaindiak, eta horien partez, hurrenez hurren, *ikasleak/ikasleria* eta *irakasleak/irakasleria* erabiltzea gomendatzen du.

* Izartxoia dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Kalko ustelak

‘Non dago baloia?’ *Non dagoen atea’

Maitane Maritorenak eta Xabier Mendikoak proposatuta ekarri dugu espainolaren egituratik egindako kalko hau Euskararen Txokora. Zoritxarrez, gero eta gehiago aditzen den adibidea da.

>Non dago baloia?

*Non dagoen atea (*Donde está la portería* egituraren kalkoa)

Batek baloia non dagoen galdetu du, eta bertzeak non dagoen atea erantzun dio. Ez da inondik inora zuzena. Horren partez, atean erantzun behar lioke.

>Non dago baloia?

*Non dagoen atea > Atean.

Hieroglifikoa


Ezinean eta amasestuka...



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Kulturartekotasuna eta euskara eskutik hartuta

Kulturarteko harremanak eraiki eta aldi berean euskaraz bizitzen segitzeko helburuarekin, proiektu bat lantzen hasi dira Berako Ricardo Baroja eskolan UEMArekin elkarlanean. Joan den urtean Leitzako Erleta eskolan egin zuten eta kontent daude emaitzak ematen ari dela ikusita

G. PIKABEA BERA-LEITZA

Nola indartu euskararen erabilera eta presentzia ikastetxeetan, euskaraz ez dakiten familiak alde batera utzi gabe? Nola bermatu familia horieki komunikazioa eta nola eraiki kulturarteko harremanak euskara atzendu gabe? Horixe bihurtu da Euskal Herriko ikastetxe aunitzetako erronka. Migrazioarekin lotuta, azken urteotan euskaraz ez dakiten gero eta herritar gehiago ailegaten ari dira eta aldaketa horren eragina ikastetxeetan ere sumatu dute.

Erronka horri erantzun nahian, 2021-2022. ikasturtean Zaldibiako (Gipuzkoa) eskolan lanean hasi ziren, Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Berrikuntza Zentroaren aholkularitzapean eta UEMArekin elkarlanean. Joan den urtean proiektu pilotu horri segida ematea erabaki zuen UEMAK eta lau herritan landu zuten, tartean, Leitzako Erleta eskolan. Euskaraz ez dakiten familien portzentajea % 12koa da Leitzako eskolan, eta joan den ikasturtean hasitako bidea fruituak ematen ari dela kontatu du Ainhoa Belauntzaran Barno Erleta eskolako zuzendariak. Balorazio positiboa egin du (ikus 10. orrialdea).

Leitzatik Berara

Arnasgunea edo udalerrri euskalduna izatea, ikastetxean etorri berrien kopuru adierazgarria izatea eta zuzendaritzak proiektuan lan egiteko gogoia eta inplikazioa izatea. Horiek dira proiektuan parte hartzeko bete beharreko irizpideak.

Ikasturte honetan UEMAKo kide diren herrietako ikastetxe gehiagotara zabaldu dute eta horietako bat izanen da Berako Ricardo Baroja ikastetxea.

Estitxu Pinatxo Olaziregi Ricardo Baroja eskolako ikasketak buruak kontatu duenez, «Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egin zigun proposamena. UEMAK haiengana jo zuen proiektua Bortzirietan martxan paratzeko egokia ikusten zuten edo ez galdetuz, eta euskara mankomunitateko teknikariek aproposena gure

eskola izaten ahal zela pentsatu zuten. Bortzirietako herririk haundiena Bera da, biztanle erdaldun gehien dituen herria, eta Bera kontuan hartuta, ikastetxerik handiena gurea da. Bertze ikastetxeetako balorazioak ikusita, parte hartzea erabaki genuen».

Aniztasun handia

Pinatxoren hitzetan, «maila guztietan badugu kanpoko jendea. Baina ageriagoan gelditzen da ikasle gaztetxoenen taldeetan. Gero eta nazionali-

tate gehiago dira. Orain dela urte batzuk ere herrian bage-nuen kanpoko jende dezente, baina aniztasun hori ez zen hain agerikoa. Gaur egun, badugu Hego Amerikatik etorritako jendea, Afrika iparraldetik etorritakoa, Europa ekialdetik etorritakoa...». Horren erakusle, hiru urtekoen gelako datuak paratu ditu mahai gainean: «Familia euskaldunak hamalau dira eta euskaraz ez dakiten familiak zortzi. Guraso horien jatorrizko herrialdeak Ekuador, Errumania, Moldavia, Portugal, Kolonbia eta Kuba dira».

Ikasketa buruak zehaztu duenez, «hainbat kultura ditugu, baina baditugu kultura beretik edanagatik euskaldunak ez diren familiak ere. Alegia, baditugu argentinarrak, moldaviarrak... Baina baita euskaldunak ez diren beratarak ere». Euskara eta kulturartekotasunaren inguruko proiektu honekin, «errealitate horiei guztiei» erantzun nahi diete: «Helburua denak eskola komunitatearen parte sentitzea da. Aunitzetan kulturagatik edo hizkuntzagatik familia guztiak ez dira berdin inplikatzeko, ez dutelako euren lekua harrapatzen, edo seme-alaben gelako gainontze-

«ESKOLAN GERO ETA ANIZTASUN HANDIAGOA DUGU»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA

«DENAK ESKOLAREN PARTE SENTITZEA NAHI DUGU»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA



Estitxu Pinatxo Ricardo Baroja eskolako ikasketa burua da eta proiektua lantzeko gogotsu dagoela aitortu du.

«Familia guztien ahotsa aditu eta elkarrekin egin behar dugu aitzinera»

BERAKO RICARDO BAROJA ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Guraso Elkarteare buru-belarri sartu da euskara eta kulturartekotasuna lotzen dituen proiektu honetan, eta gurasoak talde eragileko partaide ere badira. Euren gaitasuna hurbildu da ТИPI-ТТАРА, eta bertzeak bertze, euren kezkek, proiektuaren nondik norakoak eta helburuak izan dituzte hizpide. Bide batez, osteguneko aurkezpenera joateko gonbita egin dute.

Zer iruditzen zaizue zuen ikastetxeak halako proiektuan parte hartzea?

Eskolan seme-alabak ditugun hainbat errealitatetako familien integrazio saiakera interesgarria dela iruditzen zaigu. Hagitz kontent gaude bidea egiten hasteko aukera dugulako.

Gurasoei kezka sortzen dizuen gaia da?

Badugu kezka, bai, ikusten dugulako zer hobetua badugula eskola komunitateko alde batekoen eta bertzeoien arteko komunikazioan eta harremanetan. Eta proiektu honen bitartez pausoak aitzinera emanen ditugula iruditzen zaigu.

Zein dira gurasoek dituzuen kezkek?

Guraso elkartearen familien arteko eta familien eta eskolaren arteko harremanak indartzeko bide berriak jorratzea genuen jomuga. Proiektu berritzailea da eta gogoz eta ilusioz ekin diogu bideari, baina ziurgabetasuna ere sumatzen dugu... Batez ere familien parte hartzeak kezkatzen gaitu. Eskolako familia guztiak bertan egotea beharrezkoa izanen da, guztion ahotsa aditu eta elkarrekin aitzinera egiteko.

Hizkuntzari lotuta arazorik izan duzue?

Erran bezala, badira landu beharreko alderdiak. Proiektu honekin, euskara erdigunean jarriko dugu, baina eskolako familien jatorrizko hizkuntzek merezi duten lekua izanen dute eta komunikazio bide

«FAMILIA GUZTIAK AURKEZPENERA GONBIDATU NAHI DITUGU»

berriak probatuko ditugu denak eroso egoteko eta lekua izateko.

Zein da gurasoen arteko hizkuntza?

Gure nahia euskaraz funtzionatzea izanagatik, horretarako zailtasunak izaten ditugu, gurasoen artean aski hizkuntza errealitate diferentek daudelako. Proiektu honek horri aterabide bat emanen dio.

Urte hauetan aldatzen ari da gurasoen eta familien arteko errealitate soziolinguistikoa?

Bertze toki aunitzetan bezala, Beran ere aldaketa sumatzen da. Oro har, euskaraz ez dakiten familiak gero eta gehiago direla ikusten dugu. Ez dugu pentsatu behar, halere, denak estatutik kanpo etorritako familiak direnik, bertakoak edo estatukoak diren familia batzuk ere egoera horretan baitaude.

Proiektu honi lotuta, orain artekoak zer balorazio egiten zenukete talde eragilean?

Ongi ari garela uste dugu. Lanerako gogoz gaude eta talde eragilekoak ikas komu-

nitatean ekarriko dituen onura guztien fruituak ikusteko gogoz gaude.

Proiektuak euskarari zer ekarpen egingen diola uste duzue?

Euskaraz bizitzen, komunikatzen eta harremanak izaten lagunduko digun proiektua izatea espero dugu, baina gure hizkuntzan moldatzen ez diren familiekiko komunikazioa eta harremanak bermatuta eta indartuta. Hori da proiektu horren funtsa eta berritasuna.

Irailaren 21eko aurkezpenari begira, zer mezu emanen zeniekete eskolako gurasoei?

Proiektuak familien arteko eta familien eta eskolaren arteko harremanak hobetzea helburu duenez, guztion parte hartzea garrantzitsua ikusten dugu. Denon ahotsa aditzea hagitz garrantzitsua da eta bizikidetzaren osasuntsu baten oinarri interesgarria izan daitekeela uste dugu. Gure seme-alaben heziketan ere eragin positiboa izanen duela iruditzen zaigu.

Zerbait gaineratuko zenukete?

Eskolako familia guztiak gonbidatu nahi genituzke ortzegun honetan, irailaren 21ean, 17:00etan, Berako Kultur Etxean izanen den aurkezpenera. Zaintza zerbitzua paratuko dugu eta mokadutxo bat egiteko aukera ere izanen da.

ko gurasoekin ez dutelako harremanik... Hori agerikoa izaten da guraso elkartearen parte hartzerakoan, eskola kontseiluko partaide izateko garaian, eskolak antolatzen dituen ekitaldietan... Gehien inplikatzaren direnak bertako guraso euskaldunak dira, edo euskaldunak ez diren bertako gurasoak. Barrera horiek hautsi nahi ditugu». Gaineratu duenez, «guztien arteko harremanak sustatzen saiatuko

gara, zubi lana egiten, eta ea denon artean lortzen dugun denak eskolaren parte sentitzea eta jendea inplikatzeko. Hizkuntza edota kultura ez daitezela oztopo izan».

«EZ DAITEZELA IZAN OZTOPO HIZKUNTZA EDO KULTURA»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA

Gurasoei aurkezpenera

Joan den apirilean eman zizuten proiektuari lotutako lehenbiziko pausoak, «baina proiektu handia da, eta poliki-poliki aldaketak egingen di-

«DENOK ZERBAIT EGIN BEHAR DUGU DENA EZ GALTZEKO»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA

tugu». Talde eragileak zuzendaritzak, irakasle batek, guraso elkartearen kideek, udaleko ordezkari batek eta UEMAko teknikariak osatzen dute eta irail hasieran bertze bilera egin zuten proiektuaren inguruko xehetasunak lotzeko. Pinatxok aipatu duenez, egunotan UEMAko teknikariak irakasleei proiektuaren aurkezteko zien, eta hurrengo hitzordua ortzegun honetan, irailaren 21ean, egingen dute: «Aurkezpen →

«Probatu beharreko bidea da eta emaitzak ematen ari da»

AINHOA BELAUNTZARAN BARNO LEITZAKO ERLETA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Zaldibiako eskolan hasi zuten UEMAren esperientzia pilotua, eta 2022-2023 ikasturtean beste lau herritara zabaldu zuten. Horietako bat izan zen Leitzako Erleta eskola. Euskaldunak ez diren familien portzentajea % 12koa da Leitzako eskolan, eta kulturarteko harremanak eraikitze eta euskaraz bizitzeko segitzeko helburuarekin, proiektu honi baiezkota eman zioten. Ainhoa Belauntzaran Barno zuzendariak «oso balorazio ona» egin du; «probatu beharreko bidea» dela dio, eta «emaitzak ematen» ari dela gaineratu du.

Euskara eta kulturartekotasunari buruzko proiektua landu zenuten joan den ikasturtean Erleta eskolan. Nolatan izan zen?

Orain dela bi ikasturte euskara zerbitzuko teknikariak UEMAren ekimen honen berri eman eta ea parte hartu nahi genuen galdetu zigun. Proposamena irakurri eta ongi iruditu zitzaigun. Euskaldunak ez diren familiek harremanak eraiki eta integrazteko aukera eskaintzen zigun proiektua izaten ahal zela ikusi genuen, eta udalarekin eta euskara zerbitzuarekin batera, parte hartzea erabaki genuen.

Zein da Erleta eskolako errealitate soziolinguistikoa?

Izatez D ereduko ikastetxe bat gara, eremu euskaldunean gaude, eta gehienak euskaldunak gara. Baina badugu euskaldunak ez diren familien portzentaje bat ere, gutxi gorabehera % 12koa. Batzuek gaztelania dute hizkuntza, baina badira aljeriarrak, maliarrak, erumaniarrak, pakistandarak...

Errealitate hori asko aldatzen ari da azken urteotan?

Bai, etortzen diren familia berri horien artean asko dira euskaldunak ez direnak. Igoera han-



Belauntzaranek lau urte daramatza Erleta eskolako zuzendaritzan.

diena orain dela zortzi bat ikasturte hasi ginen nabaritzen, eta eskolan ez ezik, kalean ere ikusten da.

Proiektu honekin bereziki familiekiko komunikazioan jarri zenuten arreta. Azaldu...

Bai, hori da, familia guztiak eskolako kide sentitzea nahi dugulako. Beti izan dugu xuxurlarien figura eta euskaraz ez dakitenentzat itzultzaile lanak egin izan ditugu, baina nahi edo ez, aparte gelditzen ziren, fisikoki bakarrik alde batera. Guk, ordea, partaidetza sustatu nahi genuen, eta guraso bileretan Telegram aplikazioa erabiltzen hasi ginen. Gisa horretan, guraso bakoitza nahi duen tokian jartzen da, ez aparte. Telegramek euskaraz idatzitako mezuak nahi duzun hizkuntzara itzultzen ditu. Gainera, hizkuntza dezentetara egiten du itzulpen lana, eta horri esker, denek azalpenak ulertzen ahal dituzte. Lehengo urtean hori erabiltzen hasi ginenetik, gurasoen arteko bileratan asko nabaritu dugu. Txikikeriak dira, baina sartzeko edo integrazioa ahalbidetzen dute.

Eta xuxurlarien figura baztertu duzue?

Taldean euskaraz ez dakien bakarra baldin badago, xuxurlarien figura erabiltzen dugu. Bere ondoan jarri eta itzulpena egiten diogu. Hiru edo lau baldin badira, eta gela batean zortzi ere baditugu, Telegram erabiltzen dugu.

Telegram eta xuxurlarien figura aipatu dituzu. Baina gehiago ere egin duzue...

Eskolan aniztasunaren astea ospatzen dugu, eta orain dela bi ikasturteko aniztasunaren astean kulturartekotasuna landu genuen. Euskaldunak ez diren beste kulturetako familiak gonbidatu genituen, eta beraien hizkuntza, dantzak, jatekoa... erakutsi zizkiguten. Beraz, integrazio horretan orain dela bi ikasturte hasi ginen. Pasa den urteko ikasturtean, berriz, guraso bileretan dinamikak aldatu genituen. Bileretara gero eta guraso gutxiago agertzen zirela ikusten genuen, bai euskaraz ez dakitenak, baita euskaldunak

«INPLIKAZIO HANDIA ESKATZEN DUEN PROIEKTUA DA»

ere. Eta hori indartzeko bilere-tarako gonbidapenak ikasleek prestatu zituzten hainbat formatutan: bideoak eginez, postalen bitartez, e-mail pertsonalizatuekin... Bileren formatua ere aldatu genuen. Familiei informazio orokorra aurretik bidali genien, eta bileran azalpen oso azkarra egin ondotik, praktikotasunera joatea erabaki genuen. Hainbat dinamika garatu genituen: matematikako erronka, aniztasunaren inguruko marrazkiak, solasaldi dialogikoak... Gurasoei asko gustatu zitzairen, eta seme-alabei bueltan mezutxo bat utzi genien, globoekin, txarteekin... Bilerara etorri ez zirenek ere prestatu zituzten. Integrazioa indartzeko ekintzak egin genituen eta aurten ere berdin segituko dugu.

Proiektuaren inguruan, zer balorazio egingen zenuke?

Oso ona. Lehengo urtean guraso bileretan jarri genuen arreta, eta bai familiek, bai irakasleek oso balorazio ona egin zuten. **Hori da konponbide perfektua?**

Ez. Perfekzioa nahiko zaila da. Integrazioa ez da erabatekoa eta soluzioa ez da perfektua, baina probatu beharreko bidea da eta emaitzak ematen ari da. Oso proiektu ona da.

Aurten proiektua beste hainbat herritan jarri dute martxan, tartean, Beran. Zer aholku emanen zenieke?

Inplikazio handia eskatzen du. Familien parte hartzea bultzatu, kontzientzia handiarekin egin genuen lanketa, zuzendaritzatik banaka telefonoz deituz aritu ginen, etortzeko esanez. Hasiera guztiak bezala, kostatzen da, eta familiek «Zerarako joan behar dut? Ez naiz hemengo» sentimendua zutela iruditu zitzaigun. Barre horiek hausteko lan egin behar da, eta batzuek gaintitzea lortu dugu. Beraz, aholkua? Pazientziarekin hartzeko eta beraingana asko hurbiltzeko, tratu pertsonala indartzeko.



Ricardo Baroja ikastetxeko ikasleak eta irakasleak ikuskizun batean, eskolako gainerako kideen eta familien aitzinean. RICARDO BAROJA IKASTETXEA

—> orokorra izanen da, familia guztiei Berako Kultur Etxean eginen dieguna». Bertzeak bertze, UEMAko teknikariak eta eskolako ordezkariak parte hartuko dute. Baita udal ordezkariak ere: «proiektu honen udalei ere bidea ireki nahi die, ez ikastetxeei bakarrik», dio ikasketa buruak. «Aurkezpenean proiektua zer den, zein helburu dituen... azalduko diegu familiei. Euskara izanen dugu ardatz, baina gainontzeko errealitateak ere kontuan hartu nahi ditugu». Bide batez, «proiektuaren leloa transmititu» nahi dutela ere nabarmendu du Pinatxok: «Denok gure partetik zerbait eman behar dugu dena ez galtzeko».

Gaur-gaurkoz, ortzeguneko bilerara begira jarriak dira eta aurkezpen bileran «ahalik eta familia gehien biltzea» nahi dute. Helburu horrekin, «guraso elkararekin elkarlanean erraztasunak» emanen dituztela argitu du: «haurtzaindegi zerbitzua paratuko dugu eta merienda emanen dugu. Nola ez, aldibereko itzulpen zerbitzua ere martxan izanen da».

Eskolako familia guztiei egin nahi izan die parte hartzeko deia, «denak proiektu honen parte direlako». Hala ere, dei berezia «euskaldunak ez diren

familiei» egin die. Ez daitezela gelditu euskaldunak ez direnak etorri gabe, aurkezpena euskaraz izanen dela eta ez dutela ulertuko pentsatuz. Denak etortzea nahi dugu».

Alde batetik xuxurlariak

Euskarak hizkuntza nagusia izaten segi dezan, hainbat baliabide landu izan dituzte ikastetxeetan, arazoaren konponbidea ez baita denek gaztelaniaz egitea, nahiz eta denek edo ia denek jakin. Ricardo Barojako kasuan, «guraso bileretan, orain arte, irakasleak azalpenak ematen zituen, eta familiek aditu eta zalantzaren bat izanez gero galdetu egiten zuten. Oinarrian bilerak euskaraz egiten genituen, baina bi arazo hauek ikusten genituen. Alde batetik, familia erdaldunak erdia ulertu gabe gelditzen ziren, eta bertzetik, elebitan egin behar izanez gero, euskaldunak bi aldiz aditu behar izaten zuten bilera guztia, eta iraupen aldetik ere bikoitza».

«XUXURLARIAK ETA TELEGRAM ERABILIKO DITUGU»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA

Horregatik, ikasturte honetan bileren formatua aldatzea erabaki dute: «ikasturte hasierako bileretan, hasierako ordu erdian irakasleak informazioa emanen die, labur-labur, eta gainontzeko ordu erdian familien arteko harremanak sustatu nahi ditugu, dinamikak eginez, elkarrekin solas egin dezaten, elkar ezagutu... Biler horietan, itzulpena behar duen familia bakarria izanez gero, xuxurlaria izanen du ondoan, hau da, aldibereko itzulpena eginen dio. Euskaraz ez dakitenak gehiago baldin badira, Telegram aplikaziora joko dugu».

Eta bertzetik Telegram

Telegram aplikazioa eskuko telefonoan deskargatu (debaldekoa da), eta familiek itzulpena momentuan hartzen ahal dute. «Guk euskara hutsean bidaltzen ahal ditugu mezuak, eta familiek nahi duten hizkuntzan hartuko dute mezua, Telegram konfiguratu duten hizkuntzan», azaldu du Bera-

«GURE BEGIRADA ZABALDU BEHAR DUGU»

ESTITXU PINATXO, IKASKETA BURUA

ko eskolako ikasketa buruak. «Hori sekulako aurrerapausoa da guretzat. Gure errealitatea ez da euskaldunena edo gaztelaniaz aritzen direnena bakarrik, eta xuxurlariaren funtzioa momentuz gaztelaniaz bakarrik egiten ahal dugu, ez dugu bertze bitartekorik. Telegramak edozein hizkuntzatarara aldibereko itzulpena egiteko aukera ematen du. Poliki-poliki ikasiko dugu eta martxa hartuko dugu».

Lanerako prest

Pinatxok onartu du «erronka handia» dela kulturarteko harremanak eraiki eta aldi berean euskaraz bizitzen segitzea, eta jakitun da proiektuak lan eta inplikazio gehigarria ekarriko diela. Hala ere, «prest» daudela dio eta «ilusioz eta gogotsu» daudela gaineratu du: «Herri gutti batzuetan hasi ziren eta egin dutenek hagitz balorazio ona egin dute. Geroztik Euskal Herriko ikastetxe aunitz sartu gara proiektu honetan eta ematen du bere fruituak ematen ari dela». Gehiago ere erran du: «Hagitz proiektu polita da, denon onerako izanen dena. Zabal dezagun begirada eta saia gaitezen denon artean gure beldurrei eta kezkei irtenbidea bilatzen».

Euskara ikasi edo hobetu nahi duzu?

Irailaren 30ean bukatuko da AEKren Baztango euskaltegian eta IKAREN Bortzirietako, Leitzaldeko eta Malerrekako euskaltegietan izena emateko epea. Horren harira, euskaltegiko ordezkariekin eta euskara ikasten ari diren zortzi ikaslerekin bildu da TTIPI-TTAPA

G. PIKABEA

Euskara ikasi edo maila hobetu nahi duenak orain du aukera, irailaren 30era arte zabalik baitago euskaltegien matrikulazio kanpaina. Nahi duenak Baztango AEKren Suinki euskaltegian, edo IKAREN Bortzirietako, Malerrekako eta Leitzako euskaltegietan aurkituko ditu bidelagunak. Tartean izanen dira Estebe Apezetxe Murua (Baztango euskaltegia), Beñardo Goietxe Lournagarai (Bortzirietako), Iraia Ceballos Mitxelena (Leitzaldea) eta Marga Macho Aguillo (Malerreka).

Maila guztietan eta ordutegi zabalarekin urrian hasiko dute ikasturtea. Euskara ikasten hutsetik hasi (A1 maila) eta C1 mailara arteko saioak emanen dituzte, aurrez aurre eta online. Hasi nahi duenak baditu bertzelako erraztasunak ere, Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko laguntzak ematen baitituzte.

Ikasleak

Ikasle kopuruari dagokionez, berdintsu dabilta azken boladan. Apezetxek erran duenez, Baztanen «azken lau pabortz urteotan zazpi talde atera ditugu eta 55-60 ikasleren bueltan ibili gara». Bortzirietan «guti goiti-beheiti 50 eta 75 ikasleren artean» izaten dituztela dio Goietxek, eta Leitzaldean, Ceballosen arabera, «30-35 ikasle». Machok zehaztu duenez, aurrez aurre «18-24 ikaslerekin bizpahiru talde» izaten dituzte Malerrekako eta «online sei-zortzi».

Tituluen bila batzuk, euskara ikastera edo maila hobetzera bertzak... «Maila guztietako ikasleak» dituzte eta bakoitzak bere arazoak ditu euskaltegi-hurbiltzeko. Baztanen, adibidez, «gehiengoaren helburua Baztanen bizitzeko euskara ikastea izaten dela» dio Apezetxek. Bide beretik jo du Ceballosek: «gehienak gaztelaniarekin moldatu badaitezke ere, hemengo hizkuntza euskara dela ikusten dutelako hasten dira».

Bortzirietan, «gero eta gehiago» omen dira «titulazioa gain-

ditzeko asmoarekin» hurbiltzen direnak. Baina «badaude oinarri bat ikasi eta komunikazio afektibo eta kulturala indartu nahi dutenak ere, zorionez». Malerrekako ere «azken urteotan jendea tituluen beharra duela-hurbiltzen da guregana». Baina badituzte «salbuespenak»: «euskarekiko motibazio sentimentala dutenak eta erretiroa hartuak, euskaraz ongi irakurri eta idatzi nahi dutenak...».

Jatorriari erreparatuz, Elizondon, adibidez, «denetarik» dute: «Baztangoak, Bertizaranakoak eta Malerrekakoak, Ultzamaakoak, Euskal Herriko bertze herrietatik hona bizitzera etorri direnak, katalan batzuk, munduko hainbat herrialdeetatik etorritakoak...». Doneztebeko kasuan, «bertze herrialdeetatik etorritako aunitz ez dugu, neurri handi batean, bertaratzen direnean euren lehenetsuna ez baita euskara ikastea». Hala ere, katalanen jarrera «txalogarria» azpimarratu du: «Katalan aunitz eskualdera etorri dira eta horien motibazioa eta atxikimendua handia da». Gainerakoan, bai

Malerrekako, bai Bortzirietan, «gehienak bertakoak dira edo Euskal Herriko bertze tokietatik etorritakoak»; eta Bortzirietan baita «espainiar estatutik eta estatutik kanpotik etorritakoak» ere. Leitzaldean, berriz, «batez ere Espainiatik eta Latinoamerikatik etorritako jendea» dute.

Generoari dagokionez, ordea, ez dago zalantzarik: «ikasle gehienak emakumezkoak dira».

Ezagutza goiti, erabilera beheiti

Euskararen egoeraren harira, kezkatuak mintzatu dira laurak. Apezetxeren arabera, «Baztanen ezagutza gero eta zabalduago da, baina erabilerrari dagokionez ez da gauza bera gertatzen. Gazteengan eta haurrengan nabaritzen da bereziki. Ez da beraien errua, ingurutik hartzen dituzten estimulu gehienak gaztelaniazkoak baitira. Horretan helduek ere eragin handia dute».

Machok «euskararen erabilera eta kalitatea jaisten» ari direla sumatzen du, «baita hizkuntzarekiko atxikimendua eta kontzientziazioa ere». Nafarroako hizkuntza politikak «ez dute laguntzen» eta bere ustez, «batez ere jendartea da hizkuntza politikak hobetzeko presioa egin behar duena».

Ceballos eta Goietxe ere kezkatuta mintzo dira. «Herri koskorretan jendeak euskara jakitea ez du beharrezkotzat jotzen bertan bizi ahal izateko. Euskaraz ez badakizu, ez dugu inongo arazorik izaten gaztelera erantzuteko. Honek euskara ikasteko beharrik ez sentitzera



«EZAGUTZA GERO ETA ZABALDUAGOA DA; ERABILERA EZ»

ESTEBE APEZETXE, BAZTANGO AEK



«POLIKI-POLIKI AITZINERA EGITEA DA BIDEA»

BEÑARDO GOIETXE, BORTZIRIETAKO IKA



«HEMENGOA DEN HIZKUNTZA EUSKARA DA»

IRAIA CEBALLOS, LEITZAKO IKA



«ERABILERA ETA KALITATEA JAISTEN ARI DIRA»

MARGA MACHO, MALERREKAKO IKA

daramatza», dio Ceballosek. Eta Goietzek honela gehitu du: «30 urteotan pauso handiak eman badira ere, euskararen normalizazioa urrun ikusten dugu. Hau maratoni luzea izanen da, eta tarteka, gibelera eginda ere, segi eta segi, poliki-poliki aitzinera egitea da bidea».

Batzuk hasi dute bidea, inoiz ez baita berandu euskara ikasteko. Machok dio «euskaltegi-tan euskara maitatzen erakusten dugula eta hori lortzean poliki-poliki ikasten dela». Goietzek «euskara ikastea eta hobetzea merezi duela» nabarmendu du; «euskarak komunikatuz, euskaldunok eta gure kultura hobeki ezagutzeko eta maitatzeko, arima aberasteko, baita gure herrian gusturago bizitzeko ere». Ceballosek, berriz, «euskara gurea, hemengoaren hizkuntza bakarra» dela oroitari nahi izan du, eta ondorioz, «zaindu eta erabiltzea guri dagokigula. Denon ardura da gure herrian euskaraz bizi ahal izan gaitezen bermatzea».

«Bertakoek eskertzen dute euskaraz egitea eta mundu bat irekitzen da»

REGINA BRÜCKER GOIZUETAN BIZI DEN SUITZARRA

«Beldurrik gabe aritzen naiz euskaraz, hizkuntzekin nahiko lotsagabea naiz eta nik uste hori dela ikasteko sekretua». Hala dio suitzarrak. Etxean barneratu zituen lehen hitzak euskaraz: «Bikotekidea euskalduna da eta umeekin euskaraz egiten du». Ondoren, «duela bospasei urte Goizuetan euskara ikasteko taldea sortu zen eta urte batez ibili nintzen». Orain dela hiru urte, berriz, euskaltegiari hasi zen. Bere kasuan, «euskarak oso garbi egitea zaila» ikusten du, baina «nire helburua egunerokoan euskaraz bizitzeko adina ikastea da». Bizi den tokian bizita hori zor duela sentitzen baitu: «Goizuetan euskaraz bizi dira eta euskara ikasi behar dudala sentitzen dut». Hala, ez

dakitenei euskara «ikasi eta erabiltzeko» esan die: «Bertakoek eskertzen dute eta mundu bat irekitzen da». Zaila egiten zaio «euskaldunak elkarrekin beti euskaraz ez direla aritzen ulertzea, baita

euskaldunak hemen bizi garen erdal hiztunok ere. Ikasiko dugu, gutxienez ulertzeko adina. Urte batzuez euskara debekatua izan zen, baina karga politiko hori alde batera utzi behar da, bi aldeetatik. Euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea dute, eta hona etorri garen erdal hiztunok euskara ikasi eta kultura errespetatu beharko genuke».



Brücker bere haurrekin. Suitzarra da eta azken zortzi urteotan Goizuetan bizi da.

«Euskara ikastea errespetu keinu bat iruditzen zait»

MARTA MARTINEZ RODRIGUEZ LEITZAN BIZI DEN KATALANA

Katalunian, bikotekidearekin, ikasi zituen euskaraz aurreneko hitz solteak: «agurra, koloreak, asteke egunak, hilabeteak, zenbakiak, kanturen bat...», eta Leitzara etorritakoan hasi zen euskaltegiari, «lehenik eta behin, errespetu keinu bat» iruditzen zaiolako. «Hizkuntza berezia» dela dio, eta aitortu duenez, «katalan batentzat, azken finean latinetik datorren hizkuntza bat hiz egiten duenarentzat, oso zaila da euskara, esaldien egitura eta orokorrean hizkuntza oso desberdina baita». Baina gogotsu hartua du erronka, eta orain arte euskarako klaseak eta «lana, oposizioak, formakuntza profesionala eta gainerako kontuak bateratzea zaila» egin zaion arren, «aurten euskaltegiko orduz gain, Euska-

rabideak eskaintzen dituen ikastaro intentsiboak egiteko asmoa dut». Aipatu duenez, «aukera dudana bakoitzean euskaraz egiten dut», baina «Iruñean egiten dut lan eta bikotekidearen inguruaz eta Leitzaz gain, ez dut oso inguru euskalduna». Halere, «ia egunero ikasten dut zerbait eta horrela jarraitzea espero dut». Leitzako euskalkiarekin izandako anekdotak ere kontatu ditu: «Batzuetan, euskaltegiari, Leitzan hitz egiten ez den hizkuntza bat ikasten dugula esanez ibiltzen gara brometan. Hitz guztiak moztzen dituzte! Guk klasean *egin behar dut* ikasi ondoren, etxean *in beat* entzuten dut. Bestetik, beste hitzak erabiltzen dituzte: Guk *marrubiak* hitza ikasi eta bikotekideari *mauriak* entzuten



Duela sei urte etorri zen Manresatik Leitzara; euskaltegiari bost urte daramatza.

diot, eta ez dakit zertaz ari den. Beste hainbat hitzekin berdina pasatzen zait, *izotza* esan ordez *kolle...*. Euskararen «egoera kezagarriaz» ere aritu da: «Askotan galdetu didate katalana izanda, katalanez hitz egiten dakidan ala ez. Galderak asko harritu ninduen lehen aldian, Katalunian ia guztiak baitakigu katalanez. Bestetik, Euskal Herrian jaiotako batek baino gehiagok esan dit euska-

raz berak baino gehiago dakidala eta hori ez da ez normala, ez ona euskararentzat». Hala, hiztunei begira jarri da: «Euskal Herrian jaiotako erdal hiztunak bertako hizkuntza ikastera animatuko nituzke, benetan bertakoa baita. Kanpotik etorritakoei, berriz, ahal dutena euskaraz egiteko esanen nieke». Eta euskal hiztunei «egunerokoan erabiltzeko eta euskara sustatzen jarraitzeko» eskatu die.



Oteizaren helburua denekin euskaraz aritzea da.

«Euskaldun zaharra naiz baina urteekin aunitz galdu dut»

JUANA MARI OTEIZA BIKONDOA DONEZTEBEN BIZI DEN IRURITARRA

Euskaldun zaharra da, eta ez hori bakarrik, «eskolan hasi nintzenean ez nekien erdaraz». Baina «etxetik kanpo hainbertze urte pasatuta, euskara aunitz galdu» duela dio: «aditzak, formak...». Eta «kristoren pena» sentitzen du «euskara nola galdu dudan ikusita. Gurasoak euskaldunak, semeekin ere euskaraz, baina haunditu dira eta praktika falta zaidala nabaritzen dut». Gaineratu duenez, «lotsa ematen dit konbertsazio bat euskaraz ongi segitzeko kapaz ez izatea. Inguruan euskaraz ongi egiten duen jendea badela baldin badakit, urduritu egiten naiz». Horregatik erabaki zuen iaz Doneztebeko euskaltegian apuntatzea eta «arras gustura» dabil. Kanpotik etorritakoek euskara ikasten dutela ikusita, «emozionatu» egiten dela kontatu du, eta «etortzen diren guztiek» hala egin beharko luketela uste du; «beti guk etsitzen dugu». Gainerakoan, argi du bere helburua zein den: «denekin euskaraz egitea».



Euskara online ikasten du eta astero irakaslearekin biltzen da. RUBEN PLAZA

«Inoiz ez da berandu euskara ikasteko»

JUANMA MOLINERO UGALDE BERATARRA

«Urtero» erreparatzen omen zien euskaltegiatako matrikulazio kanpainei, eta duela bi urte erabaki zuen izena ematea. Hori baino lehen ez zuen arrotza euskara: «Euskaraz aritzen nintzen, baina ez nintzen ongi moldatzen, batez ere aditzekin. Jendearekin solasean eta lanean ere *Noticias de Gipuzkoan* ari da» mezuak eta deiak euskaraz erantzuteko ezintasuna nabaritzen nuen. Gainditu gabeko irakasgaia nuen». Batzuetan «zaila» egiten zaiola onartu du, baina «esperientzia hagitz ona» izaten ari dela eta «pixkanaka gero eta gehiago ulertzen» duela kontatu du: «Egunero aunitz irakurtzen dut, eta euskarazko testuak ere gero eta errazago eta gehiago irakurtzen ditut». Horrez gain, «harremanetan ere alde» sumatu omen du. Edozein moduz, «euskaldunak euskaraz ez direla aritzen ulertzea zaila» egiten zaiola ere aipatu du; «pena da». Bere ustez, «euskara altxorra da eta inoiz ez da berandu ikasteko».

«Euskara ikastea hagitz aberasgarria da»

LOURDES SAGUILLO CABEZA LESAKAN BIZI DEN BILBOTARRA

«Euskara pixka bat banekien, baina duela bi urte Lesakara bizitzera etorri nintzenean, euskaraz solas egin eta hizkuntza maila indartu nahi nuen». Hala eman zuen izena Bortzirietako euskaltegian, «2022ko urrian», eta kontent dabil: «Esperientzia hagitz ona da. Euskaraz solas egitera bultzatzen gaituzte, euskararekin zerkusua duten jarduerak egiten ditugu eta klasean hagitz giro ona dugu». Berari «arintasunez solastatzea» egiten omen zaio zailena; «solas egiteak lotsa ematen dit, urdu-

ri jartzen naiz eta horregatik trabatzen naiz». Hemengo euskarara jartzea «pixka bat kostatzen zaiola ere onartu du, «nik batua ikasi bainuen. Baina irakasleak bakoitzaren beharren arabera erakusten digu. Nire kasuan, eskualdean erabiltzen diren hiztegia eta esamoldeak erakusten dizkit». Dioenez, «Bilbon nire ingurua ez da euskalduna, baina Lesakan bizi naizenetik, bikotekideak, familiak, lagunak eta lankideek euskaraz aritzera animatzen naute eta haiekin elkarrizketak euskaraz izaten



Eukarak «lanean eta karrikan» atek ireki dizkiola kontatu du Saguillok.

ditut». Horrez gain, orain euskarazko produktu gehiago kontsumitzen omen ditu. Bere ustez, «euskaldunek zorte handia dute euskara ezagutzen dutelako, eta ez utzi erabiltzeari». Eta

«euskara ikasteko erraztasunak eta laguntzak» daudela ikusita, «euskara ikastera animatu» ditu erdaldunak. «Euskara zaindu, maitatu eta erabili behar dugu, ez galtzeko. Gure esku dago».

«Euskaldunon ardura da euskara mantentzea»

TXOMIN DIAZ GOMEZ AZPILKUETAN BIZI DEN IRUINDARRA

Zaragozan ikasten ari zela hurbildu zen lehendabizikoz euskararengana, «EKT taldean euskara ikasteko izena eman nuen». Eta Iruñeko AEKn eman zion segida bideari: «2000tik 2002ra aritu nintzen». 2017an Elizondoko euskaltegian hasi zen eta egun, C1 mailan ari da. Dioenez, «nire helburua ez da azterketa gainditzea, euskara txukuntzea eta hobetzea baizik» eta horretan saiatzen da etxean eta kanpoan: «Euskaltegia oinarria da, baina inportanteena

kanpoan euskaraz aritzea da». Beretako esperientzia «arras ona» izaten ari da, eta «Nafarroan euskara denok ikasi beharko genukeela» iruditzen zaio, are gehiago Baztanen. «Baztanen euskaraz ez badakizu, aunitz galduko duzu. Ez du ja ikustekorik Baztanen erdaraz edo euskaraz bizitzeak». Aitortu du ez dela beti erraza, baina «nahi izanez gero, dena gainditzen da»; baita bertako euskararekin izaten dituen zailtasunak ere: «Zaila da Baztango euskara



«Euskara txukuntzeko eta hobetzeko» C1 maila egiten ari da euskaltegian.

entenditzea, baina denborarekin konprenitzen ari naiz». Hala, erdal hiztunei «euskara ikasteko konpromisoa» eskatu die, «Nafarroa ofizialki elebiduna

delako» eta euskal hiztunei «erne» egoteko: «Egoera beti euskararen kontra izaten da eta euskaldunon ardura da euskara mantentzea».



Urrian bigarren ikasturtea hasiko du eta udan barnetegian ere ibili da.

«Jendea euskaraz sumatzen dut eta nik ere euskaraz bizi nahi dut»

CRISTINA TEROL MARIN ELIZONDON BIZI DEN KATALANA

Bartzelona utzita, joan den urtean etorri ziren Elizondora bizitzera familiarekin, eta joan den urtean berean eman zuen izena Elizondoko euskaltegian. Hutsetik hasi zen euskara ikasten, eta kontent dabil. Gainera, «Elizondon bizita, arras inportantea» iruditzen zaio euskaraz mintzatzea: «Ni katalana naiz eta guretako katalana inportantea den bezala, hemen euskaraz jakitea inportantea dela uste dut. Jendea euskaraz solasean sumatzen dut eta nik ere hala egin nahi dut». Joan den urteko ikasturtea ez ezik, udan Arantzan ibili zen barnetegian, eta «hasmentako egunak pixka bat gogorak» egin bazitzaizkion ere, «esperientzia arras ona» izan zela dio. Etxean «katalanez» mintzo dira, baina gainerakoan, «etxetik kanpo euskaraz bizitzen saiatzen naiz». Euskarak «ateak ireki» dizkiola ere aipatu du, eta erdal hiztunei «animatzeko» dei egin die. Esker oneko hitzak ere izan ditu, baztandarrendako bereziki: «*esker mile* egin diguzuen harreragatik eta eman diguzuen laguntzagatik».



laz hasi zen euskaltegian eta online eta aurrez aurre ibili zen.

«Nire herriarekin dudan zorra da, nire gurasoen hizkuntza»

NICOLAS GURRUTXAGA ARRILLAGA DONOSTIARRA DONAMARIAN

«Guraso euskaldunak nituen, eta hiru urterekin, gaztelaniaz jakin gabe eraman ninduten eskolara. Hantxe akitu zen kontua». Euskara galdu zuen, baina «euskara ikasteko gogoia betitik» izan omen du, eta «saiakerak» ere egin ditu: «baina medikua izan naiz, milaka ordu sartu ditut eta euskara ikasteko apuntatzen nintzen aldiro ezin izaten nuen taldearen erritmoa segitu». Hasi eta utzi ibili zen, erretiroa hartu ondotik «orain bai» erran zuen arte. «Nire herriarekin dudan zorra da, nire gurasoen hizkuntza, eta zahartu eta ez jakitea, onartezina iruditzen zitzaidan». Laz hasi zen euskaltegian eta esperientzia «bikaina» izaten ari dela dio. Gehiago ere bai: «Inguru euskaldunean bizita, ikasteko beharra sentitzen nuen. Jubilotekan, adibidez, denak euskaldunak izanda, nik ulertzeko euren hizkuntza aldatu? Ez da bidezkoa». Hala, erdal hiztunei «euskararengana hurbiltzeko» eta euskaldunei «euskara mantentzeko» eskatu die: «Zaindu beharreko altxorra da».

HEZKUNTZA

Eskualdeko 5.665 ikaslek hasi dute ikasturtea

laz baino 12 ikasle gehiago hasi dira Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

| | HAUR HEZKUNTZA | | | LEHEN HEZKUNTZA | | |
|-------------------------|----------------|----------|----------|-----------------|----------|----------|
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| BAZTAN | 0 | 0 | 196 | 7 | 0 | 437 |
| Almandoz IP | | | 5 | | | 6 |
| Amaiur IP | | | 10 | | | 16 |
| Arizkun IP | | | 6 | | | 19 |
| Arraioz IP | | | 14 | | | 22 |
| Azpilkueta IP | | | 7 | | | 17 |
| Baztan Ikastola | | | 69 | | | 134 |
| Elizondo IP | | | 44 | 7 | | 123 |
| Erratzu IP | | | 10 | | | 27 |
| Gartzain IP | | | 7 | | | 10 |
| Irurita IP | | | 14 | | | 34 |
| Lekaroz IP | | | 2 | | | 11 |
| Oronoz IP | | | 7 | | | 13 |
| Ziga IP | | | 1 | | | 5 |
| BERTIZARANA | 0 | 0 | 26 | 0 | 0 | 50 |
| Legasa IP | | | 13 | | | 26 |
| Narbart IP | | | 13 | | | 24 |
| BORTZIRIAK | 10 | 6 | 207 | 38 | 20 | 504 |
| Arantza IP | | | 14 | | | 44 |
| Bera (Ricardo Baroja) | | | 57 | | | 134 |
| Bera (Labiaga Ikastola) | | | 42 | | | 93 |
| Bera (Jesusen Bihotza) | 10 | 6 | | 38 | 20 | |
| Etxalar IP | | | 18 | | | 52 |
| Igantzi IP | | | 12 | | | 37 |
| Lesaka (Irain IP) | | | 39* | | | 89 |
| Lesaka (Tantirumairu) | | | 25* | | | 55 |

*2 urteko ikasleak barne.

| | BIGARREN HEZKUNTZA | | | BATXILERGOA | | |
|-------------------------|--------------------|----------|----------|-------------|----------|----------|
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| BAZTAN | 48 | 0 | 350 | 0 | 0 | 109 |
| Lekaroz | 48 | | 350 | | | 109 |
| Elizondo | | | | | | |
| BORTZIRIAK | 30 | 8 | 343 | 0 | 0 | 77 |
| Arantza IP | | | 14 | | | |
| Bera (Toki Ona) | 30 | 8 | 294 | | | 77 |
| Bera (Labiaga Ikastola) | | | 35 | | | |
| LEITZALDEA | 0 | 0 | 261 | 0 | 0 | 100 |
| Goizueta | | | 16 | | | |
| Leitza (Amazabal) | | | 245 | | | 100 |
| MALERREKA | 0 | 0 | 239 | 0 | 0 | 0 |
| Doneztebe (Mendaur) | | | 239 | | | |
| XARETA | 175 | 115 | 93 | 0 | 0 | 0 |
| Senpere (Arretxea) | 175 | 115 | | | | |
| Senpere (Laborantza) | | | | | | |
| Senpere (Kattalin E.) | | | 82 | | | |
| Urdazubi-Zugarramurdi | | | 11 | | | |
| Guztira | 253 | 123 | 1.286 | 0 | 0 | 286 |

| | HAUR HEZKUNTZA | | | LEHEN HEZKUNTZA | | |
|-------------------------|----------------|----------|----------|-----------------|----------|----------|
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| LEITZALDEA | 0 | 0 | 101 | 0 | 0 | 296 |
| Areso IP | | | 8 | | | 21 |
| Goizueta IP | | | 17 | | | 46 |
| Leitza IP (Erleta) | | | 76 | | | 229 |
| MALERREKA | 0 | 0 | 140 | 6 | 0 | 293 |
| Doneztebe (S. Migel) | | | 88 | 6 | | 199 |
| Ituren IP | | | 19 | | | 42 |
| Saldias IP | | | 5 | | | 9 |
| Sunbilla IP | | | 28 | | | 43 |
| XARETA | 73 | 166 | 98 | 178 | 234 | 160 |
| Sara (Publikoa) | | 17 | | 7 | 25 | |
| Sara (St. Joseph) | | 50 | | 9 | 47 | |
| Sara (Olhain Ikastola) | | | 32 | | | 66 |
| Senpere (Publikoa) | 26 | 64 | | 64 | 86 | |
| Senpere (Amotz publ.) | 9 | 13 | | 44 | 5 | |
| Senpere (Zaldubi ikas.) | | | 58 | | | 70 |
| Senpere (St. Joseph) | 38 | 22 | | 54 | 71 | |
| Urdazubi-Zugarramurdi | | | 8 | | | 24 |
| Guztira | 83 | 172 | 768 | 229 | 254 | 1.740 |

HAUR HEZKUNTZA

-20

LEHEN HEZKUNTZA

-20

| HEZIKETA ZIKLOAK | | | | | | | |
|------------------|---|-----|----|---------|-----|--------|----|
| LHB | | OMZ | | Erdi M. | | Goi M. | |
| A | D | A | D | A | D | A | D |
| 5 | | 41 | | 136 | | 33 | |
| | 5 | | 41 | | 136 | | 33 |
| 4 | | 0 | | 26 | | 27 | |
| | 4 | | 0 | | 26 | | 27 |
| 0 | | 0 | | 0 | | 0 | |
| | 0 | | 0 | | 0 | | 0 |
| 0 | | 0 | | | | 199 | |
| | 0 | | | 179 | | 20** | |
| 9 | | 41 | | 162 | | 259 | |

BIGARREN HEZKUNTZA

+130

BATXILERGOA

-27

HEZIKETA ZIKLOAK

-51

**B ereduok dira.



Bertsolariak kantuan, 2021eko txapelketako Leizako saioan. XDZ

Iruritan hasiko da Bertsolari Txapelketa

Hiru saio jokatu dituzte eskualdean: Iruritan urriaren 7an, Leiztan 21ean eta Lesakan azaroaren 19an

TTIPI-TTAPA

Bi urteko zikloarekin bat eginez, udazkenean egingen du Nafarroako Bertsotzale Elkarteak Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 46. edizioa. Urriaren 7an hasiko da txapelketa Iruritan, eta finala abenduaren 2an jokatu dute Iruñeko Anaitasunan. Tartean, lau final-laurden eta hiru finalurreko jokatu dituzte eta 24 bertsolari ariko dira kantuan.

Bi hilabetez, Nafarroako lur berdeak, horiak eta gorriak zeharkatu ditu 2023ko txapelketak. Bide horren bitartez, euskarari eta euskarazko kulturari ekarpen mamitsua egin nahi diote bertsolaritza Nafarroako hainbat eskualde eta bazterretara hedatuz. Era berean, euskal kulturaz gozatze-ko topaleku bat eskaini nahi dute txapelketaren bitartez, bertsolaritzaren eta oro har euskarazko kultur sorkuntzaren bueltan dabilten eragile eta norbanako guztientzako elkargune ere izateko.

Txapelketaren antolatzaileek nabarmendu dutenez, Nafarroako bertsolaritza «une gozoan» dela heldu da 46. txapel-

keta. «2021eko edizioan Anaitasunako finala inoizko jendetsuena izan zen. Eta azken Bertsolari Txapelketa Nagusian ere toki nabarmena izan du Nafarroak. Bai, zer esanik ez, Iruñeak jaso duelako final handia, baina baita nafar bertsolarien txapelketa osoan edukitako paperagatik ere. Baina hori guztia ez da bat-bateko lorea, urte osoa egiten den lan isilaren fruitu baizik, eta bertsolaritza transmititzeko hezkuntzaren alorrean egindako lan eskeraren ondorio zuzena. Egitasmo horiek baliabideak eta bultzada beharko dute hemendik aurrera ere, fruituak ematen segi dezagun».

Txapelketa saioz saio

Urriaren 7an, larunbata, hasiko da txapelketa Iruritan Gizarte Bilgunean 17:30ean egingen dute lehen final-laur-

24 BERTSOLARI ARIKO DIRA LEHIAN NAFARROAKO TXAPELAREN BILA

denarekin. Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez lesakarra, Sarai Robles, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Egoitz Gorosterrazu iturendarra ariko dira kantuan eta Maialen Belarra de- neztebarra gaiak jartzen.

Urriaren 14an izanen du segidan txapelketak Vianan. Julio Soto, Xabat Illarregi leiztarra, Ekhiñe Zapiain beratarra, Patxi Castillo beratarra, Urko Gartzia leizarotarra eta Aitor Irastortza ariko dira kantari eta Zigor Gartzia *Zian* aurkezten.

Biharamunean, **urriaren 15ean**, igandean, Uhartan izanen da hirugarren saioa. Joanes Illarregi leiztarra, Xabier Silveira lesakarra, Mikel Lasarte, Julen Zelaieta beratarra, Beñat Asitz eta Eki Mateorena leiztarra kantuan direla eta Ainhoa Larretxea beratarra aurkezle dela.

Fase horretako azken saioa Leizako Herri Aretoan egingen dute **urriaren 21ean**, 17:30ean. Bertan, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo lesakarra, Bittori Elizalde, Endika Legarra, Saats Karasatorre eta Fernando Zigaranda ariko dira kantuan eta Ander Aranburu aurkezten.

Finalurrekoak eta finala

18 bertsolari sailkatuko dira hurrengo faserako. Altsasun jokatu dute lehen finalurrekoa, **azaroaren 4an**, Zigor Gartzia *Zian* gai jartzaile dutela. Agoitzen jokatu dute hurrengo finalurrekoa, **azaroaren 11n**, Maialen Belarra doneztebarra gai jartzaile dutela, eta **azaroaren 19an**, igandea, azken finalurrekoa Lesakako Kultur Etxean Alaitz Rekondo lesakarraren aginduetara. Hiru saioak 17:30ean izanen dira.

Finala, **abenduaren 2an**, larunbata, izanen da Iruñeko Anaitasunan, eta hiru finalurrekoetako irabazleak eta puntuazioz sailkatutako bortz bertsolari ariko dira. Ainhoa Larretxea beratarra eta Ander Aranburu izanen dira gai-jartzaileak.

Solaslagunean izena emateko aukera ireki dute

Euskara modu informalean praktikatu nahi dutenek irailaren 13tik aitzinera Solaslaguna ekimenean izena emateko aukera dute. Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen du ekimena eta dagoeneko 30 urte daramatzate. Izena emateko epea orain ireki badute ere ikasturte osoan izanen da aukera apuntatzeko. Astero bidelagunak eta bidelariak elkartzeaz gain, euskara modu informalean praktikatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu ekimenak. Denera, Euskal Herrian 7.700 lagun baino gehiagok hartzen dute parte.



Solaslagun eguna Hendaian iaz.

Irailaren 30a arte eman daiteke izena bertso eskoletan

Irailaren 5ean ireki zuten eta hilaren 30ean bukatuko da Nafarroako bertso eskoletan izena emateko epea. Eskualdean 15 herritan izanen dira: Leiztan, Etxalarren, Arantzan eta Igantzin talde bakarra izanen da, Iturenen, Donezteben, Elizondon eta Beran bi talde eta Lesakan lau talde. Prezioari dagokionez hurrek 80 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek, aldiz, 140 euro. Zailtzak argitzeko 948 14 37 47 zenbakira deitu edo nafarroa@bertsozale.eus helbidera mezu bat idatzi behar da.



Munduko Kenpo Kai Txapelketan ariko diren lau kirolariak. BERAKO UDALA

Herriko lau kirolari Munduko Kenpo Kai Txapelketan

Irailaren 27tik urriaren 1era jokatuko dute munduko txapelketa Tunisian

TTIPI-TTAPA

Herriko lau kirolari, Ekai Etxeberria, Aimar Etxeberria Xabier de Cruz eta Markel Sanchez hilaren bukaeran Tunisian jokatuko duten Munduko Kenpo Kai Txapelketan ariko dira. Aspaldikoa da kenpo kai arte martzialarekiko herrian dagoen interesa eta atxikimendua, eta horren erakusgarri Beran dagoela kenpo kai kirolaren Europako egoitza.

Hain zuzen, Beran egin zuten irailaren 10ean, igandean, Tunisian jokatu du ten munduko txapelketako

Euskal Selektzioaren aurkezpena. Bertan elkartu ziren bai txapelketan ariko diren kirolariak, eta baita Berako Udaleko ordezkariak ere. Tartean, baita, bertan ariko diren Berako kirolariak ere.

Txapelketa irailaren 27an hasiko da eta urriaren lehenean bukatuko, eta Euskal Selektzioko ordezkariak hiru modalitatetan lehiatuko dira: defentsa pertsonalean, borrokan eta katan.

Kenpo kaia arte martzial bat da eta bereziki pertsonaren hazkundera eta hobekuntza bilatzen ditu.

Irakurle taldea sortzeko lehen bilera larunbatean egingen dute

A. LARRETXEA

Euskarazko irakurzaletasuna sustatu asmoz, irakurle talde bat antolatzeko lanean hasi dira herriko gazte batzuk. Irailaren 23an, heldu den larunbatean, bilera bat egingen dute Beranlandetan. Euskaraz leitzea da helburua, eta lei-

tutakoaz taldean solas egitea, hausnartzea eta gozatzea.

Larunbatean 12:00etan elkartuko dira taldea osatu eta ikasturteko martxa antolatzeko. Talde irekia da, eta euskaraz leitzeko gai izatea da bertaratzeko baldintza bakarra.

'Bidaia' ikuskizuna ikusteko aukera izanen da larunbatean

A. LARRETXEA

Aitzineko aldizkarian aipatu bezala, irailaren 23an *Bidaia* ikuskizuna ikusteko aukera izanen da Toki Ona kiroldegian. 200 parte hartzaile baino gehiago bilduko ditu ikuskizunak, tartean bai herriko eta baita eskualdeko abeslariak ere. René

Zugarramurdik sortu du ikuskizuna eta euskal lurraldearekin lotuta, aldi historiko garrantzitsuenak erakutsiko dituzte. Sarrerak oraindik eskuragarri daude Agara prentsan, eta Lesakako Telletxea estancoan eta baita www.entradium.com web orriaren ere.

Portugalgo dantzarien emanaldia izanen da iraileko azken larunbatean

A. LARRETXEA

Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta, iraileko azkeneko asteburuan, hilaren 29an eta 30ean, eta urriaren 1ean, Portugal iparraldeko Sao Pedro de Casteloes herriko dantzariak Beran izanen dira dantzan. Ortziralean ailegatuko dira

dantzariak eta larunbatean 18:30ean dantza jaialdia egingen dute Toki Ona institutuko estalpean. Portugalgo dantzariek gain, Gure Txokoako dantzariak ere ariko dira emanaldian dantzan. Beratarrek heldu den urtean joanen dira Portugalera.

Argitze, errehabilitazio neurologikorako zentroa

iktus, traumatismo, epilepsia, Parkinson, Alzheimer eta bertzelako dementsia eta eritasun neurodegeneratiboen ebaluazioa eta esku hartzea. Lanketa kognitiboa eta motorra. Neuropsikologia eta fisioterapia neurologikoa.

Santiago kalea 51 behe/eskua
20303 IRIUN (Gipuzkoa)
+34 943 051 227

www.argitzeirunestimulacion.com
argitze.irun@gmail.com
[@argitze.irun](https://www.instagram.com/argitze.irun)

744 484 361

ttipi-ttapa

JRIONE-GOKOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Aitzate, 21 • BERA

Emakumeen erotikari buruzko tailerra martxan

Irailaren 28an eta urriaren 10ean izanen dira ikastaroko bi saioak, Kultur Etxean eta Beralandetan hurrenez hurren

A. LARRETxea

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak antolatuta, emakumeei zuzenduriko *Emakumeon erotikak lantzen* izeneko tailerra egingen dute irailaren 28an, ortzeguna, eta urriaren 10ean, asteartea. Iraileko saioa Kultur Etxean izanen da eta urrikoa, aldiz, Beralandetan, eta biak 17:30ean hasi eta 19:30ean bukatuko dira.

Bi tailerrak doakoak izanen dira, eta parte hartzeko irailaren 25a baino lehen eman behar da izena berdintasuna@bortziakberd.eus helbidean edo 722 69 30 78 zenbakira idatzita. Tailerlean Taupadak Gune Sexologikoko bi sexologok parte hartuko dute, taldea dinamizatzeko eta funtzionamendua errazteko asmoz.

Landuko dituzten edukiak hauek izanen dira: gizakiaren sexu-egintza: sexua, sexualitatea eta erotika kontzeptuak; gure kulturaren dagoen gozamen-eredua eta mapa erotikoak handitzea gorputz globaltasuna eta joko erotikoa landuz.

Eduki horiek lantzeko erabiliko duten metodologia teoriko praktikoa izanen da, ikuspegi zikliko eta biografikotik landuko dute, hau da, norberaren gorputzaren eza-gutzan sakonduz. Proposamen guztiak teoriko-praktikoak izanen dira, eta tailerren kasuan bizipen gune bat ere gehituko da. Ideiak mugiaraztea eta emakumei gertatzen zaiena hobeki ezagutzen lagunduko dieten saioak dira, tailerreko antolatzaileen hitzetan.



UTZITAKOA

Inauguratu dute zakur parkea

Iturlandetako zakurren parkea erabilgarri dagoela ospatzeko, inaugurazioa egin dute erabiltzaileek eta udal ordezkariak. Parkea egiteko lanetan izandako zailtasunak oroitarazi zituzten udal ordezkariak, eta zakurren eta oinezkoen elkarbizitza sustatu behar dela nabarmendu zuten.

Ikasturtea hasi dute herriko lau ikastetxeetan

Iraila hastearekin bat hasi dira klasean herriko lau ikastetxetako haurrak. Ricardo Baroja eskolan hasiera berezia izan zuten, lehenengo egunean irakasleak mozerrotuta eta dantzan azaldu baitziren eskolara.

Ikasturte on denei!



Eskolako irakasleak. UTZITAKOA

Jaurtzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 - Alizate, 17 - BERA

Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN
639 955 324
www.fernandocelaya.com

Iruñeko Orfeoia kontzertua emanen du irailaren 30ean

Larunbatean 19:30ean hasiko da emanaldia elizan eta Lesakako bandako hiru tronpetista ere ariko dira

AITOR AROTZENA

Elizako organoa zaharberritu dutela eta kontzertua antolatu du Lesakako Roqués Organoren Lagunan elkarteak irailaren 30ean, larunbatean 19:30ean elizan. Iruñeko Orfeoia abestuko du, Igor Ijurraren gidaritzapean. Raul del Toro izanen da organo-jotzailea eta Lesakako musika bandako hiru tronpetistek, Mikel Galardik, Jabier Zubietak eta Mikel Iriartek ere joko dute. Aitzinera begira, Organorako musika Nafarroan zikloaren barrenean kontzertua emanen

du Santiago Banda organo-jotzaileak urriaren 2an, 18:30ean elizan.

'Hitzaztanak' tailerra

Bakea eta bizikidetzeta lantzen duten liburutegian programaren baitan, indarkeriarik gabeko komunikazioa lantzeko *Hitzaztanak*, ahoz goxatzen duten *laxtanak* tailerra emanen du Izaskun Mujikak irailaren 21ean, ortzegunean 17:30ean hasita liburutegian, 5-8 urteko haurrei zuzendua. Guttierrez 5 eta gehienez 20 haurren zat (gurasoak kanpoan).

Ipar martxari buruzko hitzaldia irailaren 22an

San Fermin erretiratuen elkarteak ipar martxari buruzko solasaldia antolatu du irailaren 22an, ortziralean, 18:30ean Koskonta bidea 7ko erabilera anitzeko udal aretoan. Noelia Martin ipar martxako instruktorea izanen da hizlari eta sarrera doan izanen da.

Beti Gazte kantari, muxikoak eta irakurle taldea

Beti Gazte Kantarin (ortzegunetan, bi astetik behin), muxiko taldean (asteazkenetan 18:30ean) edo irakurle taldean (larunbatetan hilabetean behin) parte hartzeko deia egin du Beti Gaztek. Horretarako 617 21 24 49 telefono zenbakira deitu behar da.



NAFARROAKO AUTOMOBOLISMO FEDERAZIOA

Lesakako XX. Rallysprinta eurpean

72 ibilgailuk eman zuten izena irailaren 2an Ziharka Sport eskuderiak antolatutako Lesakako XX. Rallysprintean. Saillkapen orokorrean Ivan Muñoz eta Gabino Martinez (Porsche 997 GT3) nagusitu ziren, Joseba Beola eta Joxelu Irtzokiren aitzinetik (Peugeot 208 Rally 4).



UTZITAKOIA

Julen Goiak ongi hasi du xake denboraldia

Irungo Bidasoa xake eskolan ari den Julen Goia Mitxelena 6 urteko lesakarrak ederki hasi du denboraldia. Briviescan (Burgos) jokaturako xake txapelketan bigarren izan da eta Nafarroako zirkuituko lehen torneo irabazi du, sei partidatan sei garaipen lortuta (argazkian).

**PRIM, c.b.**
Fisioterapia Zentroa

 **K-STRETCH**

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechebare

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORAK
1988 - 2018

609 446 693 - 948 625 663
nbidasoa@gmail.com

Zake zure ibilgailuaren zuzeneko arretza eskaintzen dugu

GASOLIOA ETXERA
eraman dago

Alkaga Industrialdia
Ziubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdia
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)



Baztan-Bidasoaldeko 19 erraldoien, konpartsen eta musikarien taldeko argazkia Harriondoa atarian, irailaren 9ko besta egun handian. AITOR AROTZENA

Besta egun handia egin dute erraldoien 75. urteurrenean

Baztan-Bidasoaldeko 19 erraldoi elkartu dira eta omenaldia egin diete urtetan herriko erraldoiak dantzatu dituztenei

A. AROTZENA

Isabel eta Fernando erraldoiak herrira ekarri zituztela 75 urte bete direla eta, Lesakako erraldoi eta buruhandien konpartsak antolatutako egun handia giro ederrean ospatu zuten larunbatean.

Meza ondotik, konpartsei harrera egin zitzaizen eta kalejira ere egin zuten musikarien laguntzarekin. 19 erraldoi atera ziren 18 musikari eta txarangarekin. Zehazki, Lesakako konpartsa Lesakako gaitariekin atera zen, Sunbillako konpartsa Antsoango Mendipe gaiteroekin, Berako konpartsa Berako gaitariekin (tarteaz gazteenak, 10 urteko Jokin Telletxea eta Unax Cachafeiro), Igantziko konpartsa Igantziko gaitariekin, Irurita eta Doneztebeko konpartsak Baztango gaitariekin, Baztango Jo ala Joko konpartsa Baztango gaitariekin eta Etxalarako konpartsa Lesakako zenbait musikarik osatuta txarangarekin. Doneztebeko konpartsak kideek xingola beltza zeramaten soinean, konpartsak kide izan zen Joxe Irigoien gogoan.

Karrikaz karrika ibili ondotik, plazan egin zuten topaketa eta azken dantza. Herriko konpartsak, gainera, omenaldia eskaini zien urte hauetan erraldoiak dantzatu dituzten hainbat laguni: Mikel Iriarte, Fermín Etxarte, Juantxin Maia, Juan Mari Etxeberria, Montxo Telletxea, Modesto Maia, Ptxurri Biurrarena, Peio Apeztegia, Axio Arriola, German Deskarga eta Joseba Etxarte. Ondotik herri bazkaria izan zuten jubilatuen elkarteetan. Arratsaldean Endara DJ izan zen plazan eta, bukatzeko, zezensuzkoa atera zen, ttikienen gozamenerako.

Erakusketa eta pisu zehatza

Bezperan hasi ziren ekitaldiak eta puzgarriak eta merienda izan zituzten kultur etxe atarian. Argazki erakusketa ederra zabaldu zuten eta *El peso justo* jokia izan zen helduentzat. Angel Caballerok asmatu zuen Isabel erraldoiaren pisua (47,5 kilo) eta Enara Aranburuk Fernando erraldoiarena (46 kilo), baina bazkarirako txartela Yolanda de Carlosi eman zion.



Herriko konpartsak lehengo eta oraingo kideak, erraldoiekin.



Berako Jokin Telletxea eta Unax Cachafeiro. Atabalean ere bada etorkizuna.



Batzuk leihotatik parez pare ikusi zituzten erraldoiak.

Usategietako tradizioaren besta irailaren 24an

Usategietako enkantean, berriz, lau postu hutsean gelditu arren, 45.433,13 euro hartuko ditu udalak

IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietako tradizioaren besta antolatu dute irailaren 24rako Sarako eta Etxalarko usazaleek, sare bidezko usoen harrapaketa berezi hau ospatzeko eta jendeari ezagutzera emateko. Igandean, 10:00etatik 13:00etara bertako ekoizleen merkatua, usazaleen makila-egite erakustaldi parte-hartzailea eta haurrendako puzgarriak izanen dira. 10:30etik aitzinera botaluze pilota partida ikusteko aukera izanen da. Jarraian, usategietako makila (karrote) botatzeko munduko txapelketaren zortzigarren edizioa egingen da. 12:30ean 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren sinadura berrestea egingen da eta, ekitaldia bukatzean, aretxe haragiarekin bazkaria Lizarietako zelaian. Bazkalondoan dantzaldia izanen da Modestorekin.

Usategietako postuen enkantea

Irailaren 2an egin zen lehen enkantean 41.197 eurotan eman zituen postuak udalak,

aurreikustakoa baino 3.256 euro gehiago. Guztira 21 ehi-za postu zeuden saltzeko eta horietatik zazpi hutsik gelditu ziren lehen saiakera horretan. Aitzineko urteetan bezala, hasieran posturik garestienak zortzigarrena eta hamaikagarrena izan ziren; biak 3.740 eurotan atera ziren eta prezio horretan esleitu zituzten. Hala ere, hamargarren postua izan da aurten gehien hobetu dena eta garestien eman dena; 2.551 euroan atera zen eta 12.501 eurora igo zen lehen enkantean.

Irailaren 12an egin zen bigarren enkantean ez zen animazio handiegirik izan. Ez zen sestarik eman postu bakar bategatik ere. Hori bai, lehen enkantean hutsik gelditu ziren hiru postu bere hasierako prezioan saldu zituzten: hamahirugarrena 1.666 eurotan, hamazazpigarrena 410 eurotan eta hemeretzigarrena 1.052 eurotan. 1, 14, 15 eta 18. postuak hutsean gelditu ziren bigarrenaren ere. Honela, dena, 45.433,13 euro bilduko ditu herriko etxeak.

Herriko erraldoiak Lesakako topaketan

Irailaren 9an Lesakan egin zen Erraldoien 75. urteurrenean parte hartu zuten Etxalarko bi erraldoiek. Lesakako musikariez osatutako txaranga izan zuten lagun eta giro ederra izan zuten.



OIHANE GOIENETXE



ANA INDABURU

Larraburua elkartekoak Bilbora txangoa

40 bat lagun Bilbora joan ziren irailaren 9an. Bertan Zazpikalen bisita gidatua egin, bazkaldu eta Artxanda ikusteko aprobetxatu zuten. Arratsaldean Gatikako Butroi gaztelua kanpotik ikusi eta Bakiora joan ziren hondartza bazterrean paseatzera. Iluntzerako itzuli ziren herrira.



CEAX

Imanol Vicente bosgarren Mirandan

Emaitza onak lortzen ari da Imanol Vicente. Nafarroako Slalomen txapelketan lehenengo postuan doa, lasterka baten faltan. Bertzetik, irailaren 2 eta 3an Espainiako txapelketako lasterketa izan zuen Mirandan eta bosgarren postua lortu zuen. Hurrengoa Mollerusan izanen du irail hondarrean.

Arduo
arropa-denda
etxeoko osagarriak | lentzeria
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

ORBELA
SERVICIOS DE ALERTEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA



Etxalartik talde ederra bildu zen. MIREN OLAETXEA



Ondarearen inguruko azalpenak aditu zituzten ibilbidean.

Proiektuaren kontra Azkura mendi martxa egin dute

Arantza Bizirik, Igantzi Bizirik eta Malerreka Bizirik taldeek ere bat egin zuten Azkura Bizirik taldearekin irailaren 10ean

IRUNE ELIZAGOIEN ETXALAR

Azkura bizirik plataformak deituta, mendi inguruan dagoen ondare baliotsua aintzat hartzeko eta Zelena Renovable enpresa pribatuak egin nahi duen Azkura proiektuaren aurka atxikimendua lortzeko, 50 bat lagunek mendi martxa egin zuten irailaren 10ean, herritik abiatuta. Arantza Bizirik, Igantzi Bizirik eta Malerreka Bizirik taldeek ere ekimenarekin bat egin zuten. 08:30ean Etxalarko plazatik abiatuta, ibilbidean geldialdiak egin zituzten bertako ondarearen inguruko azalpenak

emateko, herriko artzainen eta natura adituen eskutik. Bertzeak bertze, gau lana, artzaintza, arbolak, iturriak... 11:30ean ekitaldia izan zen Azkuran eta Mikel Etxaniz ingurugiroko teknikariak azalpen zehatzak eman zituen. Arantza eta Igantzikoak ere bertan elkartu ziren eta 130 mendizaleek elkarrekin talde argazkia atera zuten airetik. Irteerari akabaila emateko, bazkaria egin zuten Nabarlan. Eguraldi ederra lagun, eta garai bateko ondarea berreskuratuz, egun ederra pasa zuten bertaratutakoek.



Mendizaleendako otordua prestatzen.



Mikel Etxanizek azalpenak eman zituen Azkuko kaskoan.

Turismo Bulegoa udako datuak ohikoetara gerturatzen ari dira

Uda honetan 820 pertsona pasa dira Etxalarko turismo bulegotik. Pixkanaka goiti egiten ari da baina, halere, uztailamotela izan zen eta abuztuan berreskuratu zen kopurua. Aurten, 50 bakarrik izan dira estatu espainiarretik kanpokoak (%6a) eta estatukoekin bete

da ingurua inoiz baino gehiago. Bartzelona, Valentzia eta Madrilekoak izan dira gehienak. Furgoneta eta autokarabanetan etortzen direnen gorakada ere antzeman da. Herriz herri ibiltzea ere aunitz maite dute mendi ibilbideak garrantzia izaten segitzen dute.

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

ZALAIN
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

ARANTZA

Eskolako sukaldari eta zaintzale ordezkoen deialdia

Izen ematea 'arantzakogurasoelkarta@gmail.com' en egin behar da, bertara curriculuma bidaliz

NEREA ALZURI

Guraso elkarteak eskolako jangelan ordezkari sukaldari eta zaintzaile izateko deia egin du. Bete beharreko baldintzak zein diren ere zehaztu du: euskaraz jakitea, ordezkapena egin behar denean lanerako prest eta libre izatea; eta lana aitzinetik ikas-teko borondatea izatea, ordezkapena egin edo ez. Hautagai bat baino gehiago baldin badira, aukeraketa egitekorakoan, ondoko puntuak baloratuko dituzte ordena honetan: heziketarekin zerikusia duen formazioa izatea, herritarra izatea,

langabezian egotea eta eskolako gurasoa izatea.

Sukaldariak 09:00etatik 15:00etara eta zaintzaileak 12:50etik 14:20rako ordutegiak bete beharko dituzte, beti ere eskola egutegiarekin. Soldata ostalaritzako hitzarmenaren arabera izanen da. Eta interesa duenak guraso elkarteko helbidera idatzi behar du (*arantzakogurasoelkarta@gmail.com*). Curriculum e-mailez bidali edo guraso elkarte buzoian utzi behar da. Zalantzarik izanez gero, 669 34 67 57ra edo 677 65 33 84ra deitu behar da.

Bertso eskolan izena emateko epea zabalik da

N. ALZURI

Urtero bezala, Nafarroako bertso eskolatan izena emateko epea zabaldu du Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Eta herrian ere aukera izanen da. 9 urtetik 15era bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua izanen da eta asteazkenetan

17:30etik 18:30era eskolan bilduko dira.

Izen ematea telematikoki egin behar da, bertsozale elkartearen sarean prestatu duen formularioa betez, Irailaren 30era arte izanen da aukera eta eskolak urriaren 9ko astean hasiko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

60 bat herritar Azkuko mendi martxan

Joan den irailaren 10ean, Azkua bizirik taldeak, mendi martxa antolatu zuen Azkura, makroproiektu eolikoaren kontra. Eta Arantza Bizirik-ek ere deialdiarekin bat egin zuen. Bertzeak bertze, *Bulatxiki* eta Zepuru aldea eolikoak paratzeko arrisku handienetarikoa eremu bat dela aipatu zuten.

Gaztainondoen ikastaroaren azken saioa

Bertako gaztainak berreskuratzeko proiektuaren barrenean, azken saioa egin zuten irailaren 9an gaian aditua den Efrén Martinekin. Argazkiko kuadrilla bildu zen.



PATXI LARRETXEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Uda akabailako ekitaldiak

Udan musika emanaldi andana izan dira Aterpean eta Urruzuno literatura sariko egonaldiak ere egin zituzten Arkaitz Cano, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Tapia eta Leturia, Joseba Sarrionaindia, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña gonbidatuekin. Bertetik, Burlada jatetxeko uda akabailako bestan giro ederra izan zen.

XXI.SAGAR EGUNA
URRIAK 1, IGANDEA 11:00etan

- SAGARDO ETA ZIZARRA DASTAKETA
- SAGAR ERAKUSKETA
- TXISTORRA PARRILLADA
- HAUR JOLASAK

Zaloz Ola Sagardotegira
943 623 130 MEAKA AUZOAN 102 IRUJAN

ola  





Proban aritu ziren herriko kirolariak. BILTOKI

91 kirolarik parte hartu dute Igantziko IV. mendi duatloian

laz bezala, Josu Urrestarazu nagusitu zen banaka eta erreleboka Dani Iparragirre eta Koldo Herrera

ANA ETA ITZIAR

Irailaren 3an egin zuten aurten laugarren edizioa bete duen Igantziko Mendi Duatloia, XIII. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko lehen proba. Parte hartzailek 4,3 kilometro mendi lasterketan (183 metroko desnibelarekin), 18,8 kilometro mendi bizikletan (714 metroko desnibelarekin) eta bertze 4,3 kilometro berriz lasterka egin behar zituzten.

Banakako proban, 29 kirolarik egin zuten proba eta Urtsuarango Josu Urrestarazu izan zen bizkorrena (1.40.20), Ugaoko Unai Mateos bizkaitarra izan zen bigarren (1.43.22) eta Villabonako Eneko Gurrutxagak osatu zuen podiuma (1.44.01). Eskualdeko kirolarien artean, Igor Agesta doneztebarra 15. izan zen (2.04.00), Joseba Telletxea lesakarra 16. (2.04.54), Eneko Herrera sunbildarra 17. (2.06.22) eta Jose Luis Tapia lesakarra 22. (2.28.02).

Binaka, berriz, 31 bikotek osatu zuten ibilbidea. Horien artean bizkorrenak Arantzako Dani Iparragirre eta Sunbillako Koldo Herrera izan ziren,



Maria Iantzi eta Ainhoa Ubiria.

ordubete, 37 minutu eta 7 segundoko denborarekin. Bigarren postua Sunbillako Eneit eta Ekaitz Bertiz anaiek eskuratu zuten (1.38.49). Xabier Sanchez eta Aitor Auriarrain gipuzkoarrek osatu zuten podiuma, irabazleek baino sei minutu eta erdi gehiago erabiltuta (1.43.36).

Binaka mistoan, Intza Mitxelena eta Beñat Izagirre oiartzuarrak izan ziren bizkorrenak (1.52.49), Igantziko Nerea Arteaga eta Aitor Almandozen (1.57.17) eta Berako Ane Eltzaurdia eta Joseba Lasarteren aitzinetik (1.59.01).

Aipatzekoa da 50 laguntzailer eta 65 boluntario izan zirela laguntzeko prest eta balorazio bikaina egin du Biltokik.

San Migel bestetako prestaketetan burubelarri dabilta herritarrak

Hasia da sumatzen Sanmigel bestetako usaia bazter guztietan (*egitaraua ondoko orrietan*).

Herri bazkaria Baratzondon izanen da urriaroaren 1ean, igandean, 14:00etan eta txartelak Bi-biden eta Estankoan eskuratzen ahal izanen dira hilaren 23ra arte. Biltokiko bezperako afaria ere martxan da eta nahi duen guztiak izena emateko aukera izanen du Biltokin bertan dagoen tabloian.

Bertzalde, Biltokik antolatzen duten frontenis txapelketaren finala (Peio Migelena eta Jokin

Mitxeo, Iñigo Telletxea eta Mikel Urtzegiren kontra) eta hirugarren posturako partida (Joritz Eugi eta Manex Sarasola, Josu Iturbide eta Urtzi Loiarteren kontra) igandean, 11:00etan hasita. Ondotik bazkaria izanen dute elkartean.

Guraso Elkarteak kamisetak, botilak eta poltsak jarri ditu salgai. Erretorebaitan jartzen duten ostua ere ari da martxa hartzen, txandak (guraso nahiz boluntarioekin) eginak baitira dagoeneko. Urriaren 1eko haurren herri bazkariko txartelak ere salgai daude.



UTZITAKOA

Igantzi Bizirik ere Azkuko kaxkoan

Azkuako makroproiektuaren kontrako ekintzen artean, joan den buruilaren 10ean egin zen irteera Azkuko mendi kaxkora; bertan, Malerreka, Etxalar, Arantza eta igantziarrok zuten hitzordua eta herritik 40 bat lagun bildu zen, bertan bideo bat grabatu eta elkarrekin egoteko aukera izan zuten.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Produktu Tradizionala

SAGARDOREA, S.L.
PROIEKTU SARE SOZIALETAN

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

IGANTZIKO BESTAK 2023

OKILA
zurgingedia

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

Egitaraua

Irailak 23, larunbata

09:30ean gosaria. 10:00etan plater tiroketa. 12:00etan herriko frontenis finalak, gaztetxoak eta helduak. 16:00etan mus eta partxis lehiaketa Baratzondon. 20:00etan herriko dantzarien emanaldia.

Irailak 24, igandea

10:00etan karrika buelta txistulariekin. 11:00etan artisau azoka. 12:00etan XVII. Gazta Lehiaketa. 18:30ean karrika buelta kankailuekin eta buruhandiekin herriko trikitilari gazteen laguntzaileekin.

Irailak 29, ortziralea

09:30ean karrika buelta txistulariekin. 10:00etan karrika buelta ezpata dantzari-ekin eta txistulariekin. 11:30ean meza nagusia abesbatzak alaituta. **Ondotik,**



Bandera arbola doinuari dagokion ikurrik agurra eta ezpata dantzarien eta dantzarien saioa. 17:30ean pilota partidak: lehenengo partidan Mikel Eugi eta Oihan Andueza, Ibai eta Ander Urbistondoren kontra. Bigarren partidan Maddi eta Joana Irazoki, Ainara Hitaren eta Nahia Almandozen kontra. Hirugarren partidan Alberdi eta Apeztebxa, Canabalen eta Aldaberen kontra. 20:00etan mutxikoak. 23:00etatik 02:00etara Laiotz.

Irailak 30, larunbata

10:00etan karrika buelta gaiteroekin. 11:00etan toka txapleketa. 12:00etan karrika buelta kankailuekin eta buruhandiekin gaiteroek alaituta. 16:00etan artisau azoka. 17:00etan *Castellersak*. 18:00etan herri kirolak. 20:30etik 22:00etara eta 23:30etik 01:00etara Distopia elektrotzaranga. 00:00etan



LIDERA

HORTZ KLINIKA · ESTUDIO DENTAL



**GOZATU
IGANTZIKO BESTAK!**

Iturmenebiko plaza, 9-10 · 31770 LESAKA (N-6)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortsclinika.es
@liderahortsclinika



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzí (Navarra)

948 63 74 11

ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
info@zumarbhel.es
www.zumarbhel.es



Etorkizun Solar

Eguzki plakak, auto elektrikoetarako kargagailuak, ziurtagiri emergetikoak, ingeniariitza-proiektuak eta automatizazioak.

www.etorkizunsolar.es

info@etorkizunsolar.es

+34 661 02 22 51 +34 676 10 78 42 +34 669 14 69 97

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Ongi pasa
bestaki!

Abokatutza orokorrean - Herentziak
Alokairuak - Arazo administralboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. *Deltu hitzordua hartzeko*

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaalzuguren@gmail.com

betizuak zezen plazan. **01:00etatik
06:00etara** DJ Txingudi. **01:00etan**
Lila Puntua udaletxeko arkupean.

Urriak 1, igandea

09:00etan gazteen gosaria. **10:00etan**
karrika buelta txistulariekin. **10:00eta-
tik 12:00etara** haurrentzako puzgarriak

frontoian. **12:00etan** betizuak zezen
plazan Elutxa txarangarekin. **14:00etan**
haurrentzako herri bazkaria. **14:00etan**
herri bazkaria Joanes Illarregi eta Josu
Sanjurjo bertsolariekin. **15:00etatik
18:00etara** haurrentzako puzgarriak
frontoian. **19:30etik 21:00etara** Elene
eta Maddi. **Arratsean**, gaixoa ni.



Gora Sanmigelak!

Lagunak diren lekuan,
beti dago besta!

bortzirudi
inprimategia

kopiatzea - rotulazioa - serigrafia - papergileak
948601521 - bortzirudi@gmail.com

www.bortzirudi.com

E D A R I A K



Ongi pasa
bestaki!



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus



**Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**



Gagotarrak oroigarria hartu zuten lehengo haziak mantentzeagatik. UTZITAKOIA

Herriko antzinako tomate haziak saritu dituzte Iruñean

Sunbillako arrosa tomate baten hazitik sortutako aleak irabazi du lehiaketa Iruñean eta gagotarrak omendu dituzte

MAIDER PETRIRENA

Udarekin batera, bere zapo-reagatik gehien estimatzen den sasoiko produktuetako bat dator: tomatea. Irailaren 2an EKOMerkatua eta antzinako, tokiko eta ekologiko VII. Tomate Lehiaketa egin zuten Iruñean. Juan Pedro Santosek Biotzarin (Bigüézal) landutako Sunbillako arrosa tomate batek irabazi zuen lehiaketa. Epaimahaiak tomate irabazlearen testura, usaina, oreka gozosa eta umami zaporea baloratu zituen. Eugenia eta Mertxe Gabori antzinako tomate-barietateak (Sunbilla-



Iruñean hartutako oroigarria.

ko Arrosa eta Bihotz Gorria) mantentzeko egindako lanagatik oroigarria ere eman zieten. Eugeniak 97 urte ditu eta bere amaren garaiko hazia mantendu du.

Sunbillako erraldoiak Lesakako topaketan

Lesakako erraldioen 75. urteurrenarena ospatzeko Bidasoaldeko erraldioen topaketa ospatu zen irailaren 9an Lesakan. Parte hartu zuten 19 erraldioen artean herrikoek topaketa horretan giro ederrean parte hartzeko aukera izan zuten. Zorionak!

2021eko uholdeek eragindako kalteak moldatuak

2021eko abenduko uholdeek eragindako txikizioen konponketa lanak akituak dituzte azkenean. Aritzeder auzoan, Galtzadan, Giraungo errota ondoko bidean... guztietan kalte handiak eragin zituen urak orduan, baina dagoeneko moldatu dituzte.



GARAIN E IRIARTE

210 txirrindulari V. BTT martxan

Sunbillako V. BTT martxa egin zen irailaren 10ean. Eguraldi beroa lagun, izugarritzko giroa izan zen herriko karrika eta mendietan barna. Guztira 210 lagunek parte hartu dute proba ez lehiakorren. DJ&Jren eskutik musika ere izan zen eta akitutakoan, jatekoak eta edatekoak izan zituzten.



IGANTZIKO BILTOKI

Binaka bikain Igantziko mendi duatloian

Igantziko Mendi Duatloian bikotekako podiumaren lehen bi postuak Sunbillako gazteek osatu zuten. Hain zuzen ere, irabazleak Koldo Herrera Urroz herritarra eta Arantzako Dani Iparragirre suertatu ziren. Bigarren postua berriz, Ekaitz eta Eneit Bertiz Apezetxea anaiek eskuratu zuten.

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Besta ttikiak ospatuko dituzte asteburuan

Gazte Burrunbak antolatu ditu besta ttikiak, udalaren eta herriko hainbat ostaturen laguntzarekin

OIER ZULAIKA

Ekaineko San Pedro besten ondotik, asteburu honetan, irailaren 22an eta 23an ospatuko dira herriko besta ttikiak. Gazte Burrunbak antolatu ditu bestak, Doneztebeko Udalaren eta Titi, Irrintzi, Amezitia, Cafe, Xarmant, Maylin eta Shanti ostaturen laguntzarekin.

Ortziralean, 19:00etan hasiko dira bestak txupinazoarekin. Ordu erdi beranduagoa erremon-te txapelketa izanen da Ezkurra frontoian. Partidaz gain, Zubietako taloak dastatzeko aukera izanen da. Arrats-ean, 22:00etan hasita, kontzertuak izanen dira Santa Luzia plazan: Hago Silik, Nafarroa 1512 eta Skabidean taldeak, eta J&J Djak.

Larunbatean izanen dute segidan bestek. 11:00etan erraldoiak eta gaiteroak herrian



Larunbatean bazkaria izanen da.

barrena ibiliko dira. 12:30ean haurren dantza emanaldia izanen da Santa Luzia plazan. 14:00etan leku berean zikiro jatea izanen da. Otorduaren ondotik, 17:00etan hasita, Distopia elektrotxaragarekin ibiliko dira ostaturaz ostatu. 17:30ean haurrentzako zirku tailerra izanen da Bear Zanan eta 20:00etan Los Cazahuates mariatxiak Santa Luzia plazan. Bestak borobiltzeko, Alaiaki eta J&J Djak girotuko dute gaua.



UTZITAKOA

Arantzoko elkarteak 25 urte bete ditu

Arantzoko elkarte gastronomikoak 25 urte bete ditu eta hori ospatzeko ospakizuna egin zuten irailaren 2an. 1997an hasi ziren elkarte sortzeko lanean, eta urtebete beranduago ireki zuten. Gaur egun sorrerako 18 kidek eta elkarte ibiltzeko eskubidea duten bertze 43 bazkidek osatzen dute

Haurrentzako tailerrak izanen dira liburutegian hilaren 28an

MARGA ERDOZAIN

Irailaren 28an, ortzeguna, *Hitzaztanak* eta *Besarkitzak* tailerrak izanen dira liburutegian. *Hitzaztanak* 17:00etan egingen dute eta 5-8 urte bitarteko haurrentzako izanen da. *Besarkitzak*, aldiz, 19:00etan izanen da eta 12-16 urte bitarteko gaztetxoendako izanen da. Bi tailer hauek indarkeriari gabe-ko komunikazioari buruzko lanketa proposatzen dute eta Bakea eta Bizikidetzeta lantzen duten liburutegietako ekimenaren barrenean kokatu behar dira. Tailerraren helburuak komunikazioa hobetu, ahozko narrazioaren bidez komunikazio negatiboak, deserosoak eta bortitzak atzeman eta bertze komunikazio mota bat sustatzea dira. Tailer praktikoa izanen dira eta izena eman beharko da: liburutegian ber-

tan edota 948 45 09 09 telefonora deituta.

Bertze ekimenak ere martxan

Neguko ordutegia ezarrita (16:00etatik 20:00etara) liburutegiak 2023-24 ikasturterako ekimenak martxan ditu. Urriaren 3an Ipuin Txokoak bere ibilbidea abiatuko du. Haizea Loirak, 0-3 urte bitarteko txikiendako saio gustagarri hau bideratuko du eta hitzordua asteartetan 11:00etatik 12:00etara izanen da.

Irakurle taldeak ere martxan dira. Gaztelaniako taldeak irailaren 25ean Doris Lessingeren *El cuaderno dorado* liburua aletuko du eta euskarazkoak Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberria. Irakurle taldeetako atek zabalik daude, interesatuek argibideak liburutegian eskatzen ahal dituzte.

Euskal herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa frontoian

OIER ZULAIKA

Ezkurra frontoian jokatu-ko dute Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren kanporaketa irailaren 30ean. 18:00etan hasiko da saioa eta hamaika aizkolari ariko dira lehian. Joxean Etxeberria, Iker Vicente, Iban Re-

sano, Oier Kañameres, Xuban Kañameres, Jokin Urretabizkaia *Basozabal*, Xabier Zaldúa, Hodei Ezpeleta, Julen Gabirondo, David Naredo eta Alvaro Garcia.

54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako bina enbor moztu beharko dituzte.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Joaldunen Eguna ospatuko dute irailaren 23an

Joare soinuez gain, Unai Agirre eta Aitor Mendiluze ariko dira bertsotan eta herri kirol saioa ere izanen da

ARKAITZ MINDEGIA

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Iturengo joaldunak Zarauzko Euskal jaian aritu ziren eta beraien joare soinuak zabaldu zituzten besta handi horretan. Aitzinera begira, iraileko hirugarren larunbateko bestan joaldun kuadrilla gogotsu ariko dira joareak astintzen.

Egitarau zabala

Ekitaldiz beterik izanen da aurtengoan ere Joaldunen eguna. Larunbat goizeko lehen ordutik joaldunen joare soinuek eta herriko trikitilariak

eta panderojoleek beraien ibilbidea egingen dute baserri eta herrian barrena. Eguerdi partean herri kirolak izanen dira herriko plazan, Arraioz eta Basaburuaren arteko norgehiagokarekin, proba konbinatuan. Segidan, Unai Agirrek eta Aitor Mendiluzek bazkaria baino lehen bertso batzuk botako dituzte. Karparen azpian herri bazkaria izanen dute. Gero, bertsolariak eta Andoni Mitxelena akordeolariaren eskutik dantzan eta kantuan aritzeko aukera izanen da.

Miren Lanz aurkezle Hamaika Telebistako saio berrian

M ama eme* ume** saioa estreinatu zuen Hamaika Telebistak irailaren 5ean. Amatasunaren nondik norakoak jasoko dituzte, hamasei emakumeren lekukotzen bitartez. Aurkezle lanetan Ainara Lopez Zarcorekin batera, Miren Lanz Solbes herritarra ari da.

Yoga ikastaroa eta bertso eskola ere abiatzear

Astelehen eta asteazkenetan 09:30etik 11:00etara eta astelehenetan 18:00etatik 19:30era herriko etxean yoga ikastaroa emanen du Enriqueta Merbilhaak. Bertso Eskola, berriz, asteartetan herriko etxeko eskola zaharrean izanen da (www.bertsozale.eus/nafarroa).




ADOS PILOTA

Irigoien eta Alberro txapelkun Logroñon

Logroño hiria Federazioen arteko Emakumezkoen II. pilota txapelketa irabazi dute Janitz Irigoien Altzu eta Dunixe Alberro Isasi herritarrek. Irailaren 9an Adarragan jokaturako finala irabazi zuten. Irati Altzu Martinek ere parte hartu zuen, Sunbillako Iraide Iriarte Petrirenarekin.

Grafiti ederra Argisuriko zubiaren ondoan

Grafiti arront polita egin dute Argisuriko zubiaren ondoko transformadorearen paretan. Omayma El Ouardani eta Eki Gereka herritarra aritu dira lanean. Arte honen presentzia indartzea nahi lukete.







Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kantfonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO [moustache] MOTOV
BERGAMONT BH LAPIERRE MERIDA



Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabriken konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



948 031 174
info@anelan.pro



Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatisakoak, gardenak, jartzeko errazak...

www.kulturkari.com

40. edizioa beteko du Zubietako Euskararen Egunak

Urriaren 6-7ko asteburua prestatzen ari dira Zubietan, urteurrenaren harira zerbait berezia egin asmoz

FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA

Euskararen Egunak berrogeigarren edizioa beteko du aurtan. Urriaren 6-7ko asteburuan, ostiralean eta larunbatean, egingen da eta oraindik egitaraua erabat zehaztu gabe dago, baina urteurrenaren harira zerbait berezia egin asmoz biltzen hasiak dira gazteak. 2003an, hogeigarren urteurrenaren harira, kamiseta bereziak egin zituzten eta aurtan ere zerbait plantatuko dute seguruenik. Hurrengo aldizkarian izanen duzue egitarauaren berri zehatza.

Errotan neguko ordutegia

Udan Naia Etxeberria aritu ondotik, berriz Edorta Muruak hartu du errotazain lana eta dagoeneko neguko ordutegian hasiak dira: asteazkenetik igandera, 11:00etatik 14:00etara.

Jubiloteka ere martxan

Uda ondotik, bere martxan hasia da berriz ere jubiloteka, Ramoni Ordoki lesakarraren eskutik. Asteartero 16:00etatik 18:30era biltzen dira eskolan eta atek irekiak dituztela gogoratu dute.



MARI JOSE MITXELENA

Senar-emazteak Eratsunen omenduak

Eratsungo festen aurretik Iruñarri eguna ospatu zuten irailaren 2an Eratsunen. Omenaldi beroa eskaini zieten aurtan 62 urte ezkondurik bete dituzten Julian Retegi eta Maria Teresa Belokiri eta 60 urte ezkondurik bete dituzten Rufino Mariezkurrena eta Maria Teresa Murguari.



MAIALEN ANDRES

Joaldunak Galarretako sari banaketan

Irailaren 9an jokatu zuten Hernaniko Galarretan buruz buruko erremonte txapelketako finala Aritz Juanenea saldiastarrak eta Ansa II.a urnietarrak. Sari banaketan izan ziren Zubietako joaldunak ere, Ansa II.a txapelduna eta Juanenea txapeldunordea podiumera laguntzen.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Gazteen arteko herri kirol desafioan parte hartu zutenak iaz. JAIONE ARIZTEGI



Herri kirol desafioak ikusmina pitzen du.

San Migel bestak irailaren 28tik urriaren 2ra prest

Egun handian herriko haurren dantza saioa, paella jatea eta Hago Silik! taldearen kontzertua izanen dituzte

JAIONE ARIZTEGI

Berriz ere San Migel bestak gogotsu ospatuko dituzte Urroren irailaren 28tik urriaren 2ra. Beti bezala, egitarau zabala prestatu dute, ortzegun arratsaldeko haur joko, txupinazo, kalejira eta herriko ostatuko zopekin abiatu eta hondar eguneko dantza saioa, aizkora eta harri-jasotzaile erakustaldia eta tortilla eta postre lehiaketa eta afarira bitarte. Egun handian, mezaz gain, herriko haurren dantza saioa, paella jatea eta Hago Silik! taldearen kontzertua izanen dituzte.

Irailak 28, ortzeguna Bezpera

18:00etan haur jokoak. 19:00etan suziria eta kalejira bestak hasteko. 19:30ean herri kirolak. 21:00etan zopak herriko ostatuan. 00:00etan dantzaldia Andoni akordeoi-lariarekin.

Irailak 29, ortziralea San Migel eguna

11:00etan Meza Nagusia. 12:00etan herriko haurren dantza erakustaldia. 12:30ean luntxa herriko ostatuan. 16:30ean mus txapelketaren hasiera. 20:00etan DJ&J.



Txikienek ere badakite mahairen inguruan egoten eta gozutzen.

21:30ean paella afaria herriko frontoian. 23:30ean Hago Silik! Taldearen kontzertua. 01:00etan DJ&J.

Irailak 30, larunbata Herri bazkaria

11:00etan mus txapelketaren finala. 14:00etan herri bazkaria Sebastian Lizaso eta Xabat Illarregi bertsolariarekin. Ondotik, musika Andoni akordeoi-lariarekin. 21:00etan xingar- eta txixtor-jatea. 22:00etan musika Gabenara taldearekin.

Urriak 2, igandea

12:00etan Doneztebeko Erreka dantza taldeko dantzarien saioa. 18:00etan aizkolari eta harri-jasotzaileen erakustaldi bikaina: Iker Vicente eta Karmele Gisasola *Zelai III.a* – Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Nerea Arrutiren kontra. 18:30ean erromeria trikitilariarekin. 20:30ean hasita tortilla eta postre lehiaketa. Ondotik, lehiaketa prestatutakoekin afaria eta besten bukaera.



Besta zoriontsuak opa dizkizue urrozlar eta bisitari guztiei

- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- KLIMATIZAZIOA
- EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIO TERMIKOA
- AEROTERMIA
- BIOMASA
- HOZTEKO ETA BEROTZEKO ZORU ERRADIATZAILEA

Leurtzako-etorbidea, 29. URROZ
T. 678 99 48 00 • babazeiturgintza@gmail.com

Ongi pasatu bestaki



Arkupeak elkarteko bazkideak informatika ikastaroan. UTZITAKOIA

Herriz herriz ikastaroak antolatu ditu elkarteak

Ikastaroetako izen ematea irekia dago eta telefonoz egin beharko da elkartera deituta

TTIPI-TTAPA

Iraila ailegatzearekin bat, udako oporrak bukatu eta bertze ikasturte bat hasiko du elkarteak. Ohiko jardunarekin hasiko dira, eta herriz herri ondorengo ikastaroak izanen dituzte aurten.

Amaiur: Jubiloteka asteleheneran eta ortzegunetan 16:00etatik 18:00etara, eta pintura asteartetan 19:00etatik 20:30era.

Arantza: Pintura ortzegunetan 17:30etik 19:30era eta yoga ortziraletan 17:00etatik 19:00etara.

Bera: Frantsesa asteazkenetan 09:30etik 11:00etara lehenengo taldea, eta 11:00etatik 12:30era bigarren taldea. Pintura ortziraletan 18:30etik 20:30era.

Donamaria: Gimnasia asteleheneran eta asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara.

Doneztebe: Yoga asteleheneran eta asteazkenetan 15:30etik 16:30era; puntu tailerra 16:00etatik 18:00etara, pilates asteartetan eta ortzegunetan 10:30etik 11:30era; egur zizelkaritza asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara; yoga

tailerra asteazkenetan 10:30etik 11:30era; pintura asteazkenetan 17:30etik 19:30era; pirograbatu ortzegunetan 16:00etatik 18:00etara; dantza ortzegunetan 09:45etik 11:15era eta ortziraletan, luzaketak, 10:30etik 11:30era.

Elizondo: Pintura asteleheneran 18:30etik 20:30era, yoga asteartetan eta ortzegunetan 15:30etik 16:30era, eta jubiloteka asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara.

Erratzu: Jubiloteka ortzegunetan 16:00etatik 18:00etara.

Iurita: Jubiloteka asteartean 10:00etatik 12:00etara eta antzerkia 17:00etatik 19:00etara.

Ornoz-Mugairi: Memoria tailerra, irailaren 29an hasi abenduaren 22ra arte ortziraletan 16:00etatik 17:30era.

Sunbilla: Yoga tailerra asteartetan eta ortzegunetan 18:00etatik 19:00etara.

Urdazubi: Jubiloteka asteazkenetan 16:00etatik 18:00etara

Zugarramurdi: Jubiloteka 10:00etatik 12:00etara. Izen ematea irekia dago dagoeneko, eta elkarteko telefonora (948 45 08 78) deituz egin behar da.



Elkarteko bazkideak Andorrara egindako bidaietan. UTZITAKOIA

103 bazkide Andorran izan dira irail hasieran

TTIPI-TTAPA

Irailaren 3an atera ziren elkarteko 103 bazkide Andorra aldera lau egun pasatzera. Goizean atera ziren, eta 14:00etan iritsi ziren Andorra la Vellara. Bazkaldu eta arratsaldean Meritxellgo santutegira joan ziren, Andorrako patroia ikustera. Gero, La Casa del Vall ikusi zuten.

Irailaren 4an, asteleheneran, Kataluniara joan ziren, Cerdanya harana bisitatzera. Gero Puigcerdako lakua bisitatu zuten eta Pax de la Casara igo ziren. 2.500 metrotara dago eta bista izugarriak ikusi zituzten lainoa sartu aurretik.

Asteartean, irailaren 5ean, San Julian herrira joan ziren bertako eliza ikustera, hagitza modernoa da, 2019. urtean sortua. Gero, Ordinora joan ziren buelta bat ematera,

baita Miniaturana museora ere. Arratsaldean, Caldeagune termalera joan ziren eta ederki gozatu zuten.

Biharamunean, irailaren 6an, gosalduta eta erosketak egiteko aprobetxatu zuten goiza eta bazkaldu ondotik, etxe aldera abiatu ziren. Bidaiak hagitza ongi joan zen, eta aunitz gozatu zuten.

Arantzazura irteera

Abuztuaren 31n 210 lagun joan ziren Arantzazura. Aitor-tza komunitarioa egiteko ordurako iritsi ziren santutegira. Meza aditu ondotik, Urnieta-ko Oianume jatetxera joan ziren bazkaltzera eta eguna bukatzeko Joxe Angelekin dantzaldia izan zuten.

Azkenik, La Palmarako bidaietan data aldaketa izan dela jakinarazi dute: azaroaren 14tik 21era joanen dira.

Berriz ere bueltan da elkarteko hilabeteroko lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Udako atsedeneren ondotik, irailaren berriz ere bueltan da elkarteko hilabeteroko lehiaketa. Ekainean egin zuten azken galdera, eta asmatzaileen artean egindako zozketan Mari Mar Sanzberro igantziarra izan da irabazlea.

Hauxe izanen da irailko galdera: **Zein egunetan izan zen Donezteben 50 graduko tentsazio termikoa uda honetan?** Erantzunak 618 56 78 37 zenbakira bidali behar dira, baina, whatsapppez bakarrik.

Zorte on parte hartzaileei!



Hitanoari buruzko ikastaroa Fernando Oiartzunek emanen du. TTIPI-TTAPA

Hiketari oinarritzko maila lortzeko ikastaroa prest

Leitzako hizkeran noka eta toka aritzen hasteko zortzi saioko ikastaroa antolatuko dute

JM BARRIOLA-TTIPI-TTAPA

Bateko eta besteko gaiak landuz, ikastaroetan aukera zabala izanen dute herritarrek egun eta aste hauetan.

Horietako bat da hiketan oinarritzko maila lortzeko eta Leitzako hizkeran noka eta toka aritzen hasteko antolatuko duten ikastaroa. Euskara zerbitzuak, Alke kultur taldeak eta Cederna Garalur elkarteak jarri dute martxan eta zortzi saioko ikastaroa izanen da. Urriaren 20an hasi eta abenduaren 22an bukatuko da, eta tarte horretan, ostiraletan 19:00etatik 20:30era Mimukai

aretoan bilduko dira: urriaren 20an eta 27an, azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean, 15ean eta 22an.

Eduki teorikoak eta hiketan aritzekoak landuko dituztela adierazi dute, metodologia komunikatiboa eta parte hartzailea erabiliz. Eta izena emateko azken eguna ostirala,

NOKA ETA TOKA IKASTAROAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: OSTIRALA

Aurrera elkartearen eguna urriaren 7an egingen dute

Aurrera Kirol Elkarteak urteko egun handia urriaren 7an ospatuko du. Seguru aurten ere goiz-goizetik hasita egun osoan hainbat hitzordu prestatuko dituela. Joan den astean egitekoa zuten bilera eta xehetasun guztiak hurrengo TTIPI-TTAPA agertuko dira.

Merkatarien stock azoka frontoian

Eguraldia tarteko berez plazan egitekoa zen stock azoka frontoira lekualdatu zuten Kaxkabeltza elkarte-koek. Baina euriak ez zituzten beldurtu bezeroak eta larunbat goizean eta igande eguerdian jende dezente ibili zen.

irailaren 22a izanen da. Apuntatzeko euskara zerbitzura deitu (948 51 08 14) edo idatzi (e-mailez laga@iparmank.eus edo Whatsappez 649 36 41 89) behar da.

'Eskaini euskara'

Euskararen erabilera normalizatzeko bidean, merkatari, ostalariei publikoari begira lan egiten dutenentzako *Eskaini euskara* ikastaroa antolatuko dute euskara zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta IKA euskaltegiak. Irailaren 12an hasi ziren, eta hilabete batez, asteartero eta ostegunero bilduko dira, 15:00etatik 17:30era. Iraia Ceballos euskaltegiko arduradunak eta irakasleak adierazi duenez, «Leitzan zerbitzuak duten garrantzia kontuan hartuta» antolatuko dute ikastaroa, «euskarazko arreta eta euskararen erabilera areagotzeko pausoak emateko helburuarekin».

Izan ere, «azken urte hauetan, sektorean dauden zailtasunak direla eta, erdararen erabilera handitu dela sumatu dugu». Hala, ikastaroan, «hain lanpostuetan herritarrekin harremanak euskaraz izateko lehenbiziko pausuak emanen dituzte, eta euskararen ikaskuntzan jarraitu nahi izanez gero, euskaltegiko ohiko ikastaroetara bideratuko ditugu». Ikastaroa doakoa da.

Emakumeak erdigunean

«Lurralde berriak esploratzeko ataria» sortzeko asmoz,

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 40 eta 60 urte bitarteko emakumeentzako tailerra antolatu du. Antolatuzaileek adierazi dutenez, tailerra «geure buruaren eta gorputzaren jabe izaten lagunduko digun prozesua izanen da, norberaren zaintza eta goxamena erdigunean jarriko dituen».

Bide horretan, lau saio egingen dituzte udaletxeko ludo-terka gelan eta aurrenekoa ostegun honetan, irailaren 21ean egingen dute. Hurrengoak urriaren 26an, azaroaren 23an eta abenduaren 14an egingen dituzte. Izena emateko epea irailaren 15ean bukatzekoa zen.

Argazkigintza esperimental

Argazkilaritza esperimental barrutik ezagutzeko, berriz, sei orduko ikastaroa antolatuko dute. Ostegunetan, irailaren 21ean, eta hilaren 28an izanen dira saioak, 17:00etatik 20:00etara Karrape tabernan. Nagore Legarretak gidatuko du ikastaroa baina dagoeneko edukiera bete da.

Batukada

Martillotxiki Perkusio Eskolaren eskutik, herritarrentzako batukada tailerra aste honetan hastekoa zen. Bi entsegu egingen dituzte, bigarrena hilaren 25ean, Herri Aretoan, 17:00etatik 18:30era, eta irailaren 29an ikasitakoa jendaurrean erakutsiko dute. 19:00etan egin dute hitzordua.



Urriaren 1ean hasiko da Herri Aretoko denboraldia

Film emanaldien ordutegiak aldatu dituzte eta webgunea ere estreinatu dute

TTIPI-TTAPA

Udako atsedendialdiaren ondoren, datorren urriaren 1ean hasiko da Herri Aretoko denboraldia. Egun horretan itzuliko da oinarrizko programazioa eta aurten, gainera, berrikuntza batzuekin izanen da; alde batetik, ordutegian aldaketak egin dituzte eta bestetik, webgune berria estreinatuko dute.

Zinea eta antzerkia

Hilabeteko aurreneko eta hirugarren asteburuetan zinemak hartuko du protagonismoa.

Eta Miren Tirapu kultur teknikariak ordutegian egin duten aldaketa oroitarazi nahi izan die herritarrei: Lehendabiziko emanaldia 17:00etan izanen da eta bigarren saioa 19:30ean. Hilabeteko bigarren igandean, berriz, antzerkiak hartuko du lekukoa.

Webgunea

Herri Aretoko programazio guztia biltzeko, bonuak erosteko eta bestelako xehetasunen berri emateko webgunea ere prestatzen ari dira: www.kulturaleitza.eus.



NEREA MAZKIARAN ETA PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA.

Giro ederra Talo Egunean

Giro eta eguraldi ederra lagun, Talo Egunaren XVIII. edizioa eta Mendialdeko Azoka Ibiltaria egin zituzten irailaren 10ean. Talogileak taloak egin eta egin aritu ziren, eta azoka ibiltariko postuek ere ez zuten bisitari faltarik izan. Talo lehiaketan, berriz, Ylenia Villabonarentzat izan zen aurreneko saria.

Aurrerako txirrindularien denboraldi ederra

TTIPI-TTAPA

Ez da sekula berandu izaten balentriak aipatzeko, eta Aurrerako txirrindularien lanak ere aipamena merezi du. Lerro hauek idazterakoan, batzuk denboraldia bukatua izanen dute eta besteak azken txanpan ibiliko dira.

Kadeteak

Kadeteek abuztuan bukatu zuten aurtengo denboraldia, eta hilabete horretan berean hainbat lasterketetan parte hartu ondoren. Besteak beste, Tafallan, Antzinen, Los Arcosen, Murietan eta Lakuntzan ibili ziren eta bikain moldatu ziren: Joanes Olaizola Antzinen bigarren sailkatu zen eta Ioritz Dorronsorok Murietan tarterko helmugak eta mendiko saria eskuratu zituen ihesaldi ausart bat egin ondoren.

Denboraldi amaierara nekatuta ailegatu ziren, baina taldeak balorazio ona egin du. Horren erakusle, Nafarroako Kirol Jokoetan denboraldian txirrindulariek lortu dituzten sailkapenei dagozkien puntuaketekin osatutako zerrendan, Joanes Olaizola bigarren gelditu zen, eta Ioritz Dorronsoro bosgarren; 29., 29. eta 44. postuetan, berriz, Egoitz Larreta, Etor Lizarraga eta Sebastian Chindris gelditu ziren, hurrenez hurren. Aipatzekoa da azken lasterketetan kide berri batekin indartu zutela Aurrerakoek taldea, Connor Aranbururekin, hain zuzen. Horrez gain, Olaizola eta Dorronsoro Nafarroako Selezioarekin ere aritu ziren, eta Aurreratik adierazi dutenez, «poztekoa da gurea bezalako talde hasiberri batentzat».



Aurrerako txirrindulariak. AURRERA TXIRRINDULARITZA TALDEA

Gaztetxoak eta juniorrak

Aurrerako txirrindulari gazte-xoenek ere denboraldia bukatu dute. Aratz eta Arane Gurrutxagak eta Ibai Imazek irailaren 16an egitekoa zuten beraien indarrak eta sasoa erakusteko azken lasterketa.

Juniorren azken lasterketa, berriz, irailaren 30ean, larunbata, izanen da eta kadeteen bigarren urtekoek ere bertan parte hartzeko aukera izanen dute.

Eskerrak

Aurrerako txirrindularitza batzordetik herriko pestetan txirrindulari taldearen alde egindako zozketan parte hartu zuten guztiei «eskerrak» eman nahi izan dizkiete, «zuei esker datorren denboraldia hasteko beharrezkoa dugun diru sarreraren zati bat lortu dugu. Mila esker». Neguko hilabeteetan atsedean hartuta, otsail edo martxo aldera hasiko dute denboraldia.

79 ikasle eskolan eta sei ume Goittikin ikasturte hasieran

Urtarriletik aurrera beste bi ume hasiko dira Goittikin eta guztira zortzi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Udako oporrak bukatuta, ohiko martxara itzuli dira neska-mutikoak. Goittiki haurtzaindegian, esaterako, irailaren 1ean hasi zuten ikasturtea. Urtarrilera bitarte sei ume izanen dira eta urtarriletik aurrera beste bi gehituko dira taldera eta zortzi izanen dira. Horrez gain, 08:00etatik 09:00etarako zaintza zerbitzuan beste ume batek eman du izena.

Bestalde, behin betiko lokaletan lortzeko lanekin ere aurrera segitzen dute.

Eta eskolako ikasleek ere ikasturtea hasi dute. Guztira 79 ikasle izanen dira Xalto eskolan. Hiru urteko zazpi ikasle hasi dira eta Haur Hezkuntzan 17 ikasle izanen dira guztira. Lehen Hezkuntzan 46 ikasle dira eta DBHn 16.

Liburutegi ibiltaria

Liburutegi ibiltariak irailaren 29an, ostirala, egingen du ikasturte honetako aurreneko geldialdia. Elena Arteta liburuzaina 14:30etik 15:30era hurbilduko da eta 16:00etatik 16:30era Aranora joanen da.

Goizueta eta Hernani lotzen dituen autobus zerbitzuan ordutegi aldaketa

TTIPI-TTAPA

Udako martxa alde batera utzita, Goizueta eta Hernani lotzen dituen autobus zerbitzua lineak beste ordutegia du. Irailaren 11z geroztik, Goizuetatik 09:00etan eta 14:45ean ateratzen dira Hernanira doazen autobusak, eta

horiez gain, eskola egunetan 17:00etan beste autobus bat ateratzen da.

Hernanitik datozen autobusak, berriz, 12:00etan eta 19:00etan ateratzen dira, eta eskola egunetan 15:30ean beste autobus bat ere izanen da.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicación
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material erabat pertsonalizatuta



Apezteatarrak ez zuten herritarren animo faltarik izan. ROSA OLAIZOLA

Apezteatarrak nagusi Antiguako pilota txapelketan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 6an jokatu zituzten Antiguako pilota txapelketaren 75. edizioko finalak, eta herritarrek ez zuten hutsik egin.

Gizonezkoen promesa mailako finalean Beñat Apezteak aurrelariak erakustaldia eman zuen eta Unax Landarekin batera 22-11 irabazi zuten Iker

Egiguren eta Aingeru Bernaolaren aurka. 13 tanto egin zituzten Apezteak jokoan eta beste bat sakearekin eta finaleko pilotari onena izendatu zuten. Gizonezkoen lehen mailako finalean, berriz, Unai Amianok eta Antton Apezteak 22-16 irabazi zieten Jorge Fernandezi eta Aratz Olideni.

Baserritarren batzordea elkarte bihurtzea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

Beste pauso bat emanez, orain arte baserritarren batzordea izan dena elkarte bihurtzea erabaki dute. Hala jakinarazi dio Juanjo Elizalde Usarraga batzordeko koordinatzaileak TTIPI-TTAPAri. Horrekin batera hainbat kontu aipatuz, oharra kaleratu du batzordearen izenean.

Oharrean ageri denez, «badugu urte bat eta erdi inguru baserritarren eta herritarren alde lanean gabiltzala, eta emaitzak ikusten hasita gaudete: bide bazterretan hesiak jarri dira, askak egin dira eta badirudi baserrietako bideetako zuloak tapatzera doala udala». Hala, batzordearen izenean «eskerrik handiena» eman nahi izan dio udalari, «sumatzen dugun aldaketa positiboarengatik». Hala ere,

«lan eta inbertsio askoren faltan segitzen dugula» gaineratu du, «baserri eta mendi inguruak baldintza onetan ikusteko».

Egoera hori bideratzeko erabaki dute batzordea elkarte bilakatzea, «modu honetan askoz ere eraginkorragoak izateko».

Urriari bilera

Orain arte egindako lanak eta aurrera begirako egitasmoak azaltzeko, urri hasieran bilera egiteko asmoa du batzordeak. Lerro hauek idazterakoan eguna zehaztu gabea zuten, baina horri begira, gonbidapena egin du Elizalde: «Baserritarra, nekazaria edo abeltzaina bazara, gonbidatua zaude. Zure iritzia eta ekarpenak oso garrantzitsuak dira guretzako».



Pasa den urtean topaketa Leitzan egin zuten eta aurten Aresok hartu du lekukoa.

Eskolarteko topaketak irailaren 30ean herrian

Bazkarirako txartelak irailaren 25era arte egongo dira salgai Areso, Goizueta eta Leitzako eskoletan

ENERITZ IRAOLA

Dantza, salto eta festa heldu da topaketa! abesten hasiak dira dagoeneko Leitzu, Goizueta, Arano, Areso eta Ezkurrako haurrak. Irailaren 30ean Areson izango dira eskolarteko topaketak eta bost herrietako haur, guraso eta eskolak elkartzeko egunpasa ederra antolatuko dute.

11:00etan emango diete hasiera festari, harreraren egin eta bost herrietako kideak nahasiz taldeak osatuko dituzte. 11:30etan hasiko dira jolasean eta festa gunera bakarera mugatu beharrean, herrian barna zabalduta izan dute. Sei gunen

sortu dituzte eta bakoitzean ekintza berezi bat egiteko aukera izango dute.

13:30 aldera bukaera emango diote jolasari eta topaketetako dantza egingo dute. 14:00etan bazkaria izango da eta ondoren kalejira. Arratsaldean giza futbolina, txokolate eta bizkotx jana eta erronomia izango dira.

Bazkaltzeko txartelak Aresoko, Goizuetako eta Leitzako eskoletan eros daitezke irailaren 25era arte. Helduek 10 euro eta haurrek 6 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkaritarako paella, postrea, kafea eta pastak izango dira.



ENERITZ IRAOLA

361 lagun mendi itzulian

Bezperako euri jasek ez zituzten beldurtu mendizaleak, ezta bideko lohiak ere. 361 mendizalek osatu zuten irailaren 3an mendi itzulia. Aukeran utzi zuten Urkietako iguera, baina gehienek hartu zuten tontorrerako bidea. Bukaeran, kamiseta-rekin batera, ongi irabazitako paella eta sagardoa izan zituzten.

Kinto bazkaria egingo dute urriaren 7an

1953 eta 1964 urteen artean jaiotako herritarrek kinto bazkarirako hitzordua egin dute. Datorren urriaren 7an, larunbata, egingo dute eta bertara joan nahi dutenek aldeztu aurretik apuntatu beharko dute; Sastinean eman beharko dute izena.

Uso postuen enkantea iraileko azken larunbatetan

Uso ehizako denboraldiari hasiera ofiziala eman aurretik, uso postuen enkantea egingo dute hilabete honetan. Beti bezala, iraileko azken bi larunbatetan izango dira, irailaren 23an eta 30ean. 18:00etan udaletxean bilduko dira.

'Zaharrak berri' antzezlanak ikusgai irailaren 24an

E. IRAOLA

Txalo talo konpainiak *Zaharrak berri* izeneko antzezlanaren eskainiko du igande honetan, irailaren 24an. 18:00etan hasiko da emanaldia eta tradizioa, lehengo bizimodua, ohitura zaharrak eta berriak uztartu ezin direnean sortzen

diren egoerak eramango dituzte taula gainera. 50 bat minutuko iraupena duen lana da.

Ester Povedaren gidaritzapean zazpi aktore igoko dira oholtzara, eta horien artean izango da Areson bizi den Ana Goñi.



Zazpi aktore igoko dira oholtzara, tartean Ana Goñi. UTZITAKO ARGAZKIA

«Etorkizun polita ikusten diot Azpilkuetari»

ANA IRUNGARAI JUBERA AZPILKUETAKO ALKATEA

Aurtengo agintaldia hasita, aldaketa izan zuten Azpilkuetako alkatetzan uztailean; Ana Irungarai da Juan Andres Azkarragaren ordezkoa karguan. Etxean gelditu da kontua, senar-emazteak baitira

R. OSKARIZ AZPILKUETA

«Azpilkuetan sortu eta bizi den familia gazte bateko ama» da Ana Irungarai Jubera, eta bere herriko alkatetza hartu du berriki, Juan Andres Azkarraga senarrari lekukoa hartuz hurrengo bi urteetarako.

Zer dela eta kargu aldaketa?

Urte hasieran Juan Andresek hartu zuen alkatetza, baina lanean aldaketa batzuk izan ondotik, etxekoa eta lana aitzinera eramateko errazago zitzaien kargua nik hartzea. Herriko batzarrean egoera azaldu eta azpilkuetarrek baiezta erranda, aitzinerat egin genuen.

Hala ere, alkatetzarekin lagunduko dizu?

Bai, dudarik gabe, elkarlanean ari gara. Martxa jada hartua zuenez, orain bidean biok gabilta.

Zein dira zure ardurak alkate gisa?

Udaleko mezuak herrian zabaltzea eta herritarren beharrak udalera eramatea, behar hauei erantzun ahal izateko. Horrez gain, herriko besta egunak (sanferminak, Egundun-Ttun...) lan taldean antolatzen ditugu, eta hondar hilabete hauetan NPB edo PACerako herri lurren esleipena antolatzeko udalean egiten diren bileretan parte hartzen dugu. Kontua da herri bezala ez dugula hainbertzeko indarririk, udalaren esku baitago gehiena.

Erraza da aurpegia ematea?



Senarrarekin elkarlanean alkatetza darama Irungarai Azpilkuetan. UTZITAKOIA

Egoera batzuetan aurpegia ematea zaila izaten ahal da, hala ere, lan taldea zurekin egoteak aunitz errazten ditu gauzak.

Nor dituzu kargudun?

Juan Andresen alkate lagun berekin segitzen dut; herriko auzoetako ordezkariak gaude. Hala ere, alkate lagunez gain, talde zabala dugu, hurbilekoek aunitz laguntzen digute eta baita herritarrek ere.

Nola antolatzen dituzue lanak?

Ez dugu bilerak egiteko egun edo epe zehatzik izaten, herrian agertzen diren beharren arabera edo zerbait suertatu bezala biltzen gara. Orokorrean lanak denon artean ateratzen ditugu aitzinerat, eta denok dugu denon berri. Hala ere,

alkate lagunetako bi uren komisionatuak dira, eta hauek eramaten dute uren kudeaketa. Alkate nagusiez gain, *damunausiak* (danbolin nagusiak) ditugu, herriko bestak eta inauteriak antolatzeaz arduratzen direnak.

Egunerokoan lan handia suposatzen dizu?

Ez da eguneroko lana, ez baitugu egunero alkatetzarekin lotutako lanik izanen, baina segimendua behar du; udala-

«HOBEKUNTZAK EGIN BADIRA ERE, HAUETAN SEGITU BEHARRA DAGO»

rekin komunikazioa etengabea da eta horrek lotura bat eskatzen du. Herriaren aldetik ere edozein momentutan ailegatu daiteke beharren bat.

Azken agintaldian alkateek arazoak izan zituzten Erdizko meategiaren aferarekin. Horrek ez zaitu beldurtu?

Nekazari etxetik heldu naizenez eta orain ere inguruan nekazari aunitz ditudanez, badaude onartu ezin ditugun gauza batzuk. Nekazaritzak segitu ahal izateko, beharrezkoa da horrelako parajeak zaintzea.

Azpilkuetari dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urteetan?

Hondar urteetan lan dezente egin dira herrian: saneamendua egin zen, komun publikoak egin ziren, eskolan jangela paratu zen martxan eta Apaio-ko lixutegia zaharberritu zen. Gainera, herriko bide batzuk moldatzen hasi ziren.

Eta zein behar ikusten dituzue?

Hobekuntzak egin badira ere, hauetan segitu beharra dago. Saneamendua herrian eta Zuaztoiko zati batean egin baitzen, Apaioa, Urrasun eta Arribiltoa auzoak kanpo gelditu ziren, baita Zuaztoiko etxe batzuk ere. Uren kudeaketa ere hobekuntzak behar dira. Bideei dagokienez, aspaldi egin gabe daudenak akitu behar dira; Azpilkueta, biztanle guti izanik ere, lurrez arras zabala da eta etxe eta baserri aunitzetako bideak moldatzea beharrezkoa da. Aurten honetan zentratu gara, bide eta pisten garbiketa eta moldaketetan.

Nola ikusten duzu Azpilkuetako etorkizuna?

Etorkizun polita ikusten dut, herriaren aldeko apustua egin genuen aunitzek eta hori nabarmena da eskolan. Momentu honetan 26 ikasle daude, eta orain dela 15 urte pentsaezina zen hau. Horrek bizitasuna eta alaitasuna ematen dio herriari. Garrantzitsua da oraingo gazteak ere herrietan gelditzea.



Erratzuko eta Baigorriko gazteak ekimenaren aurkezpenean. UTZITAKOA

Izpegiko bestak irailaren 22an eta 23an

Basaizeak, Baztango Gazte Asanbladak eta Erratzuko gazteek antolatuta, lehenengoz Izpegiko bestak ospatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, helburu franko ditu egitasmoak: «gure arteko elkar ezagutza suspertuko lukeen proiektua da, gure artean dugun muga fisiko eta psikologiko hori hausteko helburuz». Bertetik, euskara ardatz hariturik antolatuak direnez, «euskararen erabilpenaren arnagune» gisa kontsidera daitekeela azpimarratu dute. Azkenik nabarmendu dute muga bera hausteko xedearekin antolatu dutela besta, eta baita bertan antolatzen dituzten bertze ekintzak ere.

Antolatzaileek Izpegiko bestak denentzat leku segurua izatea nahi dute, eta horregatik diote ez dutela erasorik onartuko. «Behar diren baliabideak ezarriak izanen dira horiek saihesteko eta zerbait gertatuko balitz, berehalako neurriak hartuak izanen dira erasoari erantzuteko».

HERRIEN ARTEKO «MUGA FISIKO ETA PSIKOLOGIKOA» HAUTSI NAHI DUTE

Egitaraua

Irailak 22, ortziralea. 19:30ean garaiko eta gaurko mugaz gaindiko harremanei buruz ariko dira solasean Jojo Bidartek gidaturik, Bereko bentan.

Irailak 23, larunbata. Goizean mendi martxa izanen da Baigorritik Izpegira. 11:00etan bizikleta igoera eginen dute Baigorriko elizako plazatik Izpegiko lepora, eta haurren jokoak izanen dira. 12:00etan zintzur bustitzea izanen da Baigorriko eta Erratzuko gaiteroekin, eta Inen da zeit txarangarekin. 13:00etan ekitaldi nagusia eginen dute eta 14:00etan bazkaria txarangak alaiturik. 17:30ean Elektrotxorrongok animatuko du giroa eta 20:00etan Tripus-trapus batukadak. 21:00etan ogitar-tekoak eskainiko dituzte hiru bentetan eta 22:30ean kontzertuak izanen dira: Mirua, Toc eta DJ Üzkülüz.

Autobusak

Izpegiko lepora igotzeko eta bertatik jaisteko autobus zerbitzua izanen da egun osoz Baigorritik eta Elizondotik, 3 eurotan.

Igotzeko 10:00etan, 12:00etan eta 19:00etan aterako da autobusa Elizondotik, eta Erratzutik ere pasako da. Itzultzeko, aldiz, 20:30ean, 03:00etan eta 06:00etan aterako dira autobusak Izpegiko lepotik.

Baigorriara, aldiz, igotzeko 11:00etan, 13:00etan eta 20:00etan eta buelta 19:30ean, 02:00etan eta 05:00etan.



Bergaran saria hartzen. UTZITAKOA

Kortariko gasna txapeldun Bergaran eta Ordizian bigarren

TTIPI-TTAPA

Kortaria gasnategiak hainbat lehiaketetan parte hartu du azken aldian, baita txapel ugari lortu ere.

Uharte Arakilgo garaipenaren ondotik, irailaren 6an Latxa edo Karrantzako ardiaren esne gordinez egindako L. Gazta Lehiaketan parte hartu zuten Ordizian. 50 gasna aurkeztu ziren lehiaketara, eta bigarren postua lortu zuen Kortarikoak, gasna ketua aurkeztuta.

Honez gain, Bergarako bestetan egin ohi den San Martin azokako gasna lehiaketan parte hartu zuten bertze behin. Irailaren 9an izan zen lehiaketa, eta txapela eta 600 euroko saria lortu zuten bertan lekaroztarrek. Zorionak!

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
SERVICIOS DE CONSTRUCCIÓN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

DESINERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO



Behi azienden erakustaldiak eginen dituzte pilotalekuan. ONDIKOL

Behi piriniotarraren feria asteburuan Elizondon

Behi azienda piriniotarraren XXXIV. lehiaketa enkante nazionala ospatuko dute Merkatuko plazan larunbat eta igandean

TTIPI-TTAPA

Behien erakustaldiaz gain, azokak eta bertako produktuak dastatzeko aukera izanen da asteburuan.

Irailak 23, larunbata. Lehiaketa-enkantean parte hartuko duten abelburuak 09:00ak baino lehen sartuko dituzte Merkatuko plazan. 09:00etatik 14:00etara azienda kalifikatzeko txandak izanen dira eta 10:00etatik 14:00etara Baztango artisauen eta nekazarien elikagaien azoka. 17:00etatik 20:00etara azoka izanen da berriz ere eta 17:30etik 20:00etara behi azeindaren

erakustaldia, aurkezleen azalpenekin.

Irailak 24, igandea. 09:00etatik 12:00etara behien erakustaldia eta 10:00etatik 14:00etara Baztango artisau eta nekazarien elikagaien azoka. 11:30ean Nafarroako Aratxearen haragi dastaketa. 12:30ean behi aziendaren enkantea eta 13:00etan sari eta garaikurren banaketa.

Egitaraua larunbatean has ten bada ere, ortzirale arratsaldean, 15:00etatik aitzinera, abelburuak Merkatuko plazan sartzen ikusteko aukera izanen da.



JUAN MARI ONDIKOL ETA IZASKUN AIZPURI

Giro polita Txokotoko bestetan

Ortzirale arratsaldeko txupinazoarekin hasi eta igandera arte hainbat ekitaldi izan zituzten Txokoto auzoan. Aurten berrikuntza bat izan dute: patata tortilla lehiaketa. 12 tortilla aurkitu zituzten eta Maribel Marques izan zen irabazlea eta Begoña Arizmendi bigarrena. Zorionak!

FRANTSESA ELIZONDON
Filologia frantsesean
lizentziaturiko nafiboa

- IHEO, DELF eta DALFerako PRESTAKETA KLASEAK
- HELDU ZEIN HAURRENTZAKO KLASEAK
- IKASTARO TRINKOAK UDAN
- TALDE TXIKIAK
- MAILA GUZTIAK

Beatriz Bouzourene
 T. 676 028 907

MARMOLES SOULE
 www.marmolessoule.com

LAPIDAK
 PANTEOIAK
 HILERRIAK
 ZAHARBERRITZEAK
 GARBIKETAK
 HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
 marmolessoule@gmail.com

OTEIZA
 ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)
 31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
 20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
 www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos

Herentziak, jubilazioak eta pentsioen azterketa eta tramiteak

Herencias y gestión enpresan sei urte baino gehiago daramagu Baztan, Xareta, Malerreka eta Bortziriak inguruan zerbitzua ematen. Herentzien kudeaketarekin egiten dugu lan batez ere: herentzien onarpena, dokumentazioa, familien arteko bitartekaritza, ondasunen lokalizazioa... baita jubilazioak, pentsioak eta bertzelako gestioak ere. Nafarroatik kanpo, espainiar estatu osoan aritzen gara lanean, baita mugaz gaindiko kudeaketetan Frantziako herentziekin, hurbiltasunagatik.

Bertzeak bertze, pentsioak antolatzeko eta kudeatzeko zerbitzua da gehien eskatzen dugutena, baita herentzien onarpena egitea ere, egoeraren arabera notarioarekin edo notariorik gabe egin daitekeena.



Orokorrean, gai hauei buruzko ezjakintasun handia ikusten dugu herritarren artean, testamentuen prestaketa eta baita herentzien tramitazioan ere. Garrantzitsua da informatuta egotea, planifikazio on batek diru eta denboraren aurrezte inportantea dakarrelako epe luzera.

Etorri eta konpromisorik gabe solastatuko gara!



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Arraiozko bestak giro onean baina gazi-gozoak

Nahiz eta asteburu ez sobera ona egin, jende andana ibili zen bestetan

NEREA MORTALENA

Ortziralea, haurraren eguna, denbora onarekin hasi zen. 47 haur eta 25 helduek parte hartu zuten haurren eguneko bazkarian. Arratsalde partean puzgarri eta jokoak izan zituzten eta ilunabarrean, berriz, Tukutuku txarangarekin herriitik itzulia eman genuen. Gauean berriz, hain famatu bilakatu diren zopak izan genituen eta 170 lagunetik goiti izan ziren afaltzen.

Larunbatean, denbora txarrarengatik, goizeko ekitaldiak bertan behera gelditu ziren. Arratsaldeko dantza saioa, aldiz, frontoian egiteko aukera izan zen. Postre eta patata tortilla lehiaketa ere egin zituzten eta postreetan Iruñe Saezek irabazi zuen eta tortillan, aldiz, Nekane Zelaietak. Mus txapelketa ere egin zen herriko elkarteetan, eta bertako txapelkunak *Beltxa* eta *Kotoño* izan ziren.

Igande goizean erraldoiak izan ziren eta arratsalde partean Grand prix. Egunari bukaera Bankako Menditarrek eman zioten.

Bestak borobiltzeko, astelehenean haurren jokoak eta bizikleta martxa izan ziren, eguerdian zikro jatea eta arratsaldean dantzaldia Hauspolariekin.

Eraso homofoboa

Hala ere, ez da dena polita izan. Izan ere, eraso LGBTI+fobikoa izan zela jakinarazi eta salatu dute Harro Baztan taldeak, Iñarrosik, Baztango Talde Feministak, Arraiozko Herriak eta Gazteek eta Baztango Udalak. Adierazi dutenez, «bestan lasai zegoen lagun talde batek hitzezko eraso LGBTI+fobikoa jasan zuen. Erasoa eman ondotik, tentsio egoera izan zela aitortu du erasotzak. Gauzak horrela, egoera horretatik alde egitearren, erasotua eta haren lagunak etxera joatera beharturik

HITZEZKO ERASO LGBTI+FOBIKOA SALATU DUTE BESTETAN



Ederki ibili dira arraioztarrak herriko bestetan. NEREA MORTALENA

ikusi ziren. Erasotzak aitortu duenez, momentu horretaraino besta giro segurua sentitzen zuen, gizon hauek espazioa bereganatu zuten arte».

Honen aitzinean, «argi utzi nahi dugu ez dela kasu isolatu bat, egunero bizitzen dugun indarkeria sexista eta LGBTI+fobikoaren adibide eta ondorioa baizik. Modu batera edo bertzerarengabe erasotzak izaten garelako, begiradak, hitz iraingarriak, mehatxuak...

Badakigu jarrera hauekin gu isilarazi nahi gaituzuela, ezkutatu nahi gaituzuela eta berriz ere bazterretara bidali nahi gaituzuela, klandestinitatera. Baina argi eta ozen diogu: ez duzue lortuko, gure artean babesturik eta sareturik baikaude. Lanean segituko dugu besta eta inguru aunitz aske eta errespetutsu sentitu arte. Ez duzue Arraioz ezta Baztan ere ordezkatzeko, ez badakizue egoten, ez etorri!».

MUGARKI
12
asteko
erronka!
URRIAREN 2TIK
ABENDUAREN 21ERA


12 ASTEKO ENTRENAMENDUAK MUGARKIKO LANTALDEAREN ETA VITXORI JUANIKOTENA NUTRIZIONISTAREN ESKUTIK

- PLANIFIKATUTAKO ENTRENAMENDUAK EGIN
- ZURE OHITURETARA ETA ORDUTEGIETARA EGOKITUTAKO ELIKADURA PLANA LANDU
- HOBETU ZURE EGOERA FISIKOA
- HOBETU ZURE ELIKADURA OHITURAK
- HOBETU SENTITU

622 903 055 · kaixo@mugarki.com · Ordoki poligonoa, ARIZKUN · @mugarki_ · www.mugarki.com



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

Prestakuntza eta tailerrak zaharren egoitzan

Honez gain, zahar etxeko lanak egiteko lizitazioa zabalik da irailaren 25era arte

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte egoitza, FABRE fundazioarekin elkarlanean, 'Garapenerako hezkuntza-Sentsibilizazioa: Ez utzi inor atzean' proiektua garatzen ari da zahar etxeko egoiliarrekin. Bertako langileek azaldu dutenez, proiektua «belaunaldien arteko bizipena» da, «esperientziak eta ezagutzak partekatuzko. Herritarrek mundu bidezkoagoa, bake-tsua, tolerantzagoa, inklusiboagoa, jasangarriagoa eta seguruagoa eraikitzeke konpromisoa har dezatela sustatu nahi da, 2030 Agendaren esparruan».

Helburu espezifikoak «garapen-bidean dauden herrialdeen errealitatera hurbiltzea eta gure aitatxi-amatxiek iraunkortasun helburu horietan parte hartzea» da. Horretarako asteroko saioak egiten ari dira, FABREko Blanca Diez teknikari profesionalaren laguntzarekin prestakuntzak eta tailerrak eginez: baratze bat sortzea, erakusketak egitea... «protagonista nagusiak egoitzako adinekoak dira, gizar-

tearen garapenarekin hasi zirenak eta esku artean arras erronka polita utzi digutenak: baldintza berdinetan mundu justuago bat lortzea».

Lanen lizitazioa

Adinekoen egoitza zaharberritzeko prozesua abiatu du udalak, «bertako langileen eta egoiliarren beharretara egokitzeko». Uztailean zahar etxeak IDEA enpresarekin zuen kudeaketa kontratua etetea erabaki zuten, kudeaketa zuzenean udalaren esku uzteko, eta lanen berri eman zuen Fernando Anbustegi batzorde buruak. EH Bilduk Espainiako Gobernuarekin egindako akordioari esker, Baztango Udalak 4 milioi euro hartuko ditu erreformaren lehen fasea egiteko, eta lanen lizitazio deialdia egin dute orain.

2024KO UDABERRIAN HASIKO DIRA BERRITZE LANAK



Eskulanak, erakusketak, baratzea... egin dituzte zahar etxean. UTZITAKOAK

Enpresa interesatuek irailaren 25era arte, egun hau barne, izanen dute proposamenak aurkezteko epea. Udalak 5.270.712,98 eurotan (BEZik gabe) balioetsi du lanen prezioa. Deialdia eta baldintza guztiak eskuragarri daude navarra.es webgunean.

Gaur egun adinekoen egoitza IDEA enpresak kudeatzen du, eta bere kontratua 2024ko lehen seihilekoan akitzen da. Egoitza berritzeko lanak 2024ko

udaberrian hasiko dira, eta Eskubide Sozialen eta Agenda 2030 ministerioaren 4 milioi euroko laguntza eabazpenaren arabera, lehenbiziko faseko lanak 2025eko azaroaren 30era-ko akitu beharko dituzte. Lanak hasi baino lehen, hamar-naka egoiliar lekualdatu beharko dira, izan ere, gaur egun 155 plaza ditu eta zaharberritze obrak (3 faseak) akitutakoan 99 egoiliarrendako lekua izanen da.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean




Amaiurko errebestak ospatuko dituzte asteburuan

TTIPI-TTAPA

Udazkena behar bezala has-teko, errebestak izanen dituzte Amaiurren irailaren 22an eta 23an. Ortziralean *Amaiur Peak* mendi bideoaren emanaldia izanen dute, Joseba Iztueta eta Ekaitz Maiz sortzaileekin. Ladakhen (Himalaia) hainbat euskal gaztek uda honetan egindako mendi espedizio baten istorioa da, eta inork inoiz igo ez duen mendi kasko bati Amaiur Peak (5.760 metro) izena paratu diote. 19:30ean Otsondo gelan izanen da proiektzioa.



Amaiur Peak kaskoa Himalaian. E. MAIZ

Larunbatean, berriz, zikiro jatea egingen dute, Agerraldek alaiturik. Errebestak borobiltzeko, gauean dantzaldia izanen dute plazan Bizphiru Pelau taldearen eskutik.



Besta giroa izanen da nagusi herrian iraileko azken asteburuan. ARTXIBOTIK

Anizko bestak irailaren 29tik urriaren 1era

Urtero bezala, urriko lehenbiziko igandean izanen dira bestak Anizen eta hainbat ekitaldi izanen dituzte hiru egunez

TTIPI-TTAPA

Irailak 29, ortziralea. 11:00etan ez-kila jotzea, altxaferoak eta itzulia herriko musikariekin. 11:30ean herri krosa haurrendako eta helduendako, ibilbide desberdinekin. 12:00etan aniztarren arteko frontenis txapelketa eta 14:00etan bazkaria. 16:00etan frontenis txapelketako finalak jokatu dituzte eta ondotik herri kirolak adin guzietako jendearekin. 20:00etan mutil dantzak izanen dira eta 21:00etan baztan zopak. 00:00etan dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin eta goiz aldera xingar jatea.

Irailak 30, larunbata.

11:00etan puzgarriak izanen dira eta 12:00etan haur eta helduen paella lehiaketa. 14:00etan paellekin bazkaria egingen dute frontoian eta 15:00etan puzgarriak. 16:00etan mus txapelketa izanen da eta 18:00etan txokolata da. 19:00etan Eriz Magoaren ikuskizuna eta ondotik bokatak salgai izanen dira. 22:00etan dantzaldia Andoni Mitxelena-rekin.

Urriak 1, igandea.

11:45ean otordua bertako produktuekin prestatua eta 12:00etan Xarutako haurren pilota partidak. Akitzean, mus txapelketako finala eta 13:30ean mahaiak paratzeko hitzordua. 14:00etan zikiro jatea egingen dute Hauspolariek alaiturik, 17:00etan bingo txapelketa eta 19:00etan karaokea. Ondotik dantzaldia Hauspolariekin, xingar jatea eta kantaldia suaren inguruan eta akitzeko Gaixoak aniztarrek eta herriari itzulia.

Baztan zopetako eta zikiroko txartelak irailaren 22ra arte erosten ahalko dira 30 eurotan, telefonoz Maitaneri edo Iñakiri deituz.



DEPORTIVO ALAVES

Jon Karrikaburu Alavesen arituko da

Jon Karrikaburu futbolari elbetearrak Deportivo Alavesen jokatu du hurrengo bi denboraldietan, Realak utzita. Aurtengo urtarirlean bigarren mailako Leganesera joan zen utzita 20 urteko jokalar gaztea, eta Gasteizerako bidea egin du orain.



• Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua

• Gestoria

• Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

• Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak

• Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BRIKO
BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 46 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

ZUGARRAMURDI

Bi urteren ondotik udal bulegoak edeki dituzte berriz

Abendura arte bertze langile bat kontratatu dutenez, astearte, ortzegun eta ortziraletan ere edekia egonen da idazkaritza

MARIFA ETA KORO

Bi urtez Herriko Etxea etsirik izan ondotik, bulegoa edekirik daukagu irailaren 4tik aitzinera. Gainera, abendura arte bertze langile bat kontratatu denez, astearte eta ortzegunaz gain, ortziraletan ere edekita egonen da idazkaritza.



Lanak ez dituzte finitu oraino.

Lanak finitzeko

Lanakez dira oraindik finituak, baina abuztuaren bukaeran herri langileak eta alkate-zinegotzien artean garraiatu zituzten bulegoan beharrezkoak ziren tresneria eta doku-

mentazioak. Beraz, hemendik aitzinera Urdazubirat joan beharrean, gestioak berriz ere Herriko Etxean egiten ahalko ditugu.

Oieriko Iñaki Goienetxe herri langile lanean

Urtero egiten den gisan, berriz ere herri langile bat kontratatu du herriko etxeak: Oieriko Iñaki Goienetxe arituko da lan horretan. Sei hilabetez Pello Mari Aintziarti laguntza emanen dio, eta bien artean ekipa polita eginen dute seguraski.

Boteluzean jokatzeko ikasten ari dira asteartero frontoian

Uztailetik honat boteluzeko ikasten ari dira 8-10 bat lagun. Asteartero 19:00etan frontoian elkartzen dira Olivier Harotzarenaren gidaritzapean. Norbaitek pilota modalitate honetan aritzeko gogoia izanez gero, nahikoa du egun horretan agertzea.



Motozerraz arbola bota zuten errefetetan. MARIFA ETA KORO

Errefetetan ere txarkerietan ibili da jendea eta salaketa jarri du udalak

MARIFA ETA KORO

Bestetan gertatu zen bezala, errefeta egunean ere gaixakerietan aritu ziren jende ustel-madarikatu batzuk. Hainbat kalte sortu zituzten: aparkalekuko semaforoa berriz ere hondatu, frontoian bestetarako jarri zen sare berria hautsi, Elizargietako katea eta kandadua kendu eta motozerraz arbol bat bota eta Azketa jatetxeko zurezko zutabe bat erdiraino moztu.

Diotenez, kalte horietako batzuen errudun bat agertu da. Edozein gisan, udalak salaketa jarria dauka.



Azketa jatetxeko zutabearen ebakia.



JOSENEA ENERGIAK

JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Ariztun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Ameriketako ibilitako artzainak bildu ziren plazan eta frontoian. ONDIKOL

Artzain amerikanoen azken besta egin dute herrian

'Xaretatik Ameriketarat' liburua ere aurkeztu zuten eta omenaldia egin zioten Laura Igantzi presidenteari

ARANTXA ETA IRAIA

Irail mugitua hasi dugu herrian eta hori ere nabaritu zen irailaren 9an plazan. Euskal Artzainak Ameriketako eguna ospatu zen *Xaretatik Ameriketara* lelopean. 300 lagun inguru elkartu ziren herrian, Nafarroa eta Iparraldeko toki desberdinetatik hurbilduak. Egun hau ospatzen den azken eguna izaki, antolatzaileei omenaldi xume bat egin ondotik, programako ekitaldi guztiak egin ziren, Bankako Menditarrek alaituriko bazkaria eta guzti. Gainera, aipatzekoa da egun honetan aur-



Giro polita izan zuten bazkarian.

keztu zela Xaretatik Ameriketara joan ziren artzainei buruzko informazioa biltzen duen liburua. Honela, giro goxoan bildurik, artzain guztiak gogoan izan zituzten egun honetan.



Bankako Menditarrek elizan kantari. ONDIKOL



Leorlasko auzotarrak, lehen aldiz bestak ospatzen. ARANTXA ETA IRAIA

Lehenbiziko aldiz Leorlas auzoko bestak ospatu dituzte giro ederrarekin

ARANTXA ETA IRAIA

Irailaren 2an egun berezia bizi izan zuten Leorlas auzoan, lehenbiziko aldiz auzoko bestak ospatu baitzituzten. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, eskolako patioan karpa muntatu ondotik, eguneko programa osoa bete ahal izan zuten, giro ederrean.

Goizean, aterkiek, zirek eta berokiek lagundurik, mendi buelta eman ahal izan zuten. Gero, auzoko trikitilari gazteek bazkari aitizineko momentua alaitu zuten beraien musika doinu alaiekin. Bazkaltzeko elkartu ziren 80 pertsonen giro ederra izan zuten eta otordu bikainaren ondotik, Agerralde soinulariak arratsaldea musikaz alaitu zuen. Bestaren balorazio guztiz positiboa izanik, heldu den urteko bestetan pentsari daude jadanik auzotarrak.



Herriko trikitilariak lanean.

Hilabetero mendi itzulia lehen igandean

Hainbat herritarrek proposatu dutenez, hilabete bakoitzeko lehen igandean mendi itzuli bat egiteko intentzioa dago. Hortaz, hilabeteko lehen igandetan, 08:45ean herriko plazan hitzordua jarri dute, nahi duenak gure inguruez gozatzeko aukera izateko. Lehenbiziko irteera urriaren 1ean egingen dute, beraz, presatu botak eta gainerakoak!



Erretretan daudenek Bardozerat ateraldia urriaren 11n dute

Urriaren 6ra bitarte eman daiteke izena herriko etxean eta etxerat bila joatea ere galdea egin daiteke

GANEX

Sarako erretretatuen urteroko ateraldia urriaren 11n egingen dute Bardozerat. Autobusa asteazken horretan 08:30ean abiatuko da igerilekuko aparkalekutik. Izen ematea Herriko Etxeko idazkaritzan egin behar da (05 59 54 20 28) urriaren 6ra bitarte. 30 euroko parte hartze bat galdegina zaie izena emateko momentuan, 45 euro bikoteentzat. Ateraldi egunean, norbaiten etxerat bila joan behar bada, galdea egin beharko du izena ematerakoan.

Egitarauari dagokionez, bi-dean gosaria egingen dute eta gero Bardozeke Bastidarra esnetegira bisita egingen dute. Bazkaria Bastidako Les Arceaux jatetxean egingen dute. Handik herrirat itzuli eta arratsalde hondarreko azken trago bat



Bastidan bazkalduko dute.

hartuko dute Herriko Etxeko edantegian, Sarako Gazteriak eskainirik. «Etorri ahal duzuen guztiak egun goxo baten pasatzera elgarrekin».

Pilotariak txapelkun

Union Basque pilota batasunaren txapelketan, gaztetxo mailan txapelkun izan dira Kaiet Mariluz Alduntzin Kaeit eta Eneko Marin Imaz. Amikuzeren kontrako finala 30-9 irabazi zuten.



UTZITAKOA

Haira Aizpurua Ordizian irabazle

Lazkao Txiki bertso paper lehiaketaren sari banaketa egin zuten Ordizian. Adinaren arabera hiru kategoriatan banatu dituzte sariak, eta 14 eta 18 urte artekoetan Sarako Haira Aizpurua Ibargaraik lortu du lehenengo saria, *Bakartzaroa* lanarekin. Sarako bestetan ere ohoratu dute Aizpurua.



Musika-tresna primitiboen soinua entzuten dute lezean. UTZITAKOA

'Leizeen musika' gaualdi berezia egingen dute buruilaen 22an

TTIPI-TTAPA SARA

Leizearen oroimena zikloak segitzen du eta buruilaen 22an, ortziralean 19:00etan hasita hitzordu berezia izanen dute lezeetan, antzinako musika tresnei eskainia, *Leizeen musika* goiburuean.

Jean-Claude Enriquek musika tresna ezberdinak eta paleolitikoko soinu-adierazpenaren lehen formak aurkeztuko ditu lezeen harrera gelan. Frantsesez emanen du solasaldia, baina aldi berean euskarara itzultzea posible izanen da, horretarako hamar eskaera baino gehiago egiten

badira. Mintzaldia urrik da, aitzinetik izena emanez (plaza mugatuak dira). Gaualdia hurrupaldi partekatu batekin bururatuko da, usaian bezala.

Animaliak eta mugimenduak imitatzen dituzten soinua, danbolina, txistuak... *Leizeen musika* gaualdi berezian teknika eta musika tresna ugari ezagutzeko aukera izanen da. Mintzaldiaren ondotik, lezean sartuko dira instrumentu primitiboekin soinua entzuteko, lurpeko giro berezian.

Bertzalde, urrian, Kalakan taldearen eskutik kontzertuak ere izanen dira lezean.



CATHERINE MARCHAND

Bestetan herriko etxeak ohoratuak

Urtero bezala, urtetan egindako lanagatik omendu dituzte bestetan zenbait herritar. Battit Laborde alkatearen eskutik oroigarriak hartu dituzte Martin Goienetxek, Joxet Etxegaraik eta Jeannot *Ganex* Etxeberrigaraik. Horieta gain, aurtan hainbat txapel irabazi dituzten pilotariak ere ohoratu dituzte.

Egitarau mamitsua izanen dute Ibarrungo bestek

Larunbatean xerrikume errearen bazkaria eta arratsean elektrotxaranga eta kontzertuak izanen dituzte

JL BESSONART

Jondoni Mikel ospatua izanen da, urtero bezala Ibarrun auzoan, egitarau mamitsu batekin. **Irailaren 29an**, 20:00etan, mus lehiaketa Inharria base-rrian. Leku berean izen emaita, 10 euro kide bakoitzak. Auzoko zintzur bustitzea Loaziz taldeak animatua. **Irailaren 30an**, goizean pala zabaleko finala ondotik aperitifa eta xerrikume errearen bazkaria. Arratsean Elektrotxufila txaranga, Aho Zakil Konexion, Xutik eta DJ Gared. **Urriaren 1ean**, 10:00etan Ibar-Run emazteen minbiziaren aldeko lasterkaldia, 10:30ean Meza, eguerditan aperitifa, 16:00etan Casetas delakoak pilota plazan, Euskal Jokoak Gaia elkartearekin, 17:30ean Patxi ta konpania, 19:30ean Kantaldia, 20:30ean Frigo txaranga. **Urria-**

ren 2an, egun pasa *Barbie* lemarekin, Gaualdia HB Kaken.

Olha etxaldea

Abuztuaren 29an, Donibanen baita Baionan iragan diren manifestaldien ondotik, deliberatua izan da etxaldearen okupazioa bertan behera uztea. Uztailaren 24az geroztik, nola salerosketa legez finkatua denez, azken uztar bat emana izan da. Halere, bildu ditu manifestatzaile andana polita, hauen artean laborari anitz beraien traktoreekin.

Azpipimarratzekoa da, Ostia elkarteari lotua den Senpereko Kolektiboa aktore garrantzizkoa izan dela ekintza horietan, ahantzi gabe Lurzaindia eta ELB sindikata. Orain, espekulazioaren kontrako borroka segi lezake Kanboko Mariena zelaian.



Ikasle eta erakasleak, Kattalin Elizalde kolegioaren lehen egunean. JL BESSONART

Seaskaren Kattalin Elizalde kolegioak ere ekin dio bere lehen ikasturteari

JL BESSONART

Senpereko eskola guzietan ikasleen sartzea izan da gertakari eta hizpide nagusia. Halere, Seaskaren bosgarren kolegioak hartu du protagonismoa. Duela zazpi hilabete abiatu zen eraikitzea Herriko etxeak utzitako lur eremuan, Dominique Idiart zelarik auzapez. Nehork ez zezakenez pentsa, kolegioaren zabaltzea gauzatuko zela irailaren 4an. Hala eta guziz 82 ikaslek hartu dituzte beraien postuak seigarren eta bosgarren mailetan, lau geletan partekatuta. Hemendik urte batera idekiko

da laugarren mailakoa, baita hurrengoan hirugarren mailakoa ere, helburua delarik 160 ikasleen kopurua aurkitzea. Enpresetako langile eta burasoen parte hartzearekin idekitzearen apustua bete da, nahiz eta oraino anitz obra gelditzen diren egiteko. Bere-ziki, bertze zortzi gela iragarriak dira eta lanen iraupena bi urterendako ezarria da.

Atsegin handia izan da ikasle, zazpi erakasleen talde eta burasoendako, jakinez Ziburuko Larzabal kolegioa bere-ziki gainezka baizen kopurua- ren aldetik.



JL BESSONART

Julien Ubiriak erreleboa suhiltzaileetan

Hamabost urte eramanik suhiltzaileen buru, Julien Ubiriak bere zuzendaritza Jean-Claude Errandonearen eskuetan utzi du. Ibilbide guziek badute bukaera bat, 40 urte eginik suhiltzaile bezala, erreleboa pasatzea beharrezkoa zen, erretreta hartzerakoan. Familia ondoan izan du Ubiriak.



JL BESSONART

Elkarteen foroa Larrekon

Irailaren 2an, larunbat goizarekin, euri zaparradetik gerizan, Larreko sala ongi beterik, iragan da herriko elkarten urteroko elkarrizketa. Publikoak bazuen non hauta, anitz elkartek beraien mahaiak ezarriak baitzituzten, jendeen galderei erantzuteko eta kide berriak onartzeko gisan.



Ansa txapeldun eta Juanenea txapeldunorde, Zubietako joaldunekin. M. ANDRES

Aritz Juanenea txapeldunorde izan da buruz burukoan

Ansa II.a gehiago izan zen irailaren 9an Galarretako finalean eta 30-17 irabazita jantzi zuen txapela

TTIPI-TTAPA SALDIAS

Aurten binaka lau txapelketetan finalera ailegatu eta txapela irabazia zen Aritz Juanenea saldiastarra. Bosgarrena jokatu zuen larunbatean Galarretan, handiena, buruz buruko eta oraingoan amore eman behar izan zuen. Hasiara parekatu baten ondok, Imanol Ansa urnietarra 30-17 nagusitu zitzaion.

Lehenbiziko bi tantoak urnietarrak egin zituen sakearekin, baina bosna eta seina berdintzea lortu zuen Juaneneak. Bost tanto segidan egin zituen Ansa (11-6), baina

pixkanaka 14-12ra hurbildu zen saldiastarra. Hortik aurrera, ordea, gehiago izan zen Ansa II.a. Hamar tantoko alde lortu zuen lehen aldiz 23-13koan eta alde horri eutsi ez ezik, handitzea ere lortu zuen. Azkenean 30-17 nagusitu zen, lehen txapela jantzeko. Juaneneak ez zuen partida txarra

LEHENBIZIKO BANAKAKO TXAPELA JANTZIDU IMANOL ANSAK

egin. 15 tanto egin zituen pilotetan eta bi sakearekin. Sakearekin egindako falta bat izan ezik, ez zuen pilotarik galdu, baina Ansa II.a bikain aritu zen. Sari banaketara, erremontisten saskien azpitik eta Zubietako joaldunak lagunduta joan ziren txapelduna eta txapeldunordea.

«Kontent nago egindako lanarekin»

Finala galtzearen penarekin, baina egindako lanarekin kontent zegoen Aritz Juanenea: «Ansa izugarritzko partida jokatu du eta saiatu naiz aurre egiten baina ezinezkoa izan da. Halere, niretzat ametsa zen buruz buruko finalean izatea eta lortu dut. Ea hemendik aurrera noizbehinka lortzen dudana». Saldiastarra eskertua zegoen, «Malerreka aldetik etorri diren zale eta lagun guztiei eskerrak eman behar dizkiet, hemen izan dira animatzen eta babesa ematen. Zubietako joaldunak ere niregatik etorri dira, tartean lagunak ere badira eta horiei ere eskerak eman nahi dizkiet».

Imanol Ansa pozik zegoen txapelarekin, noski. Berak aipatu zuenez, «gaur egun erremontistak afizioagatik gaude, ofizioagatik baino gehiago. Gazteak animatuko nituzke afizio hau probatzera. Ordu asko sartu ditut kantzaxan presatuta lanetan. Txapela erdia Julen Loitegirena da, asko lagundu dit. Ibon Zalduari ere eskertua nago».

III. Plazaz Plaza txapelketa azken txanpan sartua

Ados elkarteak antolatutako III. Plazaz Plaza txapelketako finala irailaren 30ean jokatuko dute Azkoitian. Leitzako bi pilotari sartu dira finalerdietan. Iera Agirre Iturriaga aritzekoa zen hilaren 17an Getarian eta Goiuri Zabaleta ariko da hilaren 23an Etxaurin.

Erremonteko jardunaldia Donezteben

Nafarroako XVIII. erremonte txapelketan finalerdietan sartzeko jardunaldi erabakigarria jokatu dute larunbatean Ezkurra pilotalekuan: Aimar Jabalera doneztebarra eta Barricart, Xanti Uterga doneztebarraren eta Agirrezabalaren kontra ariko dira.

Eskubaloi talde nagusiak kopan hasiak dira

Errekako gizonezkoen eskubaloi taldeak 26-22 irabazi zuten kopako lehen partida BM Noainen kontra. Emakumeek, aldiz, 32-20 galdu zuten BM Ardoiren kontra. Baztango BKTko emakumeek larunbatean jokatzekoa zuten lehen partida Malkaitzen kontra.

Euskal Herriko III. Disc Golf txapelketa irailaren 23an jokatu dute Igantzin

TTIPI-TTAPA IGANTZIN

Euskal Herriko III. Disc Golf Txapelketa Igantziko Irrisarri Land zelaian jokatu dute irailaren 23an. Astebete beranduago, Espainiako Txapelketa jokatu da Oviedon, eta bertan ariko dira Baxi Basajaunakoak ere, MP50 mailan.

Aitzinetik, irailaren 8tik 10era European Pro Tour txapelketa jokatu zuten Irrisarri. Antoin Pagnier frantziarra (MPO), Baxi Basajaunako Iñaki Gonzalez Olaizola (MA3), Loralie Lanneluce (FPO) eta Nathalie Lanneluce (FA3) izan ziren txapeldunak, mailaz maila.



Baxi Basajaunako Iñaki Gonzalez garaile bere kategorian. UTZITAKOA



Aizkora hitzordu garrantzitsua hartuko du berriz Ezkurra pilotalekuak. ONDIKOL

Lehen mailako aizkolariek finala jokoan Donezteben

Irailaren 30ean jokatuko dute Euskal Herriko txapelketa nagusiko kanporaketa eta finala azaroaren 1ean Iruñean

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko lehen mailako aizkolariek txapelketaren kanporaketa jokatu dute irailaren 30ean, hileko azken larunbatean, 18:00etan hasita Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Hamaika aizkolarik ariko dira lehian, tartean Zigorroaren 1ean Iruñean jokatu

roaren 1ean Iruñean jokatu den finalerako seikotean sartzeko.

Zigako aizkolariekin bertze lau aizkolarik nafar (Otsagabiko Iker Vicente gaur egungo txapeladuna, Dorraoko Iban Resano eta Arostegiko Oier Kañameres eta Xuban Kañameres), Gipuzkoako bertze

lau (Astigarragako Jokin Urretabizkaia *Basozabal*, Zumarragako Xabier Zaldua, Mendaroko Hodei Ezpeleta eta Urrietako Julen Gabirondo), Bizkaiko federazioarekin lehiatzen duen David Naredo asturiarra eta Arabako federazioarekin lehiatzen duen Alvaro Garcia segoviarra ariko dira, Iruñeko Navarra Arena pilotalekuan azaroaren 1ean jokatu den finalerako sei txarteletako baten bila. 54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako bina enbor moztu beharko dituzte, finalaren lan erdia.

Nafarroako bigarren mailakoa

Nafarroako bigarren mailako aizkolariek txapelketaren finala jokatu dute irailaren 24an, igandean, 17:30ean hasita Uharteko Toki-Alai pilotalekuan. Bortz aizkolarik ariko dira lehian, tartean Aresoko Asier Pellejero eta Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria. Eskualdeko aizkolariekin batera, Iban Resano, Arostegiko Julen Kañameres eta Berriozarko Goizeder Beltza ariko dira. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu beharko dituzte eta bi lehenbizikoei lehen mailan aritzeko txartela eskuratuko dute.

Hamabortz bikote Nafarroako arpana txapelketa mistoko kanporaketan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako arpana txapelketa mistoko kanporaketa jokatu dute hamabortz bikote irailaren 23an, larunbatean 18:00etan hasita Antsoaingo kiroldegiko frontoian. Etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar korte eman beharko dizkiote eta bortz lehenbizikoei lortuko dute oraindik zehaztu gabeko lekuan eta datan jokatu den finalerako txartela. Unai Bertiz-Esti Gastearena (Sunbilla), Iruñe Biurrun-Dani Saldias (Antsoain-Arraioz), Sela Goñi-Jexux Goñi (Lekaroz), Sarai Maritorea-Ekaintz Maritorea (Berroeta), Naiara Manzano-Mikel Oteiza (Arantza) eta Ainhoa Etxegarai-Alberto Fagoaga (Bera-Arantza) izanen dira eskualdeko arpanlariak. 23 urtez beheitiko txapelketa ere Antsoainen erabakiko da larunbatean, eskualdeko kirolaririk gabe. Bortz bikote lehiatuko dira, metroko enborrari hamar korte emanaz.



UTZITAKOA

Apezteatarrak txapeldun Antiguako

Irailaren 6an jokatu ziren Antiguako pilota txapelketa entzutetsuko finalak. Promesa mailan, Beñat Apeztexea goizuetarrak eta Landak 22-11 irabazi zieten Egiguren eta Bernaolari eta lehen mailan, berriz, Amianok eta Antton Apeztexea goizuetarrak 22-16 Fernandez eta Olideni.



UTZITAKOA

84 kirolari Igantziko IV. Mendi duatloian

Igantzikoko IV. Mendi duatloian Josu Urrestarazu nagusitu zen, Unai Mateos eta Eneko Gurrutxagaren aitzinetik (argazkian). Binaka, berriz, Arantzako Dani Iparragirre eta Sunbillako Koldo Herrera izan ziren bizkorrenak, Sunbillako Eneit eta Ekaintz Bertiz anaien aitzinetik. 84 kirolari helmugaratu ziren.

AGENDA

IRAILAK 21 - URRIAK 5

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ITUREN Joaldunen eguna

Joaldun eta trikitilarien ibilbidea herritik eta baserrietatik, herri kirolak, bertsoak, bazkaria eta musika. Irailaren 23an. Xehetasun guztiak 30. orrialdean.

JARDUNALDIAK

ITUREN

Joaldunen eguna

Egun osoko egitarauarekin (30. or.).
Irailaren 23an.

ELIZONDO

Behi azienda pirinotarraren XXXIV. lehiaketa enkante nazionala

Egun osoko egitarauarekin (40. or.).
Merkatuko plazan, irailaren 23an eta 24an.

ETXALAR

Usategietako Tradizioaren besta

Egun osoko egitarauarekin (22. or.).
Lizarrietan, irailaren 24an.

ARESO

Eskolarteko topaketak

Egun osoko egitarauarekin (37. or.).
Irailaren 30ean.

ZUBIETA

Euskararen eguna

Egun osoko egitarauarekin (31. or.).
Urriaren 6an eta 7an.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, irailaren 23an eta 30ean, goizez.

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko plazan, irailaren 30ean, 10:00etan.

TAILERRAK

LEITZA

Argazkigintza esperimental

Nagore Legarretarekin.
Karrape tabernan, irailaren 21ean eta 28an, 17:00etatik 20:00etara.

BERA

'Musas y fusas' ipuin kontalaria

Liburutegian, irailaren 22an, 17:30ean.

'Emakumeon erotikak lantzen'

Kultur etxean, irailaren 28an, 17:30ean. Izen ematea berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidean eta 722 69 30 78 telefonoan.

LESAKA

Ipar martxari buruzko solasaldia

Noelia Martin instruktorearekin.
Koskontako bideko erabilera anitzeko gelan, irailaren 22an, 18:30ean.

ELIZONDO

Robotika tailerra Legoeekin

Arizkunenean, irailaren 28an, 10:00etatik 11:30era eta 12:00etatik 13:30era. Izen ematea info@discoverbricks.es helbidean eta 636 479 965 edo 636 450 745 telefonoan.

'Sexualitatea eta pornografia' solasaldia

Arizkunenean, irailaren 28an, 18:00etatik 20:00etara.

DONEZTEBE

'Hitzaztanak' tailerra

5-8 urteko haurrentzako.
Liburutegian, irailaren 28an, 17:00etan.

'Besarkitzak' tailerra

12-16 urteko gazteentzako.
Liburutegian, irailaren 28an, 19:00etan.

Ipuin txokoa

0-3 urteko haurrentzako, Haizea Loirarekin.
Liburutegian, urriaren 3an, 11:00etan.

IKUSKIZUNAK

BERA

'Bidaia' musika ikuskizuna

Toki Ona kiroldegian, irailaren 23an, 20:00etan. Sarrerak Agara prentsan, Telletxea estankoa eta entradium.com-en 7 eurotan.

ARESO

'Zaharrak berri' antzezlan

Txalo talo konpainia.
Irailaren 24an, 18:00etan.

LEITZA

Batukada tailerreko ikasleen emanaldia

Herri Aretoan, irailaren 29an, 19:00etan.

LESAKA

Iruñeko Orfeoia kontzertua

Elizan, irailaren 30ean, 18:00etan.

Xics de Granollers castellersak

Irailaren 30ean eta urriaren 1ean.

Nire aukera

«Egunero lanera irribarre batekin joatea da nire ametsa»

MIKEL SAIZAR GOIKOETXEA ARESOKO GAZTEA



Aresoko gazte, alai eta parrandazalea». Halaxe deskribatu du bere burua Mikel Saizar Goikoetxeak. Sukaldaritzako goi mailako ziklo bat ikasten ari da Donostian eta lagunekin denbora pasatzea, telesailak eta ikustea eta parrandan ateratzea ditu gustuko.

Sukaldaritzaz afizio

Sukaldaritzaz ikasketak egiten ari da Donostian, eta txikitatik datorkio sukaldaritzako afizioa. «Sukaldea gustatzen zaion edonori bezala, ama edo amona sukaldean ikusita etorri zitzaidala afizioa». Dioenez, txikitik hasi zen sukaldean «lagundu nahian». Geroago murgildu zen, «errezetak ikusi, eta errepikatu nahian» hasi zenean.

Ikasketei dagokionez, «inoiz ez naiz ikasle ona izan eta egiten ari naizen goi mailako zikloa

ez zait exijentea iruditzen», kontatu du. Are gehiago, «klasean arreta jarriz gero eta bidalitako lanetan interes pixka bat jarritz gero, erraza da». Nahiz eta ikasten ari denak «konplikaziorik» ez duen bere ustez, «ez bazara inoiz etxean sukaldean aritu hobe da erdi-mailako ziklo batean sartzea sukaldeko oinarriak ikasteko».

Sukaldaritzaz ikasten hastean hainbat klaxe entzuten direla uste du Saizarrek: «Prest egon behar da mundu guztiaren gomendioak entzuteko lan gogorra dela esanez, denek jai dutenean zu lanean egongo

**«POSTREAK
PRESTATZEAK
ERLAXATU EGITEN
NAU»**

zarela esanez...». Gainera, azaldu duenez, sukaldaritzaz ikasketak hasita «jende asko etorriko zaizu otorduren bat antolatu behar duzula esanez». Gomendioa ere luzatu die hori ikastekotan direnei: «benetan gustatzen zaizun gauza bat bada, alde txar guzti horiek ez dute inporta. Gainera, bizitza luzea da hanka sartu eta aurrera jarraitzeko eta ez baduzu zure bertan ikusten ondoren izango duzu denbora beste zerbait ikasteko».

Prestaketa gustukoak

Ordu asko ematen ditu sukaldean Saizarrek, baina, bereziki postreak prestatzea gustatzen zaio, «erlaxatu» egiten dutelako: «beharbada txikitako oroitzen ekartzen dizkidalako». Postreez gain, egosketa luzeko prestaketak egitea ere maite du: «Gisatuak, saldak... prestaketa horietan benetan ikusten da erabiltzen diren elikagai guztiak nahastearen emaitza». Jaterakoan ere, azken horiek ditu gustuko: «zapora guzti horiek ahoan nabaritzea, eta zapora konbinazioak ere ikaragarri gustatzen zaizkit», aitortu du. Ez ordea postreak, «prestatzeko bai, baina, jateko ez naiz batere gozo zalea».

Bere ametsetako lana zein den badaki aresoarrak: «Egunero lanera irribarre batekin joatea da nire ametsa, jakitea egunero zerbait berria ikasiko dudala, eta ikasteko gogoz dagoen jendez inguratua egotea». Hala ere hasieran, nahiago luke beste norbaiten babespean egotea, «sukaldean nahikoa estres pasatzen dugu,

**«GARRANTZITSUA
DA GAUZAK
DATOZEN BEZALA
HARTZEA»**

horri zure jateko propioa izatearen estresa gehitu gabe».

Herritik hirira

Donostian bizi da gaur egun, eta aldea nabaritzen du bien artean, batez ere Donostian bere ardura delako dena: «Gurasoen etxean lasai bizi zara, beti duzu plater bat jateko mahai gainean, baina ez da horren atzean dagoen lana ikusten». Donostian, ordea, berak darma etxeko martxa, eta horretan nabaritu du aldaketarik handiena. Batez ere arropa garbitzeko lana nabarmendu du: «Sukaldean uniformeak eramaten dugunez, eta egunero garbia eraman behar denez, arropak ematen duen lana handia da».

Ardura gehiago baditu ere pozik bizi da Donostian, hiriak «bizitza» duela iruditzen zaiolako. «Beti dago egiteko zerbait, eta beti dago jendea kalean, eta horren bizitasuna ematen dio zure bizitzari». Kontran, Aresok duen «lasaitasuna» ere maite du. «Asteburuetan Aresora iristen badakit etxean lasai egon naitekeela inongo zaratarik gabe, eta buruan kezkarik gabe, eta noski hemen dagoela familia eta kuadrilla». Biak ditu gustuko, nahiz eta gaur egun nahiago duen Donostia, baina, etorkizunean, «nik uste dut herrira itzuliko naizela».

Etorkizunari begira, «ahalik eta gehien ikasi nahi du bai eskolan, eta baita lanean ere». Hala ere, ez dio bere buruari helburu zehatzik jarri nahi: «Garrantzitsua iruditzen zait gauzak datozen bezala hartzea». Beste mezu bat ere luzatu nahi du: «Ikasketetan gure lehenengo aukera ez da zertan gure aukera bakarra izan. Nik argi nuen filologia klasikoa ikasiko nuela, baina, batxilergoko azken urtean erabat aldatu zen nire aukera. Eta oraingoz egin dudana aldaketarik onena izan da».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

Baserri edo etxe zahar baten bila, hasierako urteetan zaharbertzearen truke eta ondotik errentan hartzeko. ☎624 34 76 89.

BAZTAN, BERTIZARANA EDO SUN-BILLA inguruan baserri edo etxe bat errentan hartu nahi dute. 500 euro gehienez. ☎624 34 76 89.

ELIZONDO. Bi neska erizain pisu bat errentan hartzeko prest. Arduratsuak eta garbiak. ☎674 44 82 73 / 631 12 10 31.

Euskaldun familia baserri bila, alokairuan edo zaharbertzeko, 1.000-1.500 euro hilabetean ordaintzeko. ☎646 67 08 43 / 609 75 62 25.

Malerreka eta Bertizaranako gazte batzuk gara gure inguruan etxe edo baserri batean bizi nahi dugunak. Errentan hartzeko edo mantentze lanen truke bizitzeko prest. ☎690 15 46 44 / 608 60 29 34.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Altzate karrikan 90 metro koadroko pisua errentan emateko. Terraza eta gibebeko patioa. ☎650 98 19 50 / 631 89 36 98 (Deitu 10:00etatik 20:00etara).

ARANTZA. Eguzkialdea auzoan baserria errentan emateko. ☎666 04 69 02.

SALGAI

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldia (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

BERA. Kanttonberri karrikan 81m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldia eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

BERA. Partikular batek 148 m²-ko bi bizitzako etxebizitza ederra salgai, lorategiarekin eta portxearekin. Herri erdian eta toki lasaian. ☎629 18 80 88 / 660 78 53 05.

KONPARTITUAK

BARAÑAIN. Hiru logelako pisuan logela bat errentan emateko. ☎659 09 93 09.



IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO



LESAKA. Arte martzialak, yoga, pilates, aerobik edo horrelakoetarako prestatua dagoen aretoa orduka errentan emateko. Aretoak 100 m² ditu 70m²ko tatamiarekin. ☎629 68 71 71.

LANA

ESKARIAK

Emakume bat adinekoak zaintzen ariko litzateke, interna moduan. ☎667 22 17 51.

25 urteko gaztea lan bila. Garbiketan, zerbitzari, haurrak edo adinekoak zaintzen, fregaderan laguntzaile... ☎645 02 48 54.

Titulazio sozio-sanitarioa duen neska batek adinekoak zaintzen lan eginen luke. Interna modura edo kanpoan biziz. ☎653 72 41 92.

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean, neska batek goizez astean bi edo hiru egunez, bi edo hiru orduz egunean, haurrak zainduko litzuzke, hamar euro ordua. Dudaren bat izanez gero, Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46

ESKAINTZAK

BAIGORRI. Oronozia aterpetxean garbiketara eta zerbitzuan aritzeko pertsona bat xerkatzen dute. 35 oren astean. Hastapenean epe mugatuko kontratu batekin (3 hilabete), ondotik mugagabe izatera pasa daitekeena.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,25 €
- 1.koa 5,13 €
- 2.koa 5,01 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,08 €
- 2.koa 4,85 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,10/9,20 €
- 8-10 kilokoak: 7,20/7,90 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €
Zerri gizona 1,883 €
Zerramak 1,270€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

Lehenbailehen hasteko. ☎671 84 24 94 / 559 37 42 03.

Aldakolan enpresak eraikuntzako langileak behar ditu. ☎948 58 12 96 edo info@aldakolan.com.

GOIZUETAko eraikuntza enpresan, guarekin lanean aritzeko langilea behar dute, karnetarekin. Donostia eta Baiona arteko obretarako. Lan baldintza onak. ☎639 70 84 14.

LESAKA. Abxaspi hotolean garbiketara eta harrera lanak egiteko pertsona bat behar dute. Lesakan bizi den pertsona, lanaldi erdian edo osoan aritzeko. Bidali informazioa hotela@abxaspi.com edo deitu. ☎673 33 99 20.

IGANTZI. Irisarri Land parkean zerbitzaria eta zerbitzari laguntzaile bat behar dituzte. Interesatuak curriculuma rrhh@irrisarriand.com helbidera bidali. ☎948 92 89 22.

LESAKA. Iturbena kafetegian irailatik aurrera ostiral, larunbat eta igande gauetan afariak emateko sukaldaria behar dute. Orduetgia: 19:00etatik 23:00/00:00etara. Bokatutako, hamburgesak, razioak... Kozinatzeko. Interesatuak bertatik pasa edo telefonoz deitu. ☎620 70 09 64.

BERA. Beola Etxea Bentan biltegi-zaina behar dute. 40 orduko lanaldia astean (astean bi egun libratuz). Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera.

BERA. Beola Etxea Bentan kutxazain aritzeko pertsona bat behar dute. 40 orduko lanaldia astean (astean bi egun libratuz). Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrezkoak. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Beola Etxean boutiquean eta lurri dendan aritzeko langilea behar dute. 32 orduko lanaldia (astean 4 egunetan, 8 ordu egunean). Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Venta Mendi Mendianek sukaldari bat behar du. Interesatuak deitu edo 'mendimendian@hotmail.com' helbidera idatzi. ☎948 63 07 23.

IBARDIN. Gasolindegian urte osoan arratsaldean lan egiteko langilea behar dute. ☎948 63 08 60.

IBARDIN. Benta Gorrian sukaldari laguntzailea behar dute eguerdiko zerbitzurako. Deitu edo bidali curriculumak: bentagorria@hotmail.com. ☎618 00 27 31.

IBARDIN, DANTXARINEA ETA LUZAIDE. Harakin bila ari dira. Soldata erakargarria. Bidali curriculumak rrhh@ventabiok.com helbidera.

IBARDIN, DANTXARINEA ETA LUZAIDE. Zerbitzari bila ari dira. Egunean hiru ordu bakarrik. Soldata erakargarria. Bidali *curriculumum* rrhh@ventabiok.com helbidera.

BERA. Ubela tailerlean lanaldi erdian administrazio lanak egiteko langilea behar dute. Interesatuak deitu edo bidali curriculumum: administracion@ubela.net. ☎948 63 11 67.

BERA. Zalain jatekxan zerbitzariak behar dituzte. Deitu edo bidali curriculumum: sainz.amaia@gmail.com. ☎617 72 34 75.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Boss zakurrarentzat familia bila. Zakur ona eta sinpatikoa, urtebetekoa American Staffordshire arrazakoa. Txipa, txertoak eta antiparasitarioak jarriak eta zikiratua. Familia maitakor baten bila gabiltza, zaintza egoki bat ezingo diogulako eman aurrerantzean. ☎630 58 03 51.




LESAKA. Zakurkumeak oparitzeko. ☎637 71 53 83.



ARANTZA. Hiru urteko ardi zakurra oparitzeko. ☎690 36 05 23.

SALGAI



Zerrikumeak salgai laberako edo bizirik. ☎690 98 61 18.



BAZTAN. Bi artzain txakurkume salgai. Ama collie eta aita euskal artzain txakurra. Arras onak. Artzain edota mendian aunitz ibiltzen denarentzat aproposak. Baserrian bizi dira animalia artean. Baztanen, Otsondoko portutik hurbil. Bakoitza 50 eurotan. Ez dira oparituko, ezta edozeini emanen ere, aktibitate handia behar dutelako. Dudak Whatsappez. ☎636 18 15 46.



Zaldia salgai, 3 urteko pottoka kalifikatua. ☎600 67 04 95.



Hiru zakurkume salgai. Chou Chou eta Bordie Collie arrazen nahasketa. ☎619 23 16 47.

EROSI

Zerri gizena edo zerrama erosiko nuke. ☎699 50 90 03.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lureko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Obrako etxola salgai. 2,40 x 3 metrokoa. Atea bere giltzarekin eta kristalezko leihoa. ☎607 63 18 81.

Gurpil aukia eta eskailera igogailua salgai. Mugikortasun urrikoendako. Esfortzurik egin gabe eskailerak igo eta jaisten ditu. Hiru oinazpiko, toki



itikia behar du eta garraiatzeko erraza. Prezioa, dena barne, 1.300 euro. ☎684 03 66 71.

LEITZA. Txerriak hiltzeko kaiola salgai. ☎683 54 77 55.

Eskopeta bat salgai: Beretta Urika magnum Calibre 12. 400 eurotan. Horrekin batera, paralela berri bat eta kartutxo dezente oparitzeko. ☎659 48 91 40.



2 koltxoi eta 3 kajoiko ohatzea salgai. Egoera hagitz onean. Armazioa: 204x88x116. Ohatzeak: 105x195 eta 90x180. ☎699 10 77 29.

GALDU-AURKITUAK

GOIZUETA. Herriko presako eskailera inguruan erlojua galdu dute. ☎636 89 56 21.

BERTZELAKOAK

Pertsona batek osasun tratamendua hartzeko Iruñera joan behar du. Autobusaren gastu haundiak direla eta, egunero Iruñera doan pertsona batekin kontaktatu nahiko luke gastuak murriztearren. ☎697 64 88 30.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BERA. DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen ditut. Interesatuak deitu edo idatzi lasai. ☎677 54 42 67.

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI

BMW 3200 autoa salgai. 2000. urtekoa, IAT (ITV) pasatuta eta 280.000

kilometroekin. Egoera eta prezio onean. ☎646 69 98 86.



Vespa Iris 200 salgai. Errebisatutako motorra. Atzeko gurpil berria. IAT (ITV) abendura arte. Beti garajea egondakoa. Prezioa: 1.300 euro. ☎618 41 11 14.

Hyundai accent autoa salgai. 2003koa, 280.000 Km, diesel, 82CV. IAT (ITV) ekainean. 4 zirrikak berriak. Azken azterketa mekanikoa 2023ko otsailean. 1.700 euro. ☎661 01 58 20.



Ford Transit, homologatua, 2000. urtean matrikulatua, 176.000 km, 3 plaza, ohea eta harraska. Motorra ona. 2 leiho eta klaraboia. Bigarren bateria eta giltza deskonektatzeko. Prezioa 8.500 euro, negoziatu daiteke. Ez dut erabiltzen, horregatik dago salgai. ☎635 70 77 31.

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT CLIO TECHNO TCE 90 CV ESTREINATU GABE KILOMETRO 0

Aukera bikaina!

www.taileresantesteban.com
DOMEZTIBE - T. 948 450 282
info@taileresantesteban.com

OROIGARRIA

**Hilaria
MUTUBERRIA MAITIKORENA**

Iturenen, 2023ko abuztuaren 24an

*Sotilleneko bordan jaioa
Eta bertan zinen hazi
Zubialdera ezkondu gero
Han urte aunitzez bizi
Batzen ama izan zirena
Bertze aunitzen amatxi
Mila esker, zuri, guk zuregandik
Aunitz genuen ikasi
Zeru erdian egonen zara
Dena baituzu merezi.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Jose Antonio ANSA HUICI

Aranon, 2023ko abuztuaren 13an

*Joan zara, aita, joan zara senar maitea,
baina bihotza gainezka dugula utzi gaituzu,
zurekin pasa dugun denboraren gozoa
gurekin baitugu.
Eskerrik asko guztiagatik...*



*Eskerrak eman nahi dizkizuegu, bidenabar, zuei ere,
'agur' honetan gure ondoan izan zareten guztioi,
laguntza eman diguzuen guztioi,
maitasuna erakutsi diguzuen guztioi...*

Eskerrik asko bihotzez.

ETXEKOAK

HILBERRIAK


- **Joaquin Salaberria**, Sarakoa, abuztuaren 31n, 56 urte zituela.
- **Bernard Fazan**, Sarakoa, abuztuaren 31n, 94 urte zituela.
- **Teresa Duran Rosero**, Urrozkoa, abuztuaren 30ean, 80 urte zituela.
- **Beatriz Olaetxea Gue**, Lesakakoa, abuztuaren 30ean, 88 urte zituela.
- **Maritxu Martikorena Arribillaga**, Berakoa, irailaren 1ean, 97 urte zituela.
- **Francisca Ranz Gonzalo**, Leitzakoa, irailaren 1ean, 87 urte zituela.
- **Ana Maria Garaikoetxea Garaikoetxea**, Leitzakoa, irailaren 3an.
- **Doroteo Cordoba Sukilbide**, Arizkungoa, irailaren 3an, 57 urte zituela.
- **Miguel Perurena Azpiroz**, Leitzakoa, irailaren 5ean, 88 urte zituela.
- **Kontxa Abete Olondriz**, Elizondokoa, irailaren 6an, 95 urte zituela.
- **Martin Alduntzin Caballero**, Leitzakoa, irailaren 6an.
- **Asuncion Orbeagozo Arraztio**, Donamariakoa, irailaren 6an, 80 urte zituela.
- **Nieves Etxeberria Juanikorena**, Doneztebekoa, irailaren 10ean, 88 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Jean Françoise Marin** eta **Ane Maria Rase**, Saran, abuztuaren 5ean.
- **Bruno Bagardie** eta **Kattina Alvarez**, Saran, abuztuaren 19an.
- **Pierre Saint Martin** eta **Karine Beneton**, Saran, abuztuaren 28an.
- **Michael Houmne** eta **Chantel Dutrieux**, Saran, irailaren 2an.

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak, bikoitzak edo sinpleak...
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Dizaino grafikoak | Publikazioak
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58



BAZTAN BIDASOA
Ehizaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko



IZARRA
HEMEL, ZURE ONDOAN
ANIMA, AITZULOAN



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure harra, gure jendea, gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA


ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK



Oiartzungo **Arene Larregi Indakoetxeak** 2 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak printzesa familia guziaren partetik. Muxuak!



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** 9 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez aitaren eta amaren partetik!! Egun polita pasatu!!



Etxalarko **Izaro Marin Berruetak** 6 urte beteko ditu irailaren 22an. Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



Xabat Andueza Arruabarrena lesakarrak 3 urte bete ditu irailaren 3an. Aunitz urtez eta muxu handi bat etxekoen partez!!!



Aunitz urtez, **Ruben!** Urriaren 4an urteak beteko dituzu eta egun ederra pasa!



Amairko **Goren Mujika Elizalde**k urriaren 6an 6 urte beteko ditu... Etxeko ttikia haunditzen ari da! Muxu handi bat, guapo!

On-line kanpainak garatzen ditugu, zure enpresaren erakusleihoa eskura

WHATSAPP kanpainak

SARE SOZIALETAKO kanpainak

MIKRO-WEBAK eta BIDEOAK

ANIMAZIOAK



PLAZAN BAZAN

ALDEA DAGO

ZORIONAK!
KILLARI REYES PEÑA
837. aleko irabazlea zara!



Aurki itzazu bi
irudien artean
dauden aldeak.
10 dira guztira

Marrazkialak: Garbiñe Ubede (Aituri)



Loguntzailerak:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin irailaren
25a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera:
(0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ITZALA

GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMLIJZIAWUP



Ezaba itzazu VULNP, WUP eta MUJ guztiak eta iratxoen gaineko esatera bat agertuko zaizu.

| | | | |
|--|--|--|--|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

SUDOKUA

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerroj, zutabe eta area bakoitzeko.

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

837 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
M^a Carmen Zubiri Gaztañaga | LEITZA

Buatxabal - Kamiseta bat
M^a Carmen Almandoz | ARANTZA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Karmele Mujika Uzkudun | HERNANI

Irrisarri Land - Sarrera bat
Roman Agerre Lizarreta | NARBARTE

WOW Park - Sarrera bat
Begoña Olhagarai | ZUGARRAMURDI

La Rhune - Sarrera bat
Fco. Etxenike Mikelarena | IRURITA

Martiko - Lote bat
Maite Sanz Ganboa | BERA

Garbi - Saski bat
Rosa M^a Marzol Belauntzaran | ARESO

Txalaparta - Bi liburu
M^a Esther Mindegia Etxeberria | ITUREN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.bakarraventura.com



Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
Eliza kamika, 18 - Donostia



Lote bat

MUGARKI
www.mugarki.com/es



Sarrera bikoitza

ANIKOTE
@Anikotel.ezra



Sarrera bikoitza igerilekurako

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
AKTIBALEK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erositik.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

bagabiga
www.baga-biga.eus

www.baga-biga.eus